ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

# NEURTU 2022

## EAEko aniztasunari buruzko barometroa

### Ijitoekiko pertzepzioak eta jarrerak



*CIP. Biblioteca Universitaria*

**Neurtu** 2022, EAEko aniztasunari buruzko barometroa [Recurso electrónico]: ijitoekiko pertzepzioak eta jarrerak / Ikuspegi – Observatorio Vasco de Inmigración ; koordinatzailea, Julia Shershneva Zastavnaia. – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2022. – 1 recurso en línea : PDF (126 p.)
Modo de acceso: World Wide Web.
ISBN: 978-84-1319-512-4.

1. Gitanos – Opinión pública. 2. Discriminación racial – País Vasco. I. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración. II. Shershneva Zastavnaia, Julia, coord.

(0.034)316.647.82(460.15)

**Argitalpen hau nola aipatu:**
(APA 7 arauen arabera)
Ikuspegi (2023). *Neurtu 2022. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: ijitoekiko pertzepzioak eta jarrerak*. https://www.ikuspegi.eus/documentos/neurtu/neurtu2022eus.pdf

*Argitaraldi elektronikoa*

| | |
|---|---|
| Ikertzaile-taldea: | Julia Shershneva Zastavnaia (koordinatzailea)<br>Lía González Estepa<br>Maite Fouassier Zamalloa<br>*Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia*<br>José Antonio Oleaga Páramo |
| Talde laguntzailea: | Daniel La Parra Casado<br>*Universitat d'Alacant*<br>Javier Arza<br>*Nafarroako Unibertsitate Publikoa* |
| Urtea eta lekua:: | 2023, Bilbo |
| Argitaratzailea: | Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua |
| Diseinua eta maketazioa: | Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia |
| Dokumentazioa: | Antonio Gómez<br>*Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia* |
| Itzulpena: | Maramara Taldearen Hizkuntza Zerbitzuak, S.L |
| Azaleko argazkia: | Mari Carmen del Valle Cámara |
| ISBN: | 978-84-1319-512-4 |

# AURKIBIDEA

**Aurkezpena** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **5**

**Metodologiari buruzko oharra** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **9**

**1. Euskal gizartearen irekitasuna aniztasunari dagokionez** . . . . . . . . . . . . . . . . . **11**

1.1. Aniztasunaren inguruko jarrerak eta sinesmenak . . . . . . . . . . . . . . . . . . .11

1.2. Diskriminazioarekiko jarrerak eta pertzepzioak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .22

1.3. Erakundeek diskriminaziorik ezari begira egiten duten lana baloratzea eta eskubideei eta organismoei buruzko ezagutzak. . . . . . . . . . . . . . . . . .42

**2. Ijitoei buruzko pertzepzioak, jarrerak eta sinesmenak** . . . . . . . . . . . . . . . . . . **49**

2.1. Ijitoei buruzko jarrerak eta sinesmenak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .49

2.1.1. Hezkuntza. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .50

2.1.2. Erakundeak eta zerbitzu publikoak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .54

2.1.3. Lan-esparrua . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .58

2.1.4. Integrazioa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .60

2.2. Bizikidetza eta harremanetarako guneak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .65

2.3. Ijitoen aurkako diskriminazioaren pertzepzioa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .76

2.4. Ijitoenganako irekitasuna . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .84

**Ondorio orokorrak** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **109**

Eranskinak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .115

# Aurkezpena

Txosten honek Neurtu 2022 inkestaren analisiaren ondoriozko emaitza nagusiak biltzen ditu. EAEko aniztasunari buruzko barometroa, Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerei buruzko 2020ko inkestak (EPADE 2020) eta Neurtu 2021 azterlanak irekitako bideari jarraitzen diona. EAEko aniztasunari buruzko barometroa. Inkesta horiek EAEko biztanleek gizarte-errealitate anitzari dagokionez duten jarrera eta irekitasun-maila eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde duten konpromisoan daude ardaztuta.

Neurtu inkestaren helburua EAEko biztanleek aniztasunari buruz (haren esparru guztietan) dituzten pertzepzioak eta jarrerak ezagutzea da, eta horretarako, talde sozial eta kolektibo guztiei eragiten dieten errealitateak berariaz jorratzen dira, euskal gizarteak horiei buruz duen pertzepzioari buruzko galderen bloke espezifikoak barne. 2022ko edizio honetan, gizarteak EAEko ijitoekin lotuta dituen pertzepzio eta jarreretan dago ardaztuta inkesta.

Horren bidez, jakin nahi da euskal gizarteak nola «arnasten» duen aniztasunari —oro har— eta ijitoei —zehazki— dagokienez. Hau da, euskal gizarteak ijitoekin pentsatzen, hitz egiten eta elkarreragiten duenean zer-nolako jarrerak dituen eta zer-nolako pertzepzioak sortzen zaizkion iruditerian, eta, azken batean, zer-nolako iritziak dituen.

Horretarako, inkesta bat diseinatu da. Inkesta horrek, alde batetik, gizarte osoko aniztasuna eta diskriminazioa hautemateari buruzko hainbat alderdi biltzen ditu, eta, bestetik, ijitoekiko jarrerak eta bizikidetza zehazki aztertzen ditu, aurreiritzia adierazteko hainbat modu —batzuk agerikoak, eta beste batzuk, berriz, sotilagoak— kontuan izanik. Horri gagozkiola, jarreren argazki finko bat izatea ahalbidetzeaz gain, jarrerak ikuskatzeko baliabidea ere bada zundaketa.

Komeni da aipatzea inkesta baliabide metodologikoa dela, eta, beste edozein baliabide metodologikok bezala, badituela bere mugak. Ikerketa sozialaren ikuspegitik, frogatuta dago inkestetan oinarritutako diseinu metodologiko batek badituela arriskuak, hala nola desiragarritasun sozialaren isuria[1].

Haatik, diseinu kuantitatiboaren mugak jakinda eta emaitzak interpretatzeko orduan horrek berekin dakarren zuhurtasuna kontuan hartuta, inkestaren ikerketa-teknikan oinarritutako azterketa hau garatzea interesgarria eta erabilgarria da, zenbakizko neurketa zehatzagoa egiteko aukera ematen baitigu, aldagaien arteko lotura esanguratsuak detektatzen laguntzen baitigu, profilak eta tipologiak ezartzeko eta horien osaera kuantifikatzeko aukera ematen baitigu, eta, jada adierazi dugun bezala, aztertu beharreko fenomenoaren bilakaera ikuskatzeko ataza errazten baitigu.

Orobat, ikerketa honen diseinuan eta emaitzen azterketan zorroztasun handiagoa lortze aldera, Ijito Herriari buruzko ikerketan adituak diren bi pertsonak parte hartu dute: Daniel La Parra Casado [2] eta Javier Arza [3].

Egiturari dagokionez, txosten hau bi bloke handitan antolatuta dago. Lehenengo blokeak euskal biztanleriak aniztasunarekin —eta, oro har, diskriminazioarekin— lotuta dituen jarrerak eta pertzepzioak jorratzen ditu. Halaber, herritarrek diskriminazioaren aurrean dituzten eskubideei buruz eta eskubide horiek defendatzeaz arduratzen diren erakunde eta mekanismo instituzionalei buruz gizarteak zer dakien aztertzeko atal bat ere jasotzen du, bai eta tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko erakunde-lanaren inguruan herritarrek egiten dituzten balorazioak ere. Bigarren blokea ijitoekiko jarreretan eta pertzepzioetan oinarritzen da, eta Ijito Herriarenganako irekitasunaren euskal indize bat osatzen du, gizarteko talde desberdinak kokatzen dituena.

1 María Ángeles Cea D'Anconaren hitzetan: «Desiragarritasun soziala eragin handiko isuria da inkestaren kalitatearen narriaduran, ez delako horren ausazkoa baina bai, ordea, sistematikoa. Eskuarki, neurketa-akatsen gorakadarekin lotu ohi da, inkestatuak azkenean ez duelako onartzen sozialki "arbuiagarritzat" jotzen diren jokabide, jarrera edo iritzietan inplikatuta dagoenik. Gaitzespen edo arbuio soziala pairatzeko beldurrak zuzentasun politikoarekin edo desiragarritasun sozialaren aldeko erantzunak ematera eraman ohi du inkestatua, baina horrek ez du esan nahi emandako erantzuna inkestatuaren benetako sentimendu edo ustea denik». CEA D'ANCONA, MARÍA ÁNGELES (2009): «La compleja detección del racismo y la xenofobia a través de encuesta. Un paso adelante en su medición», in Reis. Revista Española de Investigaciones Sociológicas, (125), 13.-45. or., ISSN: 0210-5233. Eskuragarri hemen: https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=99712084001

2 Daniel La Parra Casado Soziologiako katedraduna da Alacanteko Unibertsitatean, eta aditu iraunkorra Ijito Herriaren Estatu Kontseiluko osasun-taldean. Bere ikerketaren ardatza osasun-arloko desparekotasunak dira, arreta berezia jarrita arrazakerian. Osasunaren Mundu Erakundeko aholkularia gizarteratzeari eta osasunari buruz.

3 Javier Arza gizarte-laneko doktorea da eta irakasle eta ikertzaile gisa dihardu Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Lan Sailean. Kulturartekotasunaren eta gizarte-bazterkeriaren arloetan espezializatu da. Ijitoen gizarte zibileko hainbat erakunderekin lankidetzan aritu ohi da.

Gainera, sarrera honen ondoren, egindako ikerketa-prozesuari buruzko ohar metodologiko bat sartu dugu, eta, amaiera gisa, ondorio orokorren azken atal bat. Bertan, laburbilduta, garrantzi eta interes sozial handienekotzat jotzen diren aurkikuntzak nabarmentzen dira.

Txosten honek ez du inola ere egoera hermetiko edo ukaezin bat deskribatu nahi; aitzitik, ebidentziak sortzen laguntzeko jomuga du, Ijito Herriaren errealitateei buruzko eta ijitoekiko pertzepzio eta jarrerei buruzko ikerkuntzan eta ezagutzan sakontze eta horren inguruan eztabaidatze aldera.

# Metodologiaren inguruko oharra

EAEko aniztasunaren eta diskriminazioaren pertzepzioa aztertzeko, eta ikerketa-helburuei jarraikiz, metodologia kuantitatiboa baliatzea erabaki da. EPADE 2020 eta María Ángeles Cea D'Ancona eta Miguel S. Vallés, Lorenzo Cachón, Ikerketa Soziologikoen Zentroa (IMIO-CIS 2013 eta 2016) eta Diskriminazioari buruzko EBren 2019ko Eurobarometroa oinarri hartuta, galdetegi bat diseinatu dugu *ad hoc*; galdetegi horri esker, EAEn aniztasunarekiko eta diskriminazioarekiko pertzepzioak eta jarrerak kuantifikatu ahal izan ditugu. Neurtu 2022 inkestaren galdetegia Neurtu 2021 inkestan funtsatuta dago, eta bi bloke handi ditu. Lehen blokeak EAEko aniztasunarekin lotutako gai orokorrak biltzen ditu, hala nola bizitzeko nahiago dugun gizarte-eredua edo gizarte-harremanak; halaber, gizartean gertatzen den diskriminazioaren pertzepzioari buruzko galderak ere biltzen ditu galdetegiak, baita diskriminazioa pairatuz gero ditugun eskubideei eta erakundeek gauzatu behar duten jardunari buruz zenbateraino dakigun jakiteko galderak ere. Bigarren blokeak, aldiz, urtero aldatzen diren gai espezifikoagoetan sakontzen du. Hala, 2022ko edizio honetan, ijitoenganako pertzepzioen eta jarreren bloke espezifiko bat sartu da.

Horretarako, 1.200 inkestako lagin bat diseinatu da (% 95eko konfiantza-mailarako eta P = Q; akatsa ±2,8 da). Etxez etxeko inkesta pertsonal bat da, EAEn bizi diren 18 urtetik gorakoei egindakoa, eta aukeratutako laginketa esleipen sinplearen bidez geruzatutakoa izan zen, habitat-neurriaren, jatorriaren, adinaren eta sexuaren araberako kuotekin.

37 udalerritan (Arabako 6tan, Gipuzkoako 16tan eta Bizkaiko 15etan) banatutako 34 laginketa-puntutan ausazko ibilbideen sistemaren bidez hautatu ziren etxeak. Azkenik, haztapen bat aplikatu da lurralde historikoaren arabera. Landa-lana 2022ko ekainaren 20tik uztailaren 27ra bitartean egin zen.

Azkenik, esan behar da ikerketa hau genero-ikuspegia kontuan izanik garatu eta analizatu dela. Begirada horrek, sexu/generoaren araberako aldagai guztiak aurkezteaz gain, aldagai horiek estatistikoki esanguratsuak ote diren kontuan hartu gabe[4], inkestak egiteko irizpide «klasiko» batzuk aldatzea eragin du.

Erabilitako analisi-teknikei dagokienez, bi aldagaiko adierazgarritasuna duten datuen analisi estatistiko bat aplikatu da (Chi 2). Bestalde, Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizea eratzeko, aldagai anitzeko datuak aztertzeko teknikak erabili dira (faktore-analisia, faktore baten ANOVA, segmentazio-zuhaitza eta AID edo Elkarreraginen Detektagailu Automatikoa).

[4]Txostenean zehar «sexua/generoa» erabiliko dugu euren burua «emakume» gisa identifikatu dutenen eta, alderantziz, euren burua «gizon» gisa identifikatu dutenen arteko erantzun-aldeak eskaintzen dituen aldagaia aipatzeko. Horrela, sexu/genero sistema jaiotzean esleitutako sexu-aldagaiaz haratago doan baldintzatzaile konplexu gisa identifikatzeko ikuspegi kritikoa hartu dugu.

# 1 Euskal gizartearen irekitasuna aniztasunari dagokionez

## Aniztasunaren inguruko jarrerak eta sinesmenak

Lehen epigrafe honetan, herritarrek aniztasunarekin lotuta dituzten jarrerak aztertzeko esparru orokor gisa balio digun datu multzo bat eskaintzen dugu; zehazki, gizarte-testuinguru komun baten parte izatearekin eta, azken batean, hainbat zentzutan (jatorria, ohitura kulturalak, erlijio-sinesmenak, gaitasunak, sexu-orientazioa eta sexu-eta genero-identitatea) elkarren artean desberdinak diren pertsonekin bizitzearekin lotutako jarrerak aztertzeko.

Lehenik eta behin, galdetutako pertsonetako bakoitzak zer-nolako gizartean bizi nahi lukeen aztertuko dugu; horren ondoren, pertsonen arteko harremanen esparruan, hurbileko pertsonen eta onartutako lagunen ezaugarriak jorratuko ditugu eta pertsona bat familia-testuinguru propioan sartzeko aukerari buruzko balorazioak egingo ditugu. Amaitzeko, gizarte-desparekotasuneko egoeran dauden gizatalde gutxituei buruzko edukiak eskola-curriculumean sartzearen inguruko adostasun-maila aztertuko dugu.

### Jarrera gizarte anitz bati dagokionez

Euskal gizartearen gehiengoak dio nahiago duela jatorriari, kulturari, erlijio-sinesmenari, sexu-orientazioari eta genero- edo sexu-identitateari dagokienez euren desberdinak diren pertsonekin bizi, alderdi horietan guztietan nagusiki homogeneoa den gizarte-ingurune batean bizi baino (% 83,9). Alabaina, pertsonen ehuneko hamarrek baino gehixeagok adierazten dute erosoago sentitzen direla homogeneotasunarekin aniztasunarekin baino; haatik, iritzirik eman nahi izan ez dutenak biztanleria osoaren % 4 dira (1. grafikoa).

**1. grafikoa. Bizitzeko aukeratutako gizarte mota (ehunekoa)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta*

*3. G. Zure esku egongo balitz, zer-nolako gizartean bizi nahiko zenuke?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, egindako ikasketak, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera eta estatus sozioekonomikoa (1. taula).

**1. taula. Bizitzeko aukeratutako gizarte mota, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehuneko horizontalak)**

| | | Gizarte anitz batean, jatorriari, kulturari, sinesmenari, sexu-orientazioari eta sexu- eta genero-identitateari dagokionez askotarikoak diren pertsonekin | Gehienbat jatorri, kultura, sinesmen, sexu-orientazio eta sexu- eta genero-identitate bereko pertsonez osatutako gizarte batean |
|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 85,8 | 11,2 |
| | Gizona | 81,9 | 12,6 |
| ADINA | 18-24 | 94,4 | 3,1* |
| | 25-44 | 85,6 | 10,9 |
| | 45-64 | 86,5 | 8,5* |
| | 65-74 | 81,1 | 15,1 |
| | 75 baino gehiago | 70,2 | 25,0* |
| IKASKETAK | Ikask. gabe eta lehen mailakoak | 75,0 | 20,9* |
| | Bigarren mailako ikasketak | 89,0 | 8,1* |
| | Goi-mailakoak | 86,0 | 8,3* |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 70,4 | 21,4* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 81,0 | 13,4 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 91,9 | 6,6* |
| | Beste erlijio bat | 84,2 | 15,8 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 90,7 | 5,9* |
| | Zentro-ezkerrekoa | 87,8 | 7,2* |
| | Zentro-eskuinekoa | 83,9 | 11,3 |
| | Eskuindarra | 75,5 | 21,5 |
| JARDUERA | Aktiboa | 87,4 | 8,7* |
| | Erretiratua | 76,6 | 18,5* |
| | Langabea | 85,5 | 10,4 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 65,9 | 29,1* |
| | Ikaslea | 93,1 | 3,1* |
| ESTATUSA | Altua | 100,0 | |
| | Ertaina | 84,8 | 10,9 |
| | Baxua | 64,1 | 31,8* |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta. 3. G. Zure esku egongo balitz, zer-nolako gizartean bizi nahiko zenuke?*

75 urtetik gorako pertsonen, ikasketarik gabekoen edo lehen mailako ikasketak dituztenen, estatus sozioekonomiko baxua dutenen, katoliko praktikatzaileen, erretiratuen eta euren burua etxekoandre gisa identifikatzen dutenen artean homogeneotasunaren alde egiten duten pertsonen ehunekoa nabarmen handiagoa da. Aitzitik, hein handian egiten dute gizarte-aniztasunaren alde gazteenek (18-24 urte) eta adin ertainekoek (45-64 urte), bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonek, ezkerrari lotutako ideologia politikoa duten pertsonek, enplegatuek eta ikasleek.

Aurreko urteetan egindako inkesten emaitzak kontuan hartzen baditugu (EPADE 2020 eta Neurtu 2021), ikusten dugu aniztasunaren aldeko jarrerak gora egiten duela: 2020an % 65,6 izatetik 2021ean % 73,9 izatera igaro da, eta 2022an % 83,9 izatera iritsi da (2. grafikoa)[5].

**2. grafikoa. Bizitzeko aukeratutako gizarte mota (konparazioa): EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 azterlanetan funtsatuta. 2020. EPADE: 1. G; Neurtu 2021: 1. G; Neurtu 2022: 3. G. Zure esku egongo balitz, zer-nolako gizartean bizi nahiko zenuke?*

## Bizikidetza eta aniztasuna: pertsona ezagunak, adiskidetasun-harremanak eta familia-testuingurua

Hamar biztanletik lauk adierazi dute harreman handia edo nahikoa dutela, hau da, jatorri atzerritarreko pertsonak ezagutzen dituztela edo are haien adiskideak direla. Ehuneko hori zertxobait jaisten da baliabide ekonomiko gutxi dituzten pertsonen eta arauz kanpoko sexu-orientazioa duten pertsonen artean (lesbianak, gayak eta bisexualak). Aldi berean, euskal gizartearen gehiengoak adierazi du ez duela ezagutzen (jakina, ezta lagun gisa ere) ijitorik (kasuen

[5] Komeni da adieraztea kontsultak 2020an izan zuen enuntziatuak ez zituela berariaz aipatzen sexu-orientazioa eta sexu- edo genero-identitatea.

% 68,7an), eta hamar biztanletik zazpik adierazi du ez duela trans pertsonarik ezagutzen (% 70,1) (3. grafikoa).

**3. grafikoa. Adiskideak edo ezagunak (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta*

*8. G. Honelako zenbat lagun edo ezagun dituzu?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, jarduera, gogobetetasun ekonomikoa, estatus sozioekonomikoa eta jatorria.

LGTBI kolektiboari[6] lotutako pertsona nabarmen gutxiago ezagutzen dituztela adierazten dute ikasketarik ez duten pertsonek edo lehen mailako ikasketak dituztenek, pertsona erlijiozaleek (katoliko praktikatzaileek eta katolizismoaz bestelako erlijioren bat dutenek), euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen duten pertsonek, adinekoek, erretiratuek, etxekoandre gisa identifikatzen direnek eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek. Bestalde, LGTBI kolektiboko pertsonekin harreman handiagoa dutela adierazten dute honako hauek: gazteenek, bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituztenek, erlijiozaleak ez direnek (agnostikoak eta ateoak), ezkertiarrak direla adierazi dutenek, beren egoera ekonomikoarekin pozik ez daudela adierazi dutenek, enplegua dutenek eta ikasleek. Horren antzera, harreman txikiagoa dute nola jatorri atzerritarreko pertsonekin hala beste erlijioren batekoekin 75 urtetik gorako pertsonek, erretiratuek, lehen mailako ikasketak dituztenek edo ikasketarik ez dutenek eta estatus sozioekonomiko baxuko pertsonek.

Era berean, ohartarazi nahi dugu ijitoekin harreman askoz ere txikiagoa dutela emakumeek, katolikoek, adinekoek, erretiratuek, euren burua zentro-

[6] Lesbianak, gayak, transak, bisexualak eta intersexualak.

eskuinarekin identifikatzen duten pertsonek eta beren egoera ekonomikoarekin pozik daudela adierazten dutenek.

Azkenik, jatorri atzerritarreko pertsonek gutxiagotan aipatzen dute desgaitasunen bat duten pertsonekin harremana dutela (2. taula).

**2. taula. Adiskideak edo ezagunak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Jatorri atzerritarra | Ijitoak | Lesbianak, gayak, bisexualak | Transexualak, transgeneroak | Desgaitasunen bat duten pertsonak | Beste erlijio batekoak | Baliabide ekonomiko eskasekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/GENEROA | Emakumea | 82,3 | 27,9* | 75,1 | 29,4 | 79,2 | 62,1 | 76,8 |
| | Gizona | 87,2 | 34,9 | 78,2 | 27,5 | 78,2 | 66,9 | 79,0 |
| ADINA | 18-24 | 94,7 | 39,9 | 90,2 | 42,8* | 68,2 | 68,8 | 82,7 |
| | 25-44 | 92,8 | 35,6 | 85,0 | 33,5* | 75,1 | 73,3 | 80,9 |
| | 45-64 | 88,7 | 35,9 | 83,0 | 33,5* | 80,0 | 71,3 | 79,5 |
| | 65-74 | 79,0 | 22,2* | 61,6* | 15,9* | 82,1 | 46,4* | 70,8 |
| | 75 baino gehiago | 54,9* | 12,8* | 47,2* | 7,9* | 86,1 | 40,8* | 71,0 |
| IKASKETAK | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 69,7* | 30,9 | 58,1* | 18,2* | 78,8 | 50,6* | 70,0 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 91,6 | 34,0 | 82,2 | 32,4* | 79,5 | 71,2 | 82,2 |
| | Goi-mailakoak | 90,0 | 28,5 | 86,6* | 33,2* | 77,9 | 68,7 | 79,8 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 73,6 | 20,0* | 58,8* | 21,7 | 78,7 | 56,7 | 81,4 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 81,8 | 28,9* | 75,7 | 24,5 | 81,1 | 60,4 | 75,8 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 89,5 | 36,4 | 88,3* | 36,2* | 78,2 | 66,7 | 76,7 |
| | Beste erlijio bat | 100,0 | 34,2 | 49,0* | 22,7 | 68,2 | 97,0* | 91,7 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 89,3 | 33,4 | 89,5* | 35,4* | 80,5 | 58,8 | 79,0 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 88,9 | 36,1 | 84,5 | 33,0* | 83,1 | 74,0 | 84,0 |
| | Zentro-eskuinekoa | 80,6 | 26,0* | 58,7* | 19,8* | 74,4 | 63,0 | 72,8 |
| | Eskuindarra | 81,6 | 23,0 | 71,5 | 27,2 | 76,2 | 66,1 | 72,1 |
| GOGOBETETASUN EKONOMIKOA | Ez dago pozik | 85,7 | 33,5 | 75,9 | 37,9* | 71,3 | 74,0 | 77,3 |
| | Ez zaio axola | 82,9 | 33,6 | 74,5 | 25,8 | 82,3 | 62,7 | 83,2 |
| | Pozik dago | 87,0 | 28,7* | 80,0 | 29,6 | 76,7 | 64,4 | 72,9 |
| JARDUERA | Aktiboa | 91,3 | 34,3 | 86,3* | 34,5* | 77,7 | 72,1 | 79,3 |
| | Erretiratua | 68,9* | 21,2* | 58,6* | 14,7* | 84,0 | 46,3* | 70,9 |
| | Langabea | 93,0 | 40,8 | 76,3 | 30,9 | 74,4 | 77,7 | 86,0 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 72,5 | 22,7 | 33,5* | 5,7* | 68,9 | 43,4 | 78,4 |
| | Ikaslea | 91,0 | 39,3 | 94,8 | 48,1* | 74,4 | 65,6 | 84,6 |
| ESTATUSA | Altua | 100,0 | 37,3 | 85,6 | 38,0 | 78,2 | 78,2 | 92,6 |
| | Ertaina | 86,2 | 31,6 | 77,8 | 28,5 | 78,5 | 65,0 | 77,9 |
| | Baxua | 58,5* | 23,3 | 52,2* | 23,4 | 77,9 | 43,9* | 68,4 |
| JATORRIA | Estatukoa | 83,0 | 31,1 | 78,4 | 28,8 | 80,7 | 62,9 | 76,8 |
| | Atzerritarra | 97,9 | 32,5 | 62,5 | 25,9 | 62,9* | 76,4 | 86,1 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*8. G. Honelako zenbat lagun edo ezagun dituzu?*

4. grafikoan ikusten denez, ez da ia aldaketa aipagarririk antzeman aurreko urteotan lortutako erantzunei dagokienez. Joera orokorrak aldakuntza txikiekin mantentzen dira. Adibidez, 2021ean eta 2022an 2020an baino handiagoa da norberarenaz bestelako erlijioren bateko pertsonekin harremanak dituztela adierazten duten biztanleen ehunekoa; aldiz, 2021ean eta 2022an zenbait puntuko jaitsiera izan du, 2020arekin alderatuta, baliabide ekonomiko eskasak dituzten pertsonekiko harremanak.

**4. grafikoa. Adiskidetasun-harremanak edo pertsona ezagunak (konparazioa): EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 (baiezko erantzunen ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 azterlanetan funtsatuta.*

*2020. EPADE: 18. G; Neurtu 2021: 7. G; Neurtu 2022: 8. G. Honelako zenbat lagun edo ezagun dituzu?*

Pertsonen arteko harremanekin jarraituz, eta 5. grafikoan ikusten denez, biztanleei galdetu egin diegu zenbaterainoko erosotasuna sentituko luketen/duten euren alabak edo semeak beste pertsona batekin harreman sentimentala izango balu, pertsona horri dagozkion bizi-ezaugarrien eta -zirkunstantzien arabera, eta neurri gisa 1etik 10era bitarteko eskala bat hartuta (1 «erabat deseroso» izango litzateke, eta 10, berriz, «erabat eroso»).

Hala, batez besteko erosotasun nabarmen handia erregistratu da (batez beste 8-7,6 puntu) pertsona hori zuria edo kaukasikoa, ateoa, baliabide ekonomiko eskasekoa, jatorri atzerritarrekoa, gainpisuduna, sexu-orientazio ez-normatibokoa, prestakuntza gutxikoa eta desgaitu fisikoa izateari dagokionez. Beste muturrean, EAEko gizartea ez da hain eroso sentitzen (nolanahi ere, inkestatuek ez dute arbuio nabarmenik adierazi) semeak edo alabak gaixotasun mentalen bat duen pertsona batekin (10etik 6,4 puntu), erlijio musulmana duen pertsona batekin (10etik 6,2 puntu) edo ijito batekin (10etik 5,8) harreman sentimentala izatearekin.

Bide erdian dago, adierazpen-ordena berari jarraikiz, honako hauekin lotuta adierazitako erosotasuna: kristaua izatea (7,4 puntu), gaztea izatea (7,4 puntu), pertsona transa izatea (7,3 puntu), intersexuala izatea (7,3 puntu), jatorri asiarrekoa izatea (7,2 puntu), adineko pertsona izatea (7 puntu), larruazal beltza izatea (7 puntu), budista izatea (7 puntu), judua izatea (7 puntu) eta desgaitasun intelektualen bat izatea (7 puntu).

**5. grafikoa. Seme-alaba batek ezaugarri hauek dituen pertsona batekin harreman sentimentala izatearekin lotutako jarrera (batez besteko puntuazioa, 1: ez da batere erosoa, 10: guztiz erosoa)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*10. G. Seme-alabarik duzun edo ez alde batera utzita, mesedez, esan, 1etik 10era bitarteko eskala bat erabiliz, zein neurritaraino sentituko zinatekeen eroso edo deseroso zure semeak edo alabak ... batekin harreman sentimentala izango balu.*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna eta estatus sozioekonomikoa (3. taula).

Nabarmendu du erosotasun handiagoa adierazten dutela, proposatutako aukera gehienak edo horietako asko betetzen dituen norbaitekin harreman sentimentala izateko, pertsona gazteenek, bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituztenek, erlijiozaleak ez direnek, politikoki ezkerrari lotuta daudenek, enplegatuek edo langabeek, ikasleek, estatus sozioekonomiko ertaina edo baxua dutenek eta nola beren egoera ekonomikoarekin pozik daudenek hala pozik ez daudenek.

Emakumeek erosotasun handiagoa adierazten dute pertsona baliabide ekonomiko eskasekoa, jatorri atzerritarrekoa, gainpisuduna eta sexu-orientazio ez-normatibokoa izatearekin. Gizonek, berriz, adierazi dute erosotasun handiagoa sentitzen dutela gaixotasun mentalen bat duten pertsonei eta musulmanei dagokienez.

Katolizismoaz bestelako erlijioren bat duten pertsonek erosotasun handiagoa adierazten dute ohitura kultural eta jatorri etniko desberdinak dituzten pertsonekin; katolikoek, berriz, erosotasun txikiagoa adierazten dute oro har, eta katoliko praktikatzaileak, berriz, ez dira hain eroso agertzen (aldea esanguratsua da), zehazki LGTBI kolektiboarekin.

Bestalde, ikusten dugu ideologia politiko eskuindarreko pertsonak erosoago sentitzen direla juduekin.

Bestalde, erretiratuek adierazten dute ateoekin eta LGTBI kolektiboko pertsonekin askoz ere erosotasun gutxiago sentitzen dutela.

**3. taula. Seme-alaba batek ezaugarri hauek dituen pertsona batekin harreman sentimentala izatearekin lotutako jarrera, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (batez besteko puntuazioa, 1etik 10era).**

| | | Zuria/kaukasikoa | Ateoa | Baliabide ekonomiko eskasekoa | Jatorri atzerritarrekoa | Gehiegizko pisua edo obesitatea duena | Gay, lesbiana edo bisexuala | Prestakuntza gutxikoa | Desgaitasun fisikoa duena | Kristaua | Gaztea | Transexuala edo transgeneroa | Intersexuala | Asiarra | Adinekoa | Beltza | Budista | Judua | Desgaitasun intelektuala duena | Gaixotasun mentala duena | Musulmana | Ijitoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SEX/ GEN. | Emakumea | 8,04 | 7,83 | 7,83* | 7,81* | 7,81* | 7,73* | 7,66 | 7,62 | 7,51 | 7,33 | 7,45 | 7,43 | 7,17 | 7,01 | 7,05 | 6,95 | 6,99 | 6,85 | 6,19 | 6,00 | 5,76 |
| | Gizona | 7,95 | 7,74 | 7,57 | 7,56 | 7,56 | 7,47 | 7,51 | 7,55 | 7,29 | 7,37 | 7,21 | 7,19 | 7,14 | 7,07 | 6,97 | 7,03 | 6,94 | 7,05 | 6,51* | 6,34* | 5,82 |
| ADINA | 18-24 | 8,72* | 8,68* | 8,48* | 8,72* | 8,47* | 8,70* | 8,38* | 8,53* | 8,31* | 8,30* | 8,43* | 8,36* | 8,50* | 7,96* | 8,53* | 8,22* | 8,01* | 8,00* | 7,91* | 7,95* | 7,89* |
| | 25-44 | 8,21* | 7,98* | 8,00* | 8,00* | 8,01* | 7,85* | 7,89* | 7,91* | 7,53 | 7,66* | 7,51* | 7,51* | 7,75* | 7,30* | 7,63* | 7,42* | 7,35* | 7,24* | 6,59* | 6,54* | 6,20* |
| | 45-64 | 7,94* | 7,75* | 7,65* | 7,66* | 7,61* | 7,67* | 7,49* | 7,52* | 7,25 | 7,20* | 7,49* | 7,43* | 7,06* | 6,93* | 6,98* | 6,90* | 6,95* | 6,83* | 6,25* | 6,05* | 5,63* |
| | 65-74 | 7,65 | 7,65* | 7,35 | 7,33* | 7,36 | 7,34* | 7,36* | 7,25* | 7,33 | 7,16 | 7,01* | 7,02* | 6,80* | 6,87 | 6,52* | 6,58* | 6,63* | 6,71* | 6,07* | 5,77* | 5,35* |
| | 75 baino gehiago | 7,58 | 7,07 | 7,09 | 6,86 | 7,07 | 6,48 | 6,95 | 6,82 | 7,13 | 6,71 | 6,16 | 6,16 | 5,65 | 6,41 | 5,37 | 5,92 | 5,88 | 6,23 | 5,47 | 5,00 | 4,57 |
| IKASK.. | Ikask. gabe eta lehen mailakoak | 7,80 | 7,44 | 7,47 | 7,33 | 7,43 | 7,15 | 7,46 | 7,28 | 7,29 | 7,11 | 6,91 | 6,94 | 6,59 | 6,82 | 6,33 | 6,48 | 6,51 | 6,79 | 6,09 | 5,69 | 5,34 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 8,05* | 7,87* | 7,81* | 7,90* | 7,87* | 7,73* | 7,74* | 7,75* | 7,55 | 7,45* | 7,49* | 7,49* | 7,40* | 7,20* | 7,34* | 7,19* | 7,21* | 7,12 | 6,62* | 6,55* | 6,11* |
| | Goi-mailakoak | 8,11* | 8,00* | 7,79* | 7,77* | 7,72* | 7,86* | 7,53 | 7,67* | 7,34 | 7,43 | 7,52* | 7,44* | 7,37* | 7,05 | 7,26* | 7,19* | 7,08* | 6,89 | 6,28 | 6,15* | 5,83* |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 7,85 | 7,10 | 7,42 | 7,33 | 7,47 | 6,85* | 7,36 | 7,23 | 7,66 | 7,21 | 6,54* | 6,52* | 6,25 | 6,86 | 6,11 | 6,27 | 6,53 | 6,71 | 5,90 | 5,71 | 5,21 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 7,80 | 7,54* | 7,38 | 7,32 | 7,40 | 7,33* | 7,30 | 7,31 | 7,32 | 7,09 | 7,05* | 7,06* | 6,82* | 6,85 | 6,67* | 6,72* | 6,69 | 6,67 | 6,09 | 5,84 | 5,49 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 8,28* | 8,42* | 8,10* | 8,14* | 8,08* | 8,39* | 7,95* | 8,01* | 7,41 | 7,66* | 8,13* | 8,03* | 7,78* | 7,31* | 7,68* | 7,53* | 7,41* | 7,33* | 6,81* | 6,52* | 6,20* |
| | Beste erlijio bat | 7,51 | 6,39 | 7,67 | 7,81* | 7,44 | 5,44 | 7,53 | 7,14 | 6,95 | 7,07 | 5,21 | 5,38 | 7,21* | 6,70 | 6,87* | 6,47 | 6,45 | 6,55 | 5,63 | 7,44* | 6,30* |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 8,27 | 8,31* | 8,06* | 8,17* | 7,97 | 8,27* | 7,89 | 8,02* | 7,65 | 7,81* | 8,09* | 8,08* | 7,87* | 7,71* | 7,81* | 7,82* | 7,50* | 7,53* | 7,09* | 6,83* | 6,34 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 8,08 | 7,99* | 7,68 | 7,65 | 7,78 | 7,81* | 7,60 | 7,64 | 7,49 | 7,50 | 7,48* | 7,41* | 7,24* | 7,20* | 7,07* | 7,06* | 7,04 | 7,04 | 6,51* | 6,26* | 5,82 |
| | Zentro-eskuinekoa | 8,15 | 7,57 | 7,77 | 7,61 | 7,68 | 7,15 | 7,60 | 7,53 | 7,47 | 7,36 | 6,87 | 6,76 | 6,71 | 6,72 | 6,48 | 6,56 | 6,71 | 6,73 | 5,83 | 5,65 | 5,45 |
| | Eskuindarra | 8,19 | 7,37 | 7,32 | 7,40 | 7,67 | 7,38 | 7,32 | 7,06 | 7,87 | 7,54 | 7,21 | 7,31 | 7,17 | 7,27 | 6,85 | 7,07 | 7,43* | 6,50 | 6,02 | 6,44 | 6,11 |
| GOGOBET. EKONOM. | Ez dago pozik | 8,07 | 7,62 | 8,13* | 7,87 | 7,99* | 7,44 | 7,93* | 7,76 | 7,10 | 7,34 | 7,24 | 7,23 | 7,63* | 7,02 | 7,26 | 6,94 | 6,91 | 7,05 | 6,05 | 6,14 | 6,14 |
| | Ez zaio axola | 7,94 | 7,66 | 7,60 | 7,60 | 7,59 | 7,48 | 7,51 | 7,48 | 7,40 | 7,33 | 7,18 | 7,16 | 7,05 | 6,94 | 6,88 | 6,83 | 6,87 | 6,82 | 6,31 | 6,12 | 5,84 |
| | Pozik dago | 8,07 | 8,01* | 7,74 | 7,77 | 7,77 | 7,82* | 7,61 | 7,68 | 7,52 | 7,40 | 7,57* | 7,53* | 7,20 | 7,21 | 7,16 | 7,19* | 7,11 | 7,10* | 6,50 | 6,27 | 5,69 |
| JARDUERA | Aktiboa | 8,10* | 7,93* | 7,82* | 7,84* | 7,77* | 7,86* | 7,69* | 7,72* | 7,37 | 7,40* | 7,58* | 7,55* | 7,42* | 7,07* | 7,33* | 7,15* | 7,12* | 7,04* | 6,41* | 6,27* | 5,82* |
| | Erretiratua | 7,69 | 7,48* | 7,33 | 7,18 | 7,27 | 7,04* | 7,22 | 7,13 | 7,27 | 6,93 | 6,75* | 6,71* | 6,33 | 6,67 | 6,05 | 6,41 | 6,30 | 6,56 | 5,87 | 5,52 | 5,12 |
| | Langabea | 8,01 | 7,77* | 8,03* | 8,11* | 8,16* | 7,67* | 7,94* | 7,90* | 7,46 | 7,68* | 7,48* | 7,42* | 7,57* | 7,35* | 7,70* | 7,31* | 7,35* | 7,12* | 6,60* | 6,77* | 6,66* |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 7,73 | 6,54 | 6,94 | 6,83 | 7,11 | 5,76 | 7,10 | 6,61 | 7,09 | 7,20 | 5,50 | 5,75 | 6,05 | 6,71 | 5,40 | 5,61 | 6,44 | 6,00 | 5,66 | 5,25 | 4,92 |
| | Ikaslea | 8,70* | 8,70* | 8,36* | 8,62* | 8,51* | 8,76* | 8,14* | 8,49* | 8,71* | 8,58* | 8,62* | 8,57* | 8,66* | 8,44* | 8,60* | 8,49* | 8,49* | 8,22* | 8,21* | 7,97* | 8,00* |
| ESTATUS | Altua | 7,43 | 7,51 | 6,68 | 6,73 | 6,88 | 6,93 | 6,51 | 6,66 | 6,65 | 7,14 | 6,27 | 6,02 | 6,25 | 5,94 | 6,26 | 6,76 | 6,45 | 5,88 | 5,50 | 5,41 | 6,26 |
| | Ertaina | 7,98 | 7,77 | 7,71* | 7,70 | 7,69* | 7,61 | 7,59 | 7,58* | 7,36 | 7,33 | 7,35* | 7,32* | 7,19* | 7,02* | 7,05* | 6,98 | 6,97 | 6,92* | 6,31 | 6,14 | 7,05* |
| | Baxua | 8,18 | 7,91 | 7,64* | 7,65 | 7,67 | 7,46 | 7,65 | 7,64* | 7,96* | 7,40 | 7,15 | 7,34* | 6,64 | 7,32* | 6,34 | 6,75 | 6,60 | 7,28* | 6,72* | 6,19 | 6,34 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta10. G. Seme-alabarik duzun edo ez alde batera utzita, mesedez, esan, 1etik 10era bitarteko eskala bat erabiliz, zein neurritaraino sentituko zinatekeen eroso edo deseroso zure semeak edo alabak … batekin harreman sentimentala izango balu.*

## Aniztasunerantz irekitzea hezkuntzaren esparruan

Euskal gizarteak hezkuntza-esparruari dagokionez duen jarrerari helduz, nabarmendu behar da, lehenik eta behin, biztanleria oro har konforme dagoela ikastetxeetan aniztasuna hezkuntza-ikasgai gisa sartzearekin, zehazki honako hauei dagokienez: desgaitasuna eta dibertsitate funtzionala, sexu-eta genero-aniztasuna eta jatorri etniko, ohitura kultural eta erlijio-sinesmen desberdinak.

Panorama orokor positibo horren barruan, adostasun-maila handiena desgaitasunari/aniztasun funtzionalari buruzko informazioa sartzeak izan du (% 92,9 ados); aldiz, adostasun-maila apur bat baxuagoak ikusten dira Ijito Herriaren historiari eta kulturari buruzko informazioa sartzeari (% 79,5 ados) eta erlijio-sinesmenei buruzko informazioa sartzeari (% 70 ados) dagokienez (6. grafikoa).

**6. grafikoa. Aniztasuna ikastetxeen hezkuntza-ikasgai gisa sartzeari buruzko adostasun-maila (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta*

*9. G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin. Hezkuntza-arloan, ikastetxeetan aniztasunari buruzko informazioa sartu behar da, honako hauei dagokienez:*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, erlijiozaletasun-maila eta ideologia politikoa (4. taula).

Ikusten denez, 75 urtetik gorako pertsonek ez dute adostasun handirik LGTBI kolektiboari eta Ijito Herriari buruzko informazioa eskola-curriculumean sartzeari dagokionez. Zentro-eskuineko ideologia politikoa dutela diotenek ere Ijito Herriari buruzko informazioa sartzearekin adostasun txikiagoa adierazteko joera dute, ezkerrari lotuta daudenek, berriz, alde daude. Pertsona katolikoak, bestalde, erlijio-sinesmenei buruzko informazioa sartzearen alde daude, eta erlijiozaleak ez direnen iritzia, berriz, zeharo kontrakoa da.

Beste erlijio bateko pertsonek neurri txikiagoan daude LGTBI kolektiboari buruzko informazioak sartzearen alde.

**4. taula. Aniztasunari buruzko hezkuntza-materialak hainbat alderdiri dagokienez sartzea, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (adostasun-ehunekoak)**

| | | Desgaitasuna/ aniztasun funtzionala | Gaya, lesbiana edo bisexuala izatea | Transexualitatea | Jatorri etnikoa edo gutxiengo etnikoak | Ijito Herriaren historia eta kultura | Erlijioa edo erlijio-sinesmenak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 93,6 | 90,6 | 89,6 | 90,4 | 80,5 | 73,7 |
| | Gizona | 91,3 | 84,9 | 83,4 | 87,1 | 77,2 | 65,8 |
| ADINA | 18-24 | 91,1 | 91,1 | 91,1 | 93,1 | 88,7 | 66,9 |
| | 25-44 | 93,5 | 90,8 | 90,3 | 89,8 | 80,4 | 69,2 |
| | 45-64 | 93,1 | 91,5 | 90,4 | 90,6 | 82,7 | 69,5 |
| | 65-74 | 95,7 | 87,2 | 85,1 | 87,1 | 77,7 | 75,3 |
| | 75 baino gehiago | 85,9 | 70,1* | 67,0* | 80,9 | 60,6* | 68,9 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 92,7 | 84,8 | 83,4 | 88,9 | 77,3 | 84,4* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 93,9 | 88,1 | 86,4 | 87,7 | 80,6 | 78,8* |
| | Agnostikoa edo ateoa | 93,4 | 93,1 | 92,2 | 90,9 | 81,2 | 54,9* |
| | Beste erlijio bat | 77,7 | 58,6* | 58,6* | 83,3 | 57,8 | 76,5 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 95,4 | 96,3 | 95,1 | 94,7 | 90,4* | 71,4 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 96 | 91,1 | 90,2 | 90,5 | 77,2 | 64,8 |
| | Zentro-eskuinekoa | 89,4 | 77,6 | 75,1 | 83,7 | 64,3* | 66,4 |
| | Eskuindarra | 89,3 | 80,3 | 78,8 | 85,5 | 79,3 | 73,6 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*9. G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin. Hezkuntza-arloan, ikastetxeetan aniztasunari buruzko informazioa sartu behar da, honako hauei dagokienez:*

Aurreko urteko emaitzekin alderatuta (Neurtu 2021), erlijioari edo erlijio-sinesmenei buruzko informazioa sartzeari buruzko adostasun orokorra jaitsi egin da (–% 9,7), eta apur bat igo da Ijito Herriaren historiari eta kulturari buruzko informazioa sartzeari buruzko adostasun-maila (+% 4,4) (7. grafikoa).

**7. grafikoa. Hainbat alderdiri dagokienez aniztasunari buruzko hezkuntza-materialak sartzearekin ados eta oso ados dauden pertsonen ehunekoa (konparazioa): Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 azterlanetan funtsatuta*

*Neurtu 2021: 9. G.; Neurtu 2022: 9. G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin. Hezkuntza-arloan, ikastetxeetan aniztasunari buruzko informazioa sartu behar da, honako hauei dagokienez:*

## Diskriminazioarekiko jarrerak eta pertzepzioak

Euskal gizarteak aniztasunari eta bizi-ezaugarri eta -baldintzatzaile desberdinak dituzten pertsonen arteko bizikidetzari dagokienez bere burua nola baloratzen duen eta non kokatzen duen azaltzeko hainbat datu komentatu ondoren, bigarren epigrafe honetan diskriminazioarekiko jarrerei eta pertzepzioei buruz lortutako emaitzak erakutsiko ditugu.

Garrantzitsua da argitzea diskriminazioaren pertzepzio hori euskal gizarteak orokorrean egoera edo testuinguru desberdinetan tratu desberdina izateari buruz egiten dituen balorazioekin lotzen dela; horrek ez du zertan lotuta egon bakoitzak bizi izan duen esperientzia pertsonal zehatzarekin[7].

Horrela, honako hauek azalduko ditugu: euskal gizarteak Euskadin gaur egun indarrean dauden arazo nagusiei buruz zer deritzon, diskriminazioak arazo sozial gisa duen garrantzia, diskriminazio handiagoa edo txikiagoa dagoela esparruen arabera, diskriminazioa hainbat kategoria edo ardatzi jarraikiz, eta, azkenik, funtsezko bi esparruri buruzko diskriminazioa: lana eta etxebizitza.

[7]Aurrerago, euskal biztanleen hitzetan ikusi izan duten diskriminazioari buruz hitz egitean, esperientzia pertsonalaren esparrua berariaz landuko dugu.

## Euskadiko arazo nagusien pertzepzioa

Gaur egun Euskadin existitzen diren hiru arazo nagusiak zeintzuk diren galdetuta (erantzun espontaneoak), euskal gizarteak lehentasuna ematen die arazo ekonomikoei, langabeziari eta etxebizitzari; horren ondoren (adierazpenaren ordena berean): osasuna eta osasun-sistema, enpleguarekin lotutako arazoak, klase politikoari dagozkion arazoak, desparekotasun sozialak eta pentsioak.

Hala, oso gutxi aipatzen dira immigrazioa (guztizko aipamenen % 4,1), emakumeen aurkako indarkeria (% 3,2), ustelkeria eta iruzurra (% 2,7), kolektibo jakin batzuen diskriminazioa (% 2,5), emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna (% 2,1) eta arrazakeria (% 2) (8. grafikoa).

**8. grafikoa. Euskadiko arazo nagusien pertzepzioa (espontaneoa, ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*1. G. Zure ustez, zeintzuk dira gaur egun Euskadin dauden 3 arazo nagusiak? (Erantzun espontaneoa)*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (5. taula).

## 5. taula. Euskadiko arazo nagusien pertzepzioa, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (espontaneoa, ehunekoak)

| | | Arazo ekonomikoak | Langabezia | Etxebizitza | Osasuna, osasun-sistema | Enpleguarekin lotutako arazoak | Klase politikoa, alderdi politikoak, gobernua | Desparekotasun sozialak | Pentsioak | Immigrazioa | Emakumeen aurkako indarkeria | Ustelkeria eta iruzurra | Kolektibo jakin batzuen aurkako diskriminazioa | Emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak | Arrazakeria | Bat ere ez |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sexu/ Gen. | Emakumea | 39,4 | 29,5 | 22,4 | 24,9 | 20,7 | 5,0* | 7,7 | 7 | 3,6 | 4,2 | 1,7 | 2,7 | 2,9 | 1,6 | 2,1 |
| | Gizona | 37,5 | 35,0 | 23,2 | 18,8 | 17,0* | 17,3* | 6,9 | 5,3 | 4,7 | 2,1 | 3,8 | 2,3 | 1,2 | 2,4 | 1,1 |
| Adina | 18-24 | 29,1 | 22,8 | 43,2* | 6,6* | 31,4* | 9 | 11,3 | 6,1 | 0,0* | 3 | 2 | 7,9* | 2,7 | 6,8* | 0,6 |
| | 25-44 | 36,0 | 32,4 | 35,8* | 13,1* | 21,6 | 11,5 | 7,9 | 1,3* | 5 | 3,9 | 2,6 | 2,4 | 4,5* | 2,7 | 1,1 |
| | 45-64 | 39,6 | 36,8* | 16,9* | 22,7 | 23,7 | 8,7 | 7,9 | 3,3* | 4,9 | 3,1 | 3,3 | 2,6 | 1,4 | 1,6 | 0,9 |
| | 65-74 | 38,4 | 33,1 | 10,6* | 33,7* | 5,8* | 18,1* | 5,2 | 12,9* | 3,2 | 2,3 | 3,1 | 1,3 | 0,2 | 0,5 | 1,6 |
| | 75 baino gehiago | 46,3 | 23,2 | 10,2* | 36,6* | 6,5* | 9,4 | 4,5 | 18,2* | 2,9 | 3 | 1,6 | 0,5 | | 0,0* | 5,4* |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 34,0 | 29,9 | 16,0* | 22,9 | 13,8* | 9 | 3,4* | 9,9* | 4,7 | 2,9 | 1,2 | 1,3 | 1 | 0,7* | 3,7* |
| | Bigarren mailako ikasketak | 46,1* | 31,9 | 22,3 | 24,3 | 21 | 13 | 9,7 | 5 | 2,6* | 2,7 | 3,4 | 2,8 | 2,2 | 3,1 | 0,9 |
| | Goi-mailakoak | 33,8 | 34,5 | 29,3* | 18,4 | 21,1 | 10,3 | 8 | 4,3 | 5,3 | 3,9 | 3,2 | 3,2 | 2,9 | 1,8 | 0,7 |
| Erlijioa | Katoliko praktikatzailea | 37,5 | 22,7* | 15,1* | 29,1 | 12,9* | 3,5* | 6,3 | 11,2* | 2,9 | 4,2 | 0,3* | 0,8 | | 1,6 | 3 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 41,2 | 34,8 | 18,8* | 27,7* | 14,7* | 12,2 | 5,7 | 7,3 | 4,5 | 3,5 | 2,3 | 1,5 | 1,8 | 0,8* | 2 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 37,2 | 33,8 | 27,4 | 15,5* | 25,9* | 13 | 9,9 | 4 | 4,4 | 2,3 | 3,7 | 3,2 | 3,2* | 2,5 | 0,6 |
| | Beste erlijio bat | 33,0 | 21,6 | 42,2* | 6,1* | 17,4 | 5,7 | 2,4 | 1,4 | 2,6 | 2,8 | 3,4 | 6,9 | 1,8 | 8,9* | 2,5 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 28,5* | 42,4* | 24 | 17,3 | 25,6 | 13,7 | 6,8 | 3 | 5,2 | 3,2 | 3,6 | 2,6 | 2,7 | 2,3 | 0,7 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 43,5 | 26,8 | 22,5 | 28,1* | 19,6 | 12,2 | 8,2 | 7 | 4,1 | 1,4 | 2,6 | 2,6 | 2,9 | 1,6 | 0,7 |
| | Zentro-eskuinekoa | 48,0* | 24,4 | 17,8 | 31,1* | 14,8 | 7,5 | 4,6 | 7,7 | 5,6 | 3,4 | 1,5 | 2,9 | 1,7 | 3,6 | 1,2 |
| | Eskuindarra | 33,2 | 33,2 | 30,3 | 19 | 8,0* | 28,1* | 4,6 | 0,8 | 7,4 | | 1,8 | 2 | 5 | 0,8 | |
| Gogobete. ekonom. | Ez dago pozik | 26,7* | 30,1 | 30,6 | 16,9 | 27,0 | 7,7 | 8,6 | 4,4 | 3,1 | 4 | 3,4 | 2,8 | 4,8* | 4,7 | |
| | Ez zaio axola | 44,5* | 34,2 | 19,5 | 28,2* | 16,6* | 11,3 | 5,3* | 9,1* | 4,6 | 2,9 | 1,8 | 2,3 | 1,6 | 1,4 | 2,3 |
| | Pozik dago | 35,0 | 30,6 | 24,4 | 16,6* | 19,3 | 11,1 | 9 | 3,6* | 3,6 | 3,1 | 3,2 | 2,7 | 2 | 2 | 1,4 |
| Jarduera | Aktiboa | 38,8 | 32,7 | 25,9 | 18,2* | 22,7 | 10,7 | 8,3 | 2,0* | 5,1 | 3,5 | 3,3 | 3,1 | 3,5* | 2,1 | 1,1 |
| | Erretiratua | 42,1 | 29,1 | 11,1* | 33,2* | 7,3* | 12,4 | 5,6 | 15,0* | 3,3 | 2,4 | 1,9 | 0,8* | 0,1* | 0,3* | 3,4* |
| | Langabea | 34,2 | 41,5* | 28,8 | 17,8 | 22,5 | 9,5 | 5,5 | 4,2 | 3,7 | 4,5 | 2,5 | 2,1 | | 3,8 | 0,3 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 34,3 | 29,9 | 13 | 21,4 | 22,3 | 14,3 | 2,6 | 1,6 | | 1,1 | | | | | |
| | Ikaslea | 25,3 | 26,1 | 49,2* | 8,0* | 35,0* | 5,8 | 12,3 | 9,5 | | 2,4 | 3,1 | 7,5* | 2,6 | 8,2* | 0,9 |
| Estatusa | Altua | 47,5 | 31,6 | 19,2 | 39,7 | 4,6 | 12,2 | 15 | | 4,8 | 9,6 | 7,4 | 7,5 | 7,5 | 4,6 | |
| | Ertaina | 40,1 | 32,9 | 23,7 | 22,9 | 19,6 | 11,2 | 7,3 | 6,2 | 4,3 | 3,1 | 2,8 | 2,6 | 2,2 | 2,1 | 1,4 |
| | Baxua | 18,6* | 19,4 | 9,8* | 5,9* | 11,7 | 7,1 | 5,7 | 7,6 | 2,3 | 3,1 | | | | | 5,1* |
| Jatorri | Estatukoa | 39,1 | 33,1 | 20,7 | 23 | 19,0 | 11,5 | 7,4 | 6,7 | 4,1 | 3,2 | 2,9 | 2,3 | 2,2 | 1,3* | 1,6 |
| | Atzerritarra | 33,4 | 23,8 | 41,6* | 12,6* | 18,3 | 5,8 | 6,6 | 1,9 | 4,3 | 3,3 | 1,2 | 3,9 | 0,8 | 7,4* | 2,1 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*1. G. Zure ustez, zeintzuk dira gaur egun Euskadin dauden 3 arazo nagusiak? (Erantzun espontaneoa)*

Emakumeek garrantzi txikiagoa ematen diete klase politikoarekin, alderdi politikoekin eta gobernuarekin loturiko arazoei; gizonek, berriz, garrantzi handiagoa ematen diete arazo horiei beraiei, eta gutxiago enpleguari buruzko arazoei.

Gazteek garrantzi handiagoa ematen diete etxebizitzarekin, enpleguarekin, diskriminazioarekin eta arrazakeriarekin lotutako arazoei; aldi berean, osasunari eta immigrazioari garrantzi txikiagoa ematen diete.

25-44 urteko pertsonak, bestalde, sentsibilitate handiagoa dute etxebizitzarekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako arazoekin, eta ez dituzte hain garrantzitsutzat hartzen, ordea, osasuna eta pentsioak.

45-74 urteko pertsonek, ordea, kezka handiagoa sentitzen dute langabeziarekin eta pentsioekin zerikusia duten arazoengatik, eta gutxiago axola zaie etxebizitza-esparrua.

Zaharrenak gehiago arduratzen dira osasunaz, pentsioez eta klase politikoaz, eta gutxiago, berriz, etxebizitzaz, enpleguaz eta arrazakeriaz.

Egindako ikasketei dagokienez, gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten pertsonei gutxiago axola zaizkie etxebizitza, enplegua, desberdintasun soziala eta arrazakeria, eta gehiago, ordea, pentsioak.

Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonek sentsibilitate handiagoa dute arazo ekonomikoekin eta ez daude hain kezkatuta, ordea, immigrazioarekin; eta hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonak, bestalde, etxebizitzarekin kezkatuago agertzen dira.

Katolikoak gutxiago arduratzen dira langabeziaz, etxebizitzaz, enpleguaz, klase politikoaz, iruzurraz eta arrazakeriaz, eta are gutxiago pentsioez eta osasun-sistemaz. Pertsona ez-erlijiosoak gutxiago arduratzen dira osasun-sistemaz, eta gehiago enpleguaz eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaz. Katolikoa ez den erlijio bateko pertsonak gehiago arduratzen dira etxebizitzaz eta arrazakeriaz, eta gutxiago osasunaz.

Ideologia politikoari dagokionez, euren burua ezkertiartzat duten pertsonek neurri handiagoan aipatzen dute langabezia Euskadiko arazo gisa, eta neurri txikiagoan aipatzen dituzte, ordea, arazo ekonomikoak. Beren burua zentro-ezkertiartzat dutenek garrantzi handiagoa ematen diote osasunari; zentro-eskuineko ideologia duten pertsonak ere bereziki kezkatuta daude osasunarekin, eta ez hain kezkatuta, ordea, arazo ekonomikoekin. Azkenik, politikoki eskuinaren alde egiten duten pertsonek garrantzi handiagoa ematen diete klase politikoarekin lotutako arazoei, eta gutxiago, ordea, enpleguarekin lotutakoei.

Euren egoera ekonomikoarekin pozik ez dauden pertsonak gutxiago kezkatzen dira arazo ekonomikoengatik, eta kezkatuago daude, berriz, emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunagatik. Bestalde, beren egoera ekonomikoari lotutako gogobetetasun-mailari dagokionez axola ez zaiela adierazten dutenek kezka handiagoa dute arazo ekonomikoekin, osasunarekin eta pentsioekin, baina kezka txikiagoa, berriz, enpleguarekin eta ezberdinkeria sozialekin. Azkenik, beren egoera ekonomikoarekin pozik daudela dioten pertsonek osasunarekiko eta pentsioekiko kezka gutxiago adierazten dute.

Enplegatuak gutxiago kezkatzen dira osasunarekin eta pentsioekin, eta gehiago, ostera, emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunarekin.

Erretiratuek gutxiago kezkatzen dira etxebizitzaz, enpleguaz, diskriminazioaz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaz eta arrazakeriaz, eta kezka handiagoa adierazten dute, beste muturrean, osasunagatik eta pentsioengatik.

Kontrako joera agerian utziz, ikasleak gehiago kezkatzen dira etxebizitzaz, enpleguaz, diskriminazioaz eta arrazakeriaz, eta kezka txikiagoa dute, ordea osasunarekin.

Langabeek kezka berezia erakusten dute horri dagozkion arazoengatik.

Deigarria da estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonak gutxiago kezkatzen direla arazo ekonomikoez, etxebizitzaz eta osasunaz.

Azkenik, autoktonoak gutxiago arduratzen dira arrazakeriaz; jatorri atzerritarreko pertsonek, aldiz, kezka handiagoa adierazten dute arrazakeriarekin eta etxebizitzarekin, eta kezka txikiagoa, ordea, osasunarekin.

## Diskriminazioa arazo gisa hautematea

Lehen azaldutako datuekin gertatzen ez den bezala (8. grafikoa), biztanle gehienek –zehazki, hamarretik zazpik– uste dute kolektibo batzuen aurkako diskriminazioa gai arazotsua dela garrantzitsua dela edo, gutxienez, zerbait garrantzitsua. Ildo horretan, nabarmendu behar da biztanleriaren % 42,8k adierazi duela diskriminazioa arazo oso edo nahiko garrantzitsua iruditzen zaiola euskal gizartean. Bestalde, diskriminazioa garrantzi txikiko arazotzat hartzen dutenak % 30 inguru dira (9. grafikoa).

**9. grafikoa. Kolektibo batzuen aurkako diskriminazioa euskal gizartearen arazotzat hartzea (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta*

*2. G. Zure ustez, zenbait kolektibok pairatzen duten diskriminazioa zer heinetan da euskal gizartean dagoen arazorik handiena?*

**6. taula. Kolektibo batzuen aurkako diskriminazioa arazotzat hartzea, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Oso/aski | Zertxobait | Gutxi/Ezer ez |
|---|---|---|---|---|
| SEXUA/GENEROA | Emakumea | 45,5 | 29,4 | 22,4 |
| | Gizona | 39,8 | 29,4 | 28,9* |
| ADINA | 18-24 | 67,4* | 14,3* | 18,0 |
| | 25-44 | 48,8 | 27,0 | 22,7 |
| | 45-64 | 42,0 | 29,3 | 26,7 |
| | 65-74 | 34,3 | 37,9 | 24,7 |
| | 75 baino gehiago | 25,8* | 34,7 | 34,0* |
| IKASKETAK | Ikask. gabe eta lehen mailakoak | 40,4 | 26,6 | 29,3* |
| | Bigarren mailako ikasketak | 44,3 | 30,6 | 22,8 |
| | Goi-mailakoak | 43,0 | 30,4 | 25,5 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 36,1 | 33,8 | 26,7 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 39,8 | 31,0 | 27,0 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 49,4* | 27,7 | 21,4 |
| | Beste erlijio bat | 38,1 | 19,1 | 34,3 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 59,1* | 25,6 | 15,3* |
| | Zentro-ezkerrekoa | 41,4 | 32,7 | 23,7 |
| | Zentro-eskuinekoa | 30,7* | 39,0 | 28,3 |
| | Eskuindarra | 33,8 | 27,2 | 35,1 |
| GOGOBETETASUN EKONOMIKOA | Ez dago pozik | 49,8 | 19,6* | 28,5 |
| | Ez zaio axola | 43,4 | 33,0 | 21,7 |
| | Pozik dago | 41,2 | 28,1 | 28,0* |
| JARDUERA | Aktiboa | 43,8 | 29,6 | 24,9 |
| | Erretiratua | 31,1* | 35,3 | 30,2* |
| | Langabea | 54,4 | 24,1 | 18,9 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 45,7 | 23,2 | 25,6 |
| | Ikaslea | 74,2* | 5,9* | 19,1 |
| ESTATUSA | Altua | 46,7 | 31,6 | 21,7 |
| | Ertaina | 43,4 | 30,0 | 24,7 |
| | Baxua | 29,9 | 19,8 | 40,8* |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*2. G. Zure ustez, zenbait kolektibok pairatzen duten diskriminazioa zer heinetan da euskal gizartean dagoen arazorik handiena?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lanjarduera, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasun pertsonala eta estatus sozioekonomikoa (6. taula).

Diskriminazioari garrantzi gutxiago ematen diote gizonek, 75 urtetik gorako pertsonek, lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik ez duten pertsonek, euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenek, erretiratuek, beren egoera ekonomikoarekin pozik daudenek eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek.

Bestalde, diskriminazioari garrantzi handiagoa ematen diote gazteek (18-24 urte), erlijiozaleak ez direnek, euren burua ezkertiartzat dutenek eta ikasleek.

2021ean lortutako datuekin alderatuta (Neurtu 2021), ikusten da diskriminazioa arazo oso edo nahiko garrantzitsutzat jotzen dutenen ehunekoak pixka bat behera egin duela, % 49,4tik % 42,8ra igaro baita 2022an (10. grafikoa).

**10. grafikoa. Kolektibo batzuen aurkako diskriminazioa arazotzat hartzea (konparazioa): Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 azterlanetan funtsatuta*

*Neurtu 2021: 3. G. Neurtu 2022: 2. G. Zure ustez, zenbait kolektibok pairatzen duten diskriminazioa zer heinetan da euskal gizartean dagoen arazorik handiena?*

## Hautemandako diskriminazioaren esparruak

Gehienek uste dute Euskadin ez zaiela tratu bera ematen pertsona guztiei[8], baizik eta desparekotasunak daudela kontsultatzen ditugun lau esparruetan: zerbitzu publikoetarako sarbidea, legeen aplikazioa, etxebizitza bat eskuratzea eta lanpostu bat lortzea. Aipatutako azken bi esparruak nabarmendu dituzte;

[8]Gogoan izan behar dugu pertzepzio hori euskal gizarteak oro har egoera edo testuinguru desberdinetan tratu desberdina izateari buruz egiten dituen balorazioekin lotuta dagoela; horrek ez du zertan lotuta egon bakoitzak bizi izan duen esperientzia pertsonal zehatzarekin.

izan ere, hamar lagunetik ia zortzik adierazi dute etxebizitza eskuratzeari eta lanpostua lortzeari eragiten dioten desparekotasunak daudela (11. grafikoa).

**11. grafikoa. Hautemandako diskriminazioa esparruen arabera (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*4. G. Zure ustez, Euskadin tratu bera ematen al zaie pertsona guztiei? Aitzitik, desparekotasunez tratatzen al dira zenbait pertsona?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, ikasketa-maila, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera eta estatus sozioekonomikoa (7. taula).

Gazteek (18-24 urte), erlijiozaleak ez direnek eta politikoki euren burua ezkertiartzat zutenek diskriminazio handiagoa ikusten dute zerbitzu publikoetarako sarbidean. Aitzitik, 75 urtetik gorako pertsonek, erretiratuek eta euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenek diskriminazio gutxiago dutela hautemateko joera dute.

Pertsona ez-erlijiozaleek uste dute diskriminazio handiagoa dagoela legeak aplikatzean; aitzitik, 75 urtetik gorakoek, lehen mailako ikasketak dituztenek eta ikasketarik gabekoek, katoliko praktikatzaileek eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek diskriminazio gutxiago sumatzen dute horri gagozkiola.

Era berean, estatus ekonomiko baxuko pertsonak nabarmentzen dira neurri txikiagoan hautematen dutelako euskal gizartean diskriminazioa dagoela lan-esparruan.

**7. taula. Esparruen arabera hautemandako diskriminazioa, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Zerbitzu publikoak | Legeak | Etxebizitza | Lana |
|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/GENEROA | Emakumea | 64,9 | 70,7 | 81,5 | 82,1 |
| | Gizona | 56,4 | 64,5 | 74,6 | 76,1 |
| ADINA | 18-24 | 77,4* | 82,0 | 85,9 | 89,5 |
| | 25-44 | 63,9 | 71,4 | 82,7 | 82,4 |
| | 45-64 | 62,9 | 68,0 | 78,8 | 80,5 |
| | 65-74 | 53,8 | 62,3 | 73,2 | 73,6 |
| | 75 baino gehiago | 45,9* | 56,0* | 67,1 | 68,5 |
| IKASKETAK | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 56,8 | 60,5* | 70,6 | 70,9 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 63,7 | 73,0 | 80,6 | 81,8 |
| | Goi-mailakoak | 61,1 | 68,0 | 82,0 | 83,6 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 50,6 | 56,0* | 67,0 | 70,0 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 58,2 | 64,9 | 78,0 | 76,7 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 69,2* | 76,9* | 82,8 | 85,4 |
| | Beste erlijio bat | 46,0 | 50,9 | 74,0 | 77,6 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 71,8* | 70,9 | 83,0 | 80,9 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 61,1 | 67,7 | 80,2 | 81,5 |
| | Zentro-eskuinekoa | 44,8* | 58,2 | 69,2 | 73,2 |
| | Eskuindarra | 65,7 | 67,3 | 73,9 | 76,9 |
| JARDUERA | Aktiboa | 64,2 | 69,8 | 81,6 | 82,6 |
| | Erretiratua | 50,5* | 60,3 | 71,9 | 72,1 |
| | Langabea | 64,4 | 72,2 | 77,5 | 78,5 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 55,3 | 58,4 | 63,6 | 68,4 |
| | Ikaslea | 78,5 | 83,4 | 84,7 | 88,8 |
| ESTATUSA | Altua | 75,4 | 65,8 | 97,9 | 85,6 |
| | Ertaina | 61,6 | 69,8 | 79,2 | 81,0 |
| | Baxua | 45,5 | 40,5* | 61,7 | 58,7* |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*4. G. Zure ustez, Euskadin tratu bera ematen al zaie pertsona guztiei? Aitzitik, desparekotasunez tratatzen al dira zenbait pertsona?*

2022an lortutako datuak 2020an eta 2021ean erregistratutakoekin alderatzen baditugu (EPADE 2020 eta Neurtu 2021), zerbitzu publikoak eskuratzeari dagokionez desparekotasun-tratuaren pertzepzioa pixkanaka eta modu nabarmenean handitzen ari dela nabarmentzen da; halaber, legeak aplikatzean tratu desparekoaren pertzepzioari dagokionez ere goranzko joera ikusten da. Bestalde, 2022an, 2020an erregistratutakoen antzeko datuak lortu dira etxebizitza bat eskuratzeari eta lanpostu bat lortzeari dagokionez,

eta nabarmengarria da 2021ean euskal gizarteak ez zuelako hain pertzepzio kritikoa erakutsi bi esparru horietako desparekotasunari buruz (12. grafikoa).

**12. grafikoa. Esparruen arabera hautemandako diskriminazioa (konparazioa): EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 azterlanetan funtsatuta.*

*2020. EPADE: 2. G, 5. G, 7. G, 9. G; Neurtu 2021: 2. G; Neurtu 2022: 4. G. Zure ustez, Euskadin tratu bera ematen al zaie pertsona guztiei? Aitzitik, desparekotasunez tratatzen al dira zenbait pertsona?*

## Diskriminazioaren pertzepzioa, hainbat ezaugarriren arabera

Euskal gizartearen gehiengoaren ustez[9], ijitoen kontrako diskriminazioa oso edo nahiko hedatuta dago Euskadin (% 66,3). Biztanleriaren ustez zabalduen dagoen diskriminazio-mota da; horren atzetik, eta alde handiarekin, jatorri etnikoagatiko eta azal-koloreagatiko diskriminazioaren pertzepzioa dago, eta horien ondoren, sexuagatiko/generoagatiko eta sexu-orientazioagatiko diskriminazioa. Bestalde, herritarrek uste dute gutxien zabaldutako diskriminazioak hiru motatakoak direla: desgaitasunagatik, adinagatik eta erlijio-sinesmenengatik, hain justu (13. grafikoa).

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketak, ideologia politikoa, erlijiozaletasun-maila, lan-jarduera, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (8. taula).

[9] Aipatu dugun bezala, pertzepzio horrek balorazio orokor batekin du zerikusia, eta ez dago zertan egon lotuta bakoitzaren esperientzia pertsonal zehatzarekin.

**13. grafikoa. Hautemandako diskriminazioaren ezaugarriak (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta*

*5. G. Ondoren adierazitako diskriminazio motei dagokienez, emango al zenidake zure iritzia? Oso zabalduta al dago Euskadin? Aski zabalduta? Nahiko arraroa dela iruditzen al zaizu? Oso arraroa al da?*

Diskriminazio-modu guztiak zabalduagotzat jotzen dituzte, oro har, gazteek, hirugarren mailako ikasketak dituztenek, erlijiozaleak ez direnek, politikoki euren burua ezkertiartzat jotzen dutenek, langabeek eta ikasleek. Beste muturrean, diskriminazio-modu desberdinak neurri txikiagoan hedatutzat hartzera jotzen dute pertsona zaharrenek, ikasketa gutxien dituztenek, katoliko praktikatzaileek, politikoki euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen duten pertsonek, erretiratuek eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek.

Emakumeek uste dute generoagatiko, ijitoa izateagatiko, gaixotasun mentalen bat izateagatiko eta desgaitasunen bat izateagatiko diskriminazioa hedatuago dagoela. Gizonek, bestalde, ez dute hain zabalduta ikusten erlijio-sinesmenengatiko eta gaixotasun mentalen bat izateagatiko diskriminazioa.

45-65 urteko pertsonen ustez, erlijio-sinesmenengatiko diskriminazioa hedatuago dago. Katolizismoaz bestelako erlijioren bat duten pertsonek ere uste dute erlijio-sinesmenengatiko diskriminazioa hedatuago dagoela, eta, aldi berean, zabalkunde nabarmen txikiagoa duela ijitoa izateagatiko diskriminazioak.

## 8. taula. Oso hedatutzat eta nahiko hedatutzat hartutako diskriminazioari lotutako ezaugarriak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)

| | | Ijitoa izatea | Transexuala edo transgeneroa izatea | Larruazalaren kolorea | Gaixotasun mental bat izatea | Jatorri etnikoa | Generoa | Sexu-orientazioa (gay, lesbiana edo bisexuala izatea) | Intersexuala izatea | Desgaitasunen bat izatea | Helduegitzat edo gazteegitzat hartzea | Erlijio sinesmenak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S./Gen. | Emakumea | 70,3 | 44,3 | 47,9 | 45,4* | 51,2 | 38,0* | 29,6 | 31,6 | 26,5* | 20,0 | 21,9 |
| | Gizona | 61,2 | 40,1 | 43,3 | 32,5* | 47,3 | 28,6 | 26,7 | 26,2 | 19,7 | 15,8 | 17,3* |
| Adina | 18-24 | 75,8 | 60,9* | 65,1* | 52,4* | 77,5* | 39,5 | 42,0* | 42,4* | 33,0* | 18,5 | 22,0 |
| | 25-44 | 68,8 | 50,8* | 51,6 | 43,5 | 54,4 | 38,1 | 30,6 | 35,9* | 25,8 | 18,7 | 22,8 |
| | 45-64 | 66,6 | 42,6 | 47,5 | 41,7 | 51,3 | 37,7 | 32,3 | 31,7 | 26,3 | 22,6 | 25,5* |
| | 65-74 | 58,8 | 33,7 | 35,6* | 34,2 | 39,3* | 25,5 | 19,9* | 21,0 | 16,6 | 13,1 | 10,8* |
| | 75 baino gehiago | 59,0 | 19,9* | 26,2* | 19,8* | 26,4* | 16,2* | 11,9* | 6,3* | 10,1* | 8,0* | 4,4* |
| Ikasketak | Ikask.gabe eta lehen mail. | 55,1* | 31,0* | 36,8* | 29,6* | 39,4* | 24,5* | 21,5* | 20,8* | 20,2 | 15,6 | 14,4* |
| | Bigarren mailakoak | 66,1 | 42,6 | 44,8 | 40,7 | 49,7 | 31,5 | 27,1 | 26,7 | 21,1 | 16,2 | 19,6 |
| | Goi-mailakoak | 75,1* | 51,9* | 54,8* | 45,9* | 57,8* | 43,8* | 35,5* | 39,0* | 28,4* | 22,2 | 24,4 |
| Erlijioa | Katoliko praktikatzailea | 51,6* | 26,5* | 36,2 | 22,6* | 36,2* | 20,3* | 20,9 | 16,3* | 14,4* | 17,2 | 9,8* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 64,7 | 38,3 | 40,4 | 35,6 | 43,8* | 30,7 | 26,0 | 26,3 | 20,3 | 13,6* | 16,8* |
| | Agnostikoa edo ateoa | 75,3* | 52,8* | 54,4* | 49,2* | 58,8* | 42,3* | 34,0* | 37,3* | 28,7* | 22,2 | 24,0 |
| | Beste erlijio bat | 43,0* | 34,8 | 47,3 | 34,7 | 53,4 | 28,2 | 25,4 | 27,8 | 26,1 | 21,3 | 33,8* |
| Ideologia | Ezkertiarra | 74,9 | 58,4* | 57,8* | 48,4* | 64,4* | 48,1* | 41,9* | 41,6* | 34,4* | 20,1 | 26,6 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 71,2 | 45,9 | 42,9 | 44,8* | 45,0 | 33,5 | 25,5 | 33,5* | 23,1 | 18,2 | 19,2 |
| | Zentro-eskuinekoa | 57,1 | 27,0* | 34,0* | 28,5* | 36,8* | 24,5* | 21,8 | 12,1* | 16,6 | 14,5 | 18,4 |
| | Eskuindarra | 58,6 | 28,6 | 48,5 | 25,5 | 51,4 | 23,0 | 21,8 | 21,4 | 17,8 | 15,2 | 13,2 |
| Gogobete. ekonom. | Ez dago pozik | 61,4 | 51,5 | 51,2 | 45,2 | 57,1 | 44,5* | 36,4 | 39,6* | 27,9 | 25,6 | 36,5* |
| | Ez zaio axola | 64,3 | 38,2 | 42,2 | 35,2 | 46,0 | 29,0 | 24,9 | 22,3* | 20,1 | 15,3* | 16,2* |
| | Pozik dago | 68,9 | 44,7 | 48,6 | 42,3 | 51,0 | 36,0 | 30,3 | 34,3* | 25,0 | 19,0 | 19,6 |
| Jarduera | Aktiboa | 69,7 | 46,9* | 49,2 | 41,9 | 52,7 | 37,1 | 31,1 | 32,4* | 24,7 | 20,1 | 23,0 |
| | Erretiratua | 59,1 | 29,0* | 31,9* | 29,5* | 33,4* | 23,0* | 16,8* | 15,8* | 15,6* | 10,1* | 9,7* |
| | Langabea | 60,8 | 50,1 | 58,3 | 48,0 | 65,5* | 44,3* | 38,9* | 41,8* | 33,0* | 33,2* | 33,1* |
| | Etxekoandre/Etxeko gizon | 47,6 | 19,6* | 36,1 | 24,3 | 38,9 | 23,5 | 18,2 | 20,1 | 14,6 | 13,4 | 13,7 |
| | Ikaslea | 82,9 | 62,8* | 65,5* | 53,7 | 76,0* | 35,7 | 44,7* | 45,1* | 34,9* | 10,4 | 15,3 |
| Estatusa | Altua | 80,9 | 57,1 | 59,0 | 32,0 | 64,5 | 39,5 | 27,7 | 42,7 | 22,4 | 9,7 | 0,0* |
| | Ertaina | 67,2 | 43,6 | 46,4 | 40,5 | 50,8 | 34,5 | 29,2 | 29,7 | 23,4 | 18,5 | 20,3 |
| | Baxua | 43,0* | 17,4* | 26,2* | 23,4 | 20,6* | 14,8* | 12,0* | 11,6* | 16,5 | 6,7* | 10,2* |
| Jatorri | Estatukoa | 67,5 | 44,1 | 45,3 | 41,2 | 49,6 | 34,4 | 29,1 | 30,2 | 24,0 | 18,4 | 18,7 |
| | Atzerritarra | 53,4 | 27,7* | 48,7 | 23,0* | 47,3 | 26,4 | 20,9 | 19,0 | 17,1 | 14,5 | 27,8 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta .*

*5. G. Ondoren adierazitako diskriminazio motei dagokienez, emango al zenidake zure iritzia? Oso zabalduta al dago Euskadin? Aski zabalduta? Nahiko arraroa dela iruditzen al zaizu? Oso arraroa al da?*

Norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasunari dagokionez, pozik ez daudela adierazten duten pertsonek zabalduago ikusten dute generoaren, intersexualitatearen eta erlijio-sinesmenen ondoriozko diskriminazioa. Pozik daudela adierazten duten pertsonek hedatuago ikusten dute intersexuala izateagatik egiten den diskriminazioa; eta beren egoera ekonomikoa axola ez zaien pertsonek gutxiago hautemateko joera dute intersexualitatearen, adinaren eta erlijio-sinesmenen ondoriozko diskriminazioa.

Azkenik, jatorri atzerritarreko pertsonek uste dute ez dagoela hain hedatuta transa izateagatiko eta gaixotasun mentalen bat edukitzeagatiko diskriminazioa.

Biztanleriari, halaber, galdetu diogu pertsona bati ea zer ezaugarrik egin diezaiokeen kalte desberdin tratatua izateagatik, bai modu espontaneoan, bai iradokizunen bitartez, hau da, aukeratu beharreko kategorien zerrenda bat emanda[10] (14. grafikoa).

Lortutako emaitzek erakusten dute, berez, gehien aipatzen diren kategoriak jatorri atzerritarrekoa izatea (% 31,8) eta ijitoa izatea (% 25,7) direla; aitzitik, ia ez da aipatzen gaztea izatea, desgaitasunen bat izatea,langabezian egotea eta gizentasuna kalte egin dezakeen kategoria gisa.

[10] Erantzun espontaneotzat jotzen dugu inkestatutako pertsonak, modu naturalean eta erantzuteko aukerarik eman gabe, erantzuten duenean. Iradokitako erantzunean, inkestatutako pertsonari zenbait aukera erakusten zaizkio, zerrenda horretatik aukeratu dezan.

**14. grafikoa. Hautemandako diskriminazioaren ezaugarriak (erantzun espontaneoa, ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta*

*6. G. Zure ustez, pertsona batek zer ezaugarri izan behar ditu berdin tratatua ez izateko eta, beraz, kaltea pairatzeko?*

Iradokitako galderari emandako erantzunen ondorioz, kategoria batzuek indar handiagoa hartzen dute. Nabarmengarria da ijitoa izatea dela gehien aipatzen den kategoria (% 41,4); halaber, garrantzi handiagoa hartzen dute kategoria hauek: trans pertsona izatea (% 21,2) eta katolizismoaz bestelako erlijioren bat izatea (% 17) (15. grafikoa).

**15. grafikoa. Hautemandako diskriminazioaren ezaugarriak (iradokitako erantzuna, ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*7. G. Zure ustez, pertsona batek zer ezaugarri izan behar ditu berdin tratatua ez izateko eta, beraz, kaltea pairatzeko?*

2021eko datuekin alderatuta (Neurtu 2021), antzeko panorama ikusten da: aipamen espontaneo nabarmenen ehunekoak behera egin du, eta iradokitako erantzunen bidezko aipamenak, ordea, nahiko egonkor mantendu dira ehunekoei dagokienez (9. taula).

**9. taula. Pertsonen ezaugarrien artean diskriminazioa eragin dezaketenak (konparazioa): Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 (espontaneoa eta iradokitakoa) (ehunekoak)**

| | Espontaneoa | | Iradokia | |
|---|---|---|---|---|
| | Neurtu 2021 | Neurtu 2022 | Neurtu 2021 | Neurtu 2022 |
| Ijitoa izatea | 29,3 | 25,7 | 38,4 | 41,4 |
| Jatorri atzerritarrekoak izatea | 37,0 | 31,8 | 40,2 | 36,1 |
| Transexuala edo transgeneroa izatea | 13,5 | 10,6 | 20,5 | 21,2 |
| Gaixotasun mental bat izatea | 3,5 | 7,5 | 11,1 | 17,4 |
| Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea | 12,2 | 12,9 | 24,4 | 17,0 |
| Emakumea izatea | 15,9 | 13,8 | 17,8 | 15,4 |
| Baliabide ekonomiko gutxi izatea | 10,6 | 12,2 | 18,4 | 13,6 |
| Lesbiana, gay edo bisexuala izatea | 8,4 | 9,1 | 11,5 | 11,3 |
| Auzo narriatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzea | 2,0 | 3,7 | 10,3 | 9,3 |
| Prestakuntza gutxi izatea | 3,3 | 6,1 | 7,8 | 8,9 |
| Adimen-desgaitasuna izatea | 1,8 | 2,5 | 5,2 | 7,4 |
| Adineko pertsona izatea | 5,5 | 4,3 | 9,4 | 7,3 |
| Gehiegizko pisua/obesitatea izatea | 2,3 | 2,6 | 6,9 | 6,5 |
| Desgaitasun fisikoa eta/edo sentsoriala izatea | 6,3 | 3,8 | 9,2 | 6,5 |
| Langabezian egotea | 0,6 | 2,5 | 2,4 | 4,0 |
| Gaztea izatea | 1,4 | 1,2 | 1,9 | 1,6 |
| Katoliko praktikatzailea izatea | 0,1 | 0,0 | 0,5 | 0,2 |
| ED/EE | | 7,6 | | 0,7 |
| Bat ere ez | | 9,7 | | 9,8 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 azterlanetan funtsatuta.*

*Neurtu 2021: 5. G eta 6. G; Neurtu 2022: 6. G eta 7. G. Zure ustez, pertsona batek zer ezaugarri izan behar ditu berdin tratatua ez izateko eta, beraz, kaltea pairatzeko?*

## Jarrera diskriminatzaileak lan-esparruan

Lan-arloko diskriminazioaren aldeko jarrerari dagokionez, oro har, EAEko biztanle gehienek adierazi dute prest egongo liratekeela kontsultatutako gizataldeak kontratatzeko. Hala, % 90etik gorakoa da, antzeko esperientzia eta prestakuntza duten pertsonez osatutako talde batetik, jatorri atzerritarreko pertsona bat (% 90,3), pertsona trans bat (% 94,2), pertsona intersexual bat (% 94,3), desgaituren bat (% 95,3), beste erlijioren bateko pertsona bat (% 96,1), lesbiana, gay edo bisexual bat (% 96,6) eta baliabide ekonomiko gutxi dituen norbait (% 98,3) kontratatuko lukeen biztanleriaren ehunekoa. Haatik, nabarmentzekoa da hau: hamar pertsonatik ia hiruk adierazi dute norbait kontratatu beharko balute, prestakuntza eta esperientzia berdineko hainbat hautagairen artean, saiatuko liratekeela ijitorik ez kontratatzea edo ez luketela ijitorik kontratatuko (16. grafikoa).

**16. grafikoa. Lan-kontratazioko joera, gizataldeen arabera (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta*

*11. G. Demagun prestakuntza eta esperientzia berdineko hainbat hautagai daudela; kontratatuko al zenuke honelako norbait?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa eta lan-jarduera.

Ijito bat ez kontratatzeko joera handiagoa dute 75 urtetik gorako pertsonek, erretiratuek, lehen mailako ikasketak dituztenek edo ikasketarik ez dutenek, katoliko praktikatzaileek eta politikoki euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenek. Bestalde, nabarmentzekoa da 18-24 urteko hamar gaztetik bederatzik baino gehiagok adierazi dutela ijito bat kontratatuko luketela (10. taula).

**10. taula. Ijito bat kontratatuko luketen pertsonak, gizataldeen arabera, beste aldagai soziodemografiko batzuei jarraikiz (ehunekoak)**

| | | Baliabide ekonomiko gutxikoa | Lesbiana, gaya edo bisexuala | Beste erlijio batekoa | Desgaitasunen bat duena | Intersexuala | Transexuala, transgeneroa | Jatorri atzerritarrekoa | Ijitoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 98,7 | 97,8 | 96,4 | 95,4 | 95,0 | 95,4 | 90,7 | 65,4 |
| | Gizona | 97,9 | 95,2 | 95,7 | 95,2 | 93,5 | 92,9 | 89,9 | 73,4 |
| ADINA | 18-24 | 100,0 | 97,6 | 98,0 | 100,0 | 97,6 | 97,6 | 94,3 | 93,4* |
| | 25-44 | 98,7 | 97,1 | 98,4 | 96,8 | 94,1 | 94,7 | 93,1 | 74,5 |
| | 45-64 | 98,1 | 97,4 | 95,9 | 94,6 | 95,6 | 94,9 | 92,6 | 71,3 |
| | 65-74 | 97,4 | 96,6 | 94,4 | 92,8 | 94,7 | 94,4 | 89,3 | 63,0 |
| | 75 baino gehiago | 97,9 | 92,5 | 91,9 | 93,8 | 88,9 | 88,6 | 76,8 | 44,7* |
| IKASKETAK | Ikask. gabe eta lehen mailakoak | 97,4 | 93,9 | 93,4 | 93,6 | 90,8 | 90,1 | 81,7 | 57,3* |
| | Bigarren mailakoak | 98,6 | 97,2 | 97,4 | 95,5 | 95,0 | 95,5 | 94,6 | 75,5 |
| | Goi-mailakoak | 98,7 | 98,2 | 96,9 | 96,6 | 96,5 | 96,1 | 93,0 | 72,7 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 95,9 | 94,6 | 92,2 | 93,8 | 87,1 | 88,6 | 82,6 | 57,4* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 98,1 | 96,4 | 95,7 | 94,8 | 95,0 | 94,4 | 89,0 | 63,7 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 99,3 | 99,3 | 98,2 | 96,5 | 97,8 | 97,6 | 94,2 | 77,6 |
| | Beste erlijio bat | 98,2 | 83,2 | 93,6 | 96,5 | 82,4 | 82,4 | 98,2 | 85,7 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 98,8 | 98,3 | 98,3 | 96,5 | 97,6 | 97,2 | 94,3 | 80,9 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 98,9 | 97,9 | 97,3 | 95,0 | 96,2 | 96,4 | 93,3 | 70,0 |
| | Zentro-eskuinekoa | 96,4 | 94,7 | 91,2 | 93,3 | 89,4 | 89,7 | 87,6 | 57,9* |
| | Eskuindarra | 96,3 | 95,4 | 96,3 | 94,5 | 89,4 | 89,4 | 88,0 | 72,7 |
| JARDUERA | Aktiboa | 98,4 | 98,0 | 97,4 | 95,8 | 95,5 | 95,4 | 93,9 | 73,2 |
| | Erretiratua | 97,3 | 94,2 | 92,5 | 92,7 | 91,4 | 91,2 | 83,8 | 54,9* |
| | Langabea | 99,1 | 96,3 | 96,3 | 98,3 | 94,9 | 94,9 | 91,1 | 80,2 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 100,0 | 93,4 | 97,0 | 98,4 | 93,4 | 93,4 | 85,2 | 63,8 |
| | Ikaslea | 100,0 | 96,5 | 100,0 | 97,3 | 96,5 | 96,5 | 88,5 | 89,2 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta*

*11. G. Demagun prestakuntza eta esperientzia berdineko hainbat hautagai daudela; kontratatuko al zenuke honelako norbait?*

## Jarrera diskriminatzaileak etxebizitza-esparruan

Antzeko jarrera aurkitzen dugu etxebizitza-esparruari dagokionez. Euskal gizartea irekita dago desgaitasun motaren bat duten pertsonei, sexu-orientazio ez-normatiboko jendeari, transei, pertsona intersexualei eta «beste erlijio bateko» fededunei etxebizitza alokatzeko (prestasun-maila, hurrenez hurren: % 95,3; % 94,8; % 93,6; % 93,6; eta % 91,4). Behera egin du baiezko erantzunen ehunekoak baliabide ekonomiko gutxi dituzten pertsonen kasuan (% 84,7) eta jatorri atzerritarrekoen kasuan (% 79,5), baina gehien-gehienak prest daude beren etxebizitza alokatzeko. Halaz ere, egoera bestelakoa da ijitoen kasuan;

izan ere, biztanleen erdiek etxebizitza alokatzeko errezelorik ez dutela adierazi badute ere, hamar pertsonatik lauk baino gehiagok aitortzen dute saiatuko liratekeela ez alokatzen edo ez lioketela alokatuko etxebizitzatik ezein ijitori (17. grafikoa).

**17. grafikoa. Etxebizitza alokatzeko joera, kolektiboen eta gizataldeen arabera (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*12. G. Demagun etxebizitza bat alokairuan jarri nahi duzula; alokatuko al zenioke etxebizitza hori honelako pertsona bati?*

Aldagai soziodemografiko hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, lanjarduera, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (11. taula).

Emakumeek, 75 urtetik gorakoek, erretiratuek, katoliko praktikatzaileek eta politikoki euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenek askoz gutxiago jotzen dute ijito bati etxebizitza alokatzera. Aitzitik, ijito bati etxebizitza alokatzearen aldekoak dira, hein handiagoan, gazteak (18-24 urte), Katolizismoaz bestelako erlijioren bat dutenak, jatorri atzerritarreko pertsonak, politikoki euren burua ezkertiartzat dutenak, langabeak eta ikasleak.

**11. taula. Etxebizitza alokatuko luketen pertsonak, kolektiboen eta gizataldeen arabera, aldagai soziodemografikoei jarraikiz (ehunekoak)**

| | | Jatorri atzerritarrekoa | Ijitoa | Lesbiana, gaya edo bisexuala | Transexuala, transgeneroa | Intersexuala | Desgaitasunen bat duena | Beste erlijio batekoa | Baliabide ekonomiko gutxikoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 76,9 | 45,2* | 95,0 | 93,7 | 93,6 | 95,2 | 90,2 | 84,4 |
| | Gizona | 82,4 | 57,3 | 94,6 | 93,4 | 93,6 | 95,5 | 92,7 | 85,0 |
| ADINA | 18-24 | 92,5 | 85,1* | 98,0 | 98,0 | 98,0 | 100,0 | 98,5 | 90,1 |
| | 25-44 | 80,8 | 57,8 | 96,3 | 95,2 | 94,9 | 97,1 | 92,7 | 85,1 |
| | 45-64 | 80,7 | 50,3 | 93,3 | 92,5 | 93,0 | 93,6 | 90,2 | 84,4 |
| | 65-74 | 79,1 | 43,7 | 95,1 | 92,0 | 92,0 | 92,7 | 89,5 | 82,7 |
| | 75 baino gehiago | 66,9 | 26,1* | 93,2 | 91,9 | 91,6 | 96,2 | 89,3 | 83,6 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 74,6 | 37,0* | 91,0 | 87,4 | 87,4 | 93,5 | 89,3 | 83,1 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 78,2 | 46,4 | 95,6 | 94,7 | 94,8 | 95,5 | 91,1 | 84,4 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 82,2 | 57,5 | 97,0 | 95,8 | 96,1 | 95,7 | 92,3 | 84,4 |
| | Beste erlijio bat | 88,1 | 80,6* | 80,4 | 83,2 | 80,4 | 95,6 | 91,4 | 92,3 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 86,7 | 65,5* | 96,6 | 96,1 | 96,6 | 97,0 | 96,1 | 86,7 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 83,0 | 48,7 | 96,2 | 96,0 | 95,9 | 96,2 | 93,3 | 87,4 |
| | Zentro-eskuinekoa | 76,4 | 37,6* | 90,4 | 87,0 | 86,2 | 92,1 | 82,7 | 83,9 |
| | Eskuindarra | 78,3 | 59,0 | 95,2 | 93,6 | 93,6 | 97,3 | 93,5 | 76,3 |
| JARDUERA | Aktiboa | 81,8 | 52,7 | 96,6 | 95,3 | 95,6 | 95,9 | 92,6 | 85,4 |
| | Erretiratua | 73,5 | 37,7* | 92,9 | 90,7 | 90,7 | 93,7 | 88,0 | 84,5 |
| | Langabea | 80,5 | 65,6* | 90,5 | 90,5 | 90,5 | 93,9 | 90,0 | 80,9 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 71,9 | 43,8 | 83,4 | 88,3 | 83,4 | 98,4 | 92,0 | 76,0 |
| | Ikaslea | 91,7 | 84,7* | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 91,2 |
| JATORRIA | Estatukoa | 78,4 | 48,5 | 95,4 | 94,1 | 94,3 | 95,2 | 90,9 | 83,9 |
| | Atzerritarra | 89,8 | 73,1* | 89,8 | 88,7 | 87,8 | 96,7 | 95,5 | 92,2 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*12. G. Demagun etxebizitza bat alokairuan jarri nahi duzula; alokatuko al zenioke etxebizitza hori honelako pertsona bati?*

# Erakundeek diskriminaziorik ezari begira egiten duten lana baloratzea eta eskubideei eta organismoei buruzko ezagutzak

Aniztasunarekin loturiko jarrerei eta pertzepzioei buruzko lehen multzo honekin amaitzeko, honako hauen emaitzak aurkezten ditugu: euskal gizarteak diskriminazio-egoerei aurre egiteko dituen eskubideei eta bere zerbitzura dauden erakunde publikoei buruz zer adierazten duen; eta, ildo beretik, Euskadin berdintasunaren eta orokorki diskriminaziorik ezaren alde erakundeek egiten dituzten ahaleginak nola baloratzen dituen.

## Eskubideei eta organismoei buruzko ezagutza

Nabarmentzekoa da hau: hamar pertsonatik bik baino gehixeagok baino ez dute aitortu badakitela zer eskubide gauzatu ditzaketen diskriminazioaren biktima izanez gero, eta gehienek esan dute ez dakitela ezer ere horri buruz (% 69,1) edo partzialki baino ez dutela informazio hori (% 1,5). Bestalde, ez dakitela esan edo ez erantzutea erabaki dutenak % 2 inguru dira (18. grafikoa).

**18. grafikoa. Diskriminazioaren biktimen eskubideei buruzko ezagutza (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*26. G. Ba al dakizu zertarako eskubidea duzun diskriminazioaren biktima izanez gero?*

Aldagai hauek desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketak, lan-jarduera eta estatus sozioekonomikoa (12. taula).

25-44 urteko pertsonek, hirugarren mailako ikasketak dituztenek eta estatus sozioekonomiko altua dutenek adierazi dute, hein handienean, badakitela zer eskubide ditugun herritarrok diskriminaziorik ez pairatzeari dagokionez. Bestalde, diskriminaziorik ez pairatzearekin lotutako eskubideak gutxiago ezagutzen dituztela diote pertsona zaharrenek (75 urtetik gorakoek), lehen

mailako ikasketak dituztenek edo ikasketarik ez dutenek, erretiratuek eta estatus sozioekonomiko baxuko pertsonek.

**12. taula. Diskriminaziorik ez jasateko eskubideen ezagutza, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Bai | Ez | Egoeraren arabera |
|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 29,0 | 68,4 | 1,3 |
| | Gizona | 26,0 | 69,9 | 1,8 |
| ADINA | 18-24 | 21,0 | 76,5 | 1,5 |
| | 25-44 | 34,2* | 61,1 | 2,0 |
| | 45-64 | 31,2 | 66,0 | 1,7 |
| | 65-74 | 20,4 | 76,5 | 0,8 |
| | 75 baino gehiago | 13,5* | 83,7* | 0,6 |
| IKASKETAK | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 15,7* | 81,1* | 0,8 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 28,8 | 68,6 | 1,0 |
| | Goi-mailakoak | 36,5* | 59,1* | 2,8 |
| JARDUERA | Aktiboa | 31,8 | 65,2 | 1,2 |
| | Erretiratua | 19,5* | 77,0* | 1,1 |
| | Langabea | 28,6 | 64,9 | 4,3 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 23,6 | 72,3 | 4,1 |
| | Ikaslea | 24,9 | 74,5 | 0,6 |
| ESTATUSA | Altua | 66,7* | 33,3 | 0,0 |
| | Ertaina | 27,9 | 68,7 | 1,5 |
| | Baxua | 11,8* | 85,8 | 0,6 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*26. G. Ba al dakizu zertarako eskubidea duzun diskriminazioaren biktima izanez gero?*

Aurreko urteekin konparatuta (EPADE 2020 eta Neurtu 2021), 2022ko emaitzak 2020koen antzekoak dira, eta 2021ean erregistratu da ehunekorik txikiena (diskriminazio-egoerak gertatuz gero zer eskubide dauden jakiteari buruz 19. grafikoa).

**19. grafikoa. Diskriminaziorik ez izateko eskubidea dagoela jakitea (konparazioa): EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 azterlanetan funtsatuta.*

*2020. EPADE: 45. G; Neurtu 2021: 21. G; Neurtu 2022: 26. G. Ba al dakizu zertarako eskubidea duzun diskriminazioaren biktima izanez gero?*

## Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko organismoak eta erakundeak ezagutzea

Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko organismoen eta erakundeen ezagutzari dagokionez, gehienek adierazi dute Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea)[11] ezagutzen dutela (% 83,4); alabaina, hamar pertsonatik bik baino gehiagok baino ez dute adierazi Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroaren[12] eta Ijito Herriaren Euskal Kontseiluaren berri dutela[13]. Are gutxiago dira Berdindu zerbitzua[14] ezagutzen dutela esan dutenak (% 15,2), eta Eraberean sarea[15] ezagutzen dutela adierazi dutenak ez dira % 0,5 izatera ere iristen (20. grafikoa).

**20. grafikoa. Organismoei eta erakundeei buruzko ezagutza (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*
*27. G. Entzun al duzu hauei buruz?*

[11] Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea) Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, eta hari dagokio berdintasunerako politikak diseinatzea, bultzatzea, aholkatzea, koordinatzea eta ebaluatzea, gizartea sentsibilizatzeaz gain Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasuna –benetakoa eta eraginkorra– lortzeko (informazio gehiago eskuragarri hemen: www.emakunde.euskadi.eus).

[12] Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa herri-administrazioen, gizarte-erakundeen eta etorkin-elkarteen arteko kontsultarako eta elkarrizketarako bide bat da, dagozkien gaietan (Ikus: Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa Sortzeko Dekretu Proiektua egiteko Prozedurari hasiera ematen dion Agindua).

[13] Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua Eusko Jaurlaritzan gizarte-gaietan eskumena duen sailari atxikitako aholkularitza-organo bat da, honako helburu hauek dituena: partaidetza eta elkarrizketa bideratzea, ijitoen populazioaren asmoak eta eskaerak jasotzea, eta ijitoen populazioaren erabateko sustapena bultzatzeko proposamenak biltzea; hori guztia, partaidetza soziala, kontsulta, informazioa eta aholkularitza ahalbidetzeko, Administrazioaren jarduketen plangintzari dagokienez, jarduketa horien jarraipenari bide emateko (Ikus: 289/2003 Dekretua).

[14] Berdindu Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua da, lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualei (LGTBI kolektiboko pertsonei) eta haien ingurukoei informazioa eta arreta emateko jomuga duena. Hezkuntza-komunitatearekin, eragile sozial eta profesionalekin, komunikabideekin –eta, oro har, gizarte osoarekin– ere egiten du lan, LGTBIfobia desagerrarazteko eta, horrenbestez, LGTBI kolektiboko pertsonek euren eskubide eta askatasunak erabat gauzatzeko dituzten oztopoak kentzeko (Informazio gehiago hemen: https://www.euskadi.eus/zer-da-berdindu/web01-a2berdin/eu/).

[15] Eraberean Eusko Jaurlaritzak bultzatutako sarea da, jatorri etniko edo nazionalagatiko, sexu-orientazioagatiko eta/edo sexu- eta genero-identitateagatiko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko. Eraberean Sarea Eusko Jaurlaritzak (Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren bidez) eta immigrazioaren, ijito herriaren eta LGTBI kolektiboen esparruan lan egiten duten hainbat gizarte-erakundek osatzen dute (https://www.euskadi.eus/tratu-berdintasun-sarea/web01-a2famil/eu/).

Hurrengo taulan —13.ean— ikusten den bezala, datuen egoera aurreko urteetakoaren antzekoa da (EPADE 2020 eta Neurtu 2021).

**13. taula. Organismo eta erakundeak ezagutzea (konparazioa): EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 (ehunekoak)**

| | EPADE 2020 | Neurtu 2021 | Neurtu 2022 |
|---|---|---|---|
| Emakunde | 83,2 | 79,6 | 83,4 |
| Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa | | | 25,4 |
| Ijito Herriaren Euskal Kontseilua | | | 23,4 |
| Berdindu | 13,5 | 15,8 | 15,2 |
| Eraberean sarea | 2,7 | 4,3 | 3,8 |
| Migraziorako Euskal Itun Soziala | 19,1 | 21,1 | |

*Iturria: geuk egina, EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 azterlanetan funtsatuta.*

*2020. EPADE: 46. G; Neurtu 2021: 22. G; Neurtu 2022: 27. G. Entzun al duzu hauei buruz?*

## Erakunde-esparrutik egiten den lanaren balorazioa

Azkenik, euskal gizarteak berdintasunaren alde eta diskriminazioaren aurka erakundeek egiten dituzten ahaleginei buruz gauzatzen duen balorazioari dagokionez (21. grafikoa), honako hau da nabarmentzekoa: herritar gehienen aburuz, aski ahalegin egiten dira edozein erlijio-sinesmenetako pertsonek euren fedea aitortzeko askatasuna izan dezaten (% 73), etorkinen erabateko integrazioa lortzeko (% 60,1 eta % 59,2, hurrenez hurren), baita gay, lesbiana eta bisexualen aurkako diskriminazioaren kontra borrokatzeko ere (% 57,6).

**21. grafikoa. Erakundeek berdintasunaren alde egiten dituzten ahaleginak nahikoak dira, esparruen arabera (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*28. G. Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauetarako?*

Biztanleriaren ia erdiak adierazi du positiboki baloratzen dituela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ahaleginak (% 49,4), bai eta transak ez diskriminatzeari buruzkoak ere (% 47,6).

Azkenik, okerren baloratutako ahalegin instituzionalak —hau da, euskal gizarteak neurri handienean eskastzat jotzen dituenak—, indarkeria matxista desagerrarazteari buruzkoak (% 40,5) eta ijitoak erabat integratuta egon daitezen lortzeari buruzkoak (% 40,4) dira.

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, lan-jarduera eta estatus sozioekonomikoa (14. taula).

**14. taula. Berdintasunaren alde erakundeek egiten dituzten ahaleginak nahikoak dira, esparruen arabera, beste aldagai soziodemografiko batzuei jarraikiz (baiezko erantzunen ehunekoa)**

| | | Edozein erlijio-sinesmenetako pertsonek euren fedea aitortzeko askatasuna izatea | Desgaitasuna duten pertsonak gizartean erabat integratzea | Gayek, lesbianek eta bisexualek diskriminaziorik ez pairatzea | Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea | Pertsona transexual edo transgeneroek diskriminaziorik ez pairatzea | Etorkinak gizartean erabat integratzea | Indarkeria matxista bukaraztea | Ijitoak gizartean erabat integratuta egotea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXU/ GEN. | Emakumea | 69,1 | 55,3 | 52,3 | 43,6 | 42,7 | 55,8 | 30,9 | 38,9 |
| | Gizona | 77,1 | 63,5 | 63,3* | 55,7* | 52,9* | 64,7* | 50,9* | 42,0 |
| ADINA | 18-24 | 69,1 | 55,3 | 52,3 | 43,6 | 42,7 | 55,8 | 30,9* | 38,9 |
| | 25-44 | 58,3 | 50,9 | 51,9 | 48,8 | 41,9 | 54,0 | 45,9 | 21,8* |
| | 45-64 | 69,5 | 57,2 | 60,7 | 47,5 | 47,1 | 55,3 | 41,2 | 33,9* |
| | 65-74 | 76,6 | 60,8 | 57,8 | 50,0 | 49,0 | 60,5 | 40,9 | 43,3 |
| | 75 baino gehiago | 77,0 | 68,1 | 58,3 | 53,7 | 52,3 | 69,3 | 38,3 | 49,0 |
| IKASKETAK | Ikask. gabe eta lehen mailakoak | 74,9 | 55,2 | 52,6 | 47,8 | 43,2 | 63,7 | 37,2 | 49,0 |
| | Bigarren mailakoak | 74,7 | 61,5 | 59,6 | 46,4 | 49,5 | 62,2 | 40,1 | 42,3 |
| | Goi-mailakoak | 70,9 | 56,3 | 56,7 | 52,1 | 46,7 | 54,5 | 40,6 | 31,2* |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 76,1 | 70,5* | 58,0 | 55,4 | 52,7 | 70,3* | 39,6 | 47,2 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 77,7 | 63,5 | 60,0 | 55,0* | 50,7* | 66,0* | 43,7 | 46,5 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 67,4 | 52,8 | 54,6 | 41,7* | 42,2 | 51,6 | 37,1 | 32,2* |
| | Beste erlijio bat | 75,5 | 49,2 | 58,0 | 44,2 | 50,7 | 54,7 | 45,1 | 37,1 |
| JARDUERA | Aktiboa | 74,9 | 59,9 | 61,0 | 52,1 | 49,5 | 60,3 | 43,0 | 41,2 |
| | Erretiratua | 76,5 | 61,3 | 55,9 | 49,8 | 48,1 | 65,0 | 36,5 | 49,0* |
| | Langabea | 65,7 | 53,6 | 55,1 | 36,4 | 41,8 | 53,1 | 39,5 | 29,3 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 53,2 | 63,6 | 37,4 | 42,9 | 37,4 | 50,2 | 36,7 | 24,9 |
| | Ikaslea | 54,4 | 47,7 | 44,7 | 45,8 | 40,2 | 47,7 | 39,8 | 11,2* |
| ESTATUSA | Altua | 78,5 | 70,6 | 63,2 | 55,5 | 33,7 | 60,9 | 31,6 | 17,2 |
| | Ertaina | 73 | 59 | 56,8 | 48,8 | 47,3 | 59,7 | 40,1 | 39,6 |
| | Baxua | 77,6 | 62,1 | 69,7 | 61,5 | 58,4 | 69,6 | 52,4 | 60,7* |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*28. G. Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauetarako?*

Ahalegin gehienei dagokienez, gizonek emakumeek baino gogobetetasun-maila handiagoa erakusten dute. Ijitoen integrazioaren alde behar adina egiten ez dela hein handiagoan pentsatzeko joera dute, bestalde, 25-64 urteko pertsonek, hirugarren mailako ikasketak dituztenek, erlijio-sinesmenik ez dutenek eta ikasleek. Beste muturrean, ijitoak integratzeko ahaleginak nahikotzat jotzeko joera handiagoa dute, ostera, erretiratuek eta estatus sozioekonomiko baxuko pertsonek.

Gazteek neurri txikiagoan uste dute erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari direla indarkeria matxistari aurre egiteko, eta, ildo horretan, pertsona ez-erlijiozaleek gogobetetasun-maila baxuagoak dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ahaleginei dagokienez, neurri handiagoan jotzeaz gain pentsatzera ahalegin horiek ez direla nahikoak.

Bestalde, katolikoek poztasun handiagoa adierazten dute desgaitasunen bat duten pertsonen eta jatorri atzerritarreko pertsonen integrazioarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta pertsona transak ez diskriminatzean erakundeek egiten duten ahaleginei dagokienez.

Oraingoan ere, aurreko urteekiko alderaketak (EPADE 2020 eta Neurtu 2021) ez du joera argirik erakusten, ezta aldaketa bereziki aipagarririk ere (15. taula).

**15. taula. Berdintasunaren aldeko ahalegin instituzionalak esparruen arabera (konparazioa): EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 (baiezko erantzunen ehunekoa)**

| | EPADE 2020 | Neurtu 2021 | Neurtu 2022 |
|---|---|---|---|
| Edozein erlijio-sinesmenetako pertsonek euren fedea aitortzeko askatasuna izatea | 68,3 | 63,3 | 73,0 |
| Etorkinak gizartean erabat integratzea | 63,7 | 50,7 | 60,1 |
| Desgaitasuna duten pertsonak gizartean erabat integratzea | 67,5 | 54,6 | 59,2 |
| Gayek, lesbianek eta bisexualek diskriminaziorik ez pairatzea | 63,8 | 48,3 | 57,6 |
| Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea | 57,2 | 49,3 | 49,4 |
| Pertsona transexual edo transgeneroek diskriminaziorik ez pairatzea | 50,4 | 41,8 | 47,6 |
| Indarkeria matxista bukaraztea | 49,7 | 32,5 | 40,5 |
| Ijitoak gizartean erabat integratuta egotea | | 42,0 | 40,4 |

*Iturria: geuk egina, EPADE 2020, Neurtu 2021 eta Neurtu 2022 azterlanetan funtsatuta.*

*EPADE 2020: 47. G; Neurtu 2021: 23. G; Neurtu 2022: 28. G. Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauetarako?*

# 2 Ijitoei buruzko pertzepzioak, jarrerak eta sinesmenak

Ondoren, ijitoei buruzko pertzepzioak eta jarrerak jorratzen ditu txostenak. Lehenik, ijitoei buruzko jarrerak eta sinesmenak jorratu ditugu; zehazki, lau esparru bereizten ditugu: hezkuntza, erakundeekiko eta zerbitzu publikoekiko harremana, enplegua eta, azkenik, integrazioa[16]. Aipatutako azken esparru horren arabera, euskal gizarteak bizikidetzari eta harremanguneei dagokienez dituen jarrerei erreparatuko diegu jarraian; hori egin ondoren, ijitoen aurkako diskriminazioaren pertzepzioa aztertuko dugu, eta, azkenik, biztanleria horri dagokionez aitortutako irekitasun sozialaz ariko gara. Horretarako, azken atal gisa indize sintetiko bat sartu dugu, analisian sakontzeko aukera ematen diguna.

## Ijitoei buruzko jarrerak eta sinesmenak

Gizatalde bati dagokionez indarrean dauden jarrerak eta sinesmenak zeintzuk diren jakitea baliagarria da bizikidetza komunaren esparruan eragina duten estereotipo eta aurreiritzi jakin batzuek zenbaterainoko indarra duten agerian jartzeko. Kasu honetan, ijitoei dagokienez, herritarrek hezkuntzaren, erakunde eta zerbitzu publikoekiko harremanaren, enpleguaren eta gizarteratzearen arloan dituzten jarrerei eta sinesmenei buruz galdetzen dugu. Ildo horretan, biztanleriari zenbait ideia estereotipikori buruz galdetzen diogu, baliaezintasuna

[16]Integrazioaren kontzeptua eztabaidagarria dela eta gaur egun kritika garrantzitsuak jasotzen dituela badakigu ere, kasu honetan, egokitzat jotzen dugu termino hori erabiltzea, Blanca Garcések Immigrazioa eta Integrazioa EAEn XII. Jardunaldietan (2022)partekatutako hausnarketari eta proposamenari jarraikiz: integrazioa, inklusioaz haraindi, gizartearen parte onartua izatera aldatzea dakarren gizarte-prozesutzat hartua. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona: GARCÉS, B. eta PENNINX, R. (2016). *Integration Processes and Policial in Europe. Contexts, Levels and Actors*, Springer.

jakinda ere, pertzepzio eta jarrera xenofoboak atzemateko estrategia metodologiko gisa.

## Hezkuntza

Hezkuntza-esparruan ijitoekin izan ohi diren jarrerei dagokienez, euskal gizartearen gehiengoak ijitoekin hezkuntza-sistemaren esparruan harremanak izatearen aldeko jarrera adierazten du, nola ijitoak hezkuntza-sistemaren onuradun gisa kokatzeari dagokionez (ikasle gisa), hala ijitoak hezkuntza-sistemaren parte izateari gagozkiola (irakasle gisa). Hala, % 80tik gorako adostasuna dago seme-alabek ikasle ijitoekin eskolak partekatzearekin eta irakaslea ijitoa izatearekin («nire seme-alabek ikaskide ijitoak izatea ikasgelan» eta «nire seme-alaben irakaslea ijitoa izatea»). Era berean, nagusi da irakasleek Ijito Herriaren errealitatearekiko berariazko prestakuntza jasotzearen aldeko jarrera; zehazki, % 75,4 horrekin ados daude («hezkuntzan bermatzea irakasleek Ijito Herriari buruzko etengabeko prestakuntza jasotzen dutela») (22. grafikoa).

**22. grafikoa. Hezkuntza-alorrean ijitoei lotutako gaiekiko onarpen-maila (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*14. G-D, 14. G-C, 14. G-B. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina eta ideologia politikoa (16. taula).

75 urtetik gorako pertsonek eta politikoki euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenek adostasun-maila baxuagoak dituzte. Aitzitik, politikoki ezkerrarekin identifikatzen diren pertsonek adostasun-maila altuagoak adierazten dituzte.

**16. taula. Hezkuntza-alorrean ijitoei lotutako gaiak oso ondo eta ondo iruditzen zaizkien pertsonak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Nire seme-alabek ikaskide ijitoak izatea ikasgelan | Nire seme-alaben irakaslea ijitoa izatea | Hezkuntzan irakasleek etengabe Ijito Herriari buruzko prestakuntza jasoko dutela bermatzea |
|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 79,6 | 83,6 | 76,4 |
| | Gizona | 79,6 | 81,8 | 73,4 |
| ADINA | 18-24 | 88,5 | 86,5 | 80,7 |
| | 25-44 | 82,2 | 85,2 | 75,9 |
| | 45-64 | 82,5 | 86,0 | 80,1 |
| | 65-74 | 75,3 | 80,6 | 72,9 |
| | 75 baino gehiago | 65,1* | 68,2* | 58,0* |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 91,5 | 90,9 | 88,5* |
| | Zentro-ezkerrekoa | 78,3 | 83,6 | 74,5 |
| | Zentro-eskuinekoa | 69,4 | 71,3 | 60,5* |
| | Eskuindarra | 80,8 | 80,9 | 69,4 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*14. G-D, 14. G-C, 14. G-B. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

Gehienak, halaber, Ijito Herriaren historia eta kultura curriculumean sartzearen alde daude (% 79,5). Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar, aurreko atalean zehazten den bezala, biztanleriak onarpen-maila nabarmenagoak dituela beste errealitate sozial batzuekin lotutako informazioak hezkuntza-irakasgai gisa sartzeari gagozkiola (6. grafikoa).

Bestalde, ikusten dugu iritzia banatuta dagoela «emakume ijitoek ikasketak gizonek baino lehenago uzten dituzte» delako usteari dagokionez (% 59 ados; % 10,6 ez ados ez ados ez desados; % 7,3 desados; eta % 23k ez daki), «ijitoek ez diote garrantzirik ematen prestakuntzari» delako usteari dagokionez (% 41,3 ados; % 22 ez ados ez ados ez desados; eta % 23,1 desados) eta «ikasle ijitoek eskoletako hezkuntza-maila jaisten dute» delako usteari buruz (% 14,7 ados; % 11 ez ados ez desados; eta % 54,6 desados).

Galdera horietan, ehuneko nabarmenak daude ez dakitela edo horri buruzko iritzirik ez dutela adierazten duten pertsonen artean; kontuan izan behar da sinesmen horiek guztiek zalantzan jartzen dutela berdintasunaren aldeko diskurtso formala eta, zentzu horretan, desiragarritasun soziala sar daiteke jokoan.

Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da gizartearen erdiak baino gehiagok (% 54,6) ez duela onartzen ikasle ijitoek eskoletako hezkuntza-maila jaisten dutenik; aldiz, % 50en baino zertxobait gehiagoren ustez, «emakume ijitoek ikasketak gizonek baino lehenago uzten dituzte».

**23. grafikoa. Ijitoei lotutako baieztapenekiko pertzepzioak eta jarrerak hezkuntza-alorrean (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*9. G-E, 17. G-B, 21. G-K, 17. G-A: Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Erantzunen artean desberdintasun estatistikoki esanguratsuak daude aldagai hauetan: adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, norberaren egoera sozioekonomikoarekiko gogobetetasuna, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (17. taula).

Curriculumean Ijito Herriaren historia eta kultura sartzearekiko adostasun-mailarik txikienekoak, hala, pertsona zaharrenak (75 urtetik gorakoak) eta politikoki euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen duten pertsonak dira; aldiz, aukera horren alde hein handienean agertzen direnak politikoki euren burua ezkerrarekin identifikatzen duten pertsonak ditugu.

Emakume ijitoek ikasketak gizon ijitoek baino lehenago uzten dituztelako ideiari dagokionez, neurri handiagoan arbuiatzen dute ideia hori jatorri atzerritarreko pertsonek eta katolizismoaz bestelako erlijioren bat dutenek.

**17. taula. Hezkuntza-esparruan ijitoei lotutako baieztapenekin oso ados eta ados dauden pertsonak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Ijito Herriaren historia eta kultura hezkuntza-irakasgai gisa sartzea | Emakume ijitoek ikasketak gizonek baino lehenago uzten dituzte | Ijitoek ez diote garrantzirik ematen seme-alaben prestakuntza akademikoari | Ikasle ijitoek eskoletako hezkuntza-maila jaisten dute |
|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 80,5 | 60,4 | 41,1 | 13,5 |
| | Gizona | 77,2 | 56,6 | 40,6 | 15,7 |
| ADINA | 18-24 | 88,7 | 52,5 | 29,2 | 3,8* |
| | 25-44 | 80,4 | 56,8 | 44,1 | 15,6 |
| | 45-64 | 82,7 | 61,3 | 42,4 | 17,1 |
| | 65-74 | 77,7 | 67,9 | 36,4 | 12 |
| | 75 baino gehiago | 60,6* | 49,3 | 40,2 | 14,1 |
| IKASKETAK | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 74,7 | 55,6 | 44,2 | 15,8 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 77,4 | 60,1 | 37,9 | 10,7* |
| | Goi-mailakoak | 84,5 | 59,6 | 41,5 | 17,8 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 77,3 | 54,5 | 40,8 | 14,2 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 80,6 | 60,9 | 41,6 | 17,2 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 81,2 | 62,2 | 43,1 | 12,1 |
| | Beste erlijio bat | 57,8 | 31,5* | 24,9 | 10,5 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 90,4* | 65,4 | 46,7 | 13,5 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 77,2 | 61,7 | 41,2 | 9,1* |
| | Zentro-eskuinekoa | 64,3* | 54,7 | 31,8 | 11,6 |
| | Eskuindarra | 79,3 | 58,4 | 35 | 34,7* |
| GOGOBE-TETASUN EKONOM. | Ez dago pozik | 76,1 | 57,9 | 43,6 | 21,8* |
| | Ez zaio axola | 75,4 | 60,4 | 36,4 | 14,8 |
| | Pozik dago | 84,7 | 57,4 | 45,2* | 12,7 |
| JARDUERA | Aktiboa | 81,8 | 60,3 | 42,6 | 15,3 |
| | Erretiratua | 70,3 | 60,5 | 40,4 | 13,6 |
| | Langabea | 82,2 | 51,7 | 42,9 | 19 |
| | Etxekoandre / etxeko gizon | 67,5 | 32,4 | 28,5 | 12,4 |
| | Ikaslea | 95,2 | 56,6 | 26,4 | 4,2* |
| ESTATUSA | Altua | 70,9 | 45,7 | 38,9 | 24 |
| | Ertaina | 78,7 | 58,6 | 39,9 | 14,7 |
| | Baxua | 80 | 61,8 | 56,1* | 10,7 |
| JATORRIA | Estatukoa | 79,6 | 61,5 | 42,6 | 15,1 |
| | Atzerritarra | 73,2 | 35,1* | 26,9* | 10,2 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*9. G-E, 17. G-B, 21. G-K, 17. G-A: Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Ijitoek beren seme-alabek prestakuntza akademikoa jasotzeari garrantzirik ematen ez diotela uste ohi dute, batetik, euren egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonek, eta, bestetik, estatus sozioekonomiko baxua dutenek; aldiz, jatorri atzerritarreko pertsonak ideia hori hein handiagoan arbuiatzen dutelako nabarmentzen dira.

Azkenik, ikasle ijitoek eskoletako hezkuntza-maila jaisten dutelako ustea gehiago partekatzen dute politikoki euren burua eskuindartzat duten pertsonek eta beren egoera ekonomikoarekin pozik daudela adierazten dutenek; beste muturrean, berriz, uste horrekiko arbuio handiagoa erakusten dute gazteek, bigarren mailako ikasketak dituztenek, politikoki euren burua zentro-ezkertiartzat dutenek eta ikasleek.

## Erakunde eta zerbitzu publikoak

Herritarren erdiek baino gehixeagok (% 52,8k) adierazi dute ondo irudituko litzaiekeela EAEko lehendakaria ijitoa izatea; ia % 30ek, berriz, nahiago izan dute ez esatea zer deritzen, eta % 10 inguru aukera horren aurka agertu dira (24. grafikoa).

**24. grafikoa. EAEko lehendakaria ijitoa izateko aukeraren onarpen-maila (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*14. G-A. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia? EAEko lehendakaria ijitoa izatea.*

Aldagai soziodemografikoen araberako erantzun-desberdintasunek agerian uzten dute 75 urtetik gorako pertsonek, erretiratuek, katoliko praktikatzaileek eta politikoki euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenek adostasun-maila baxuagoak dituztela. Beste muturrean, adostasun-maila altuagoekin nabarmentzen dira erlijiozaleak ez diren pertsonak (18. taula).

**18. taula. EAEko lehendakaria ijitoa izateko aukeraren onarpen-maila, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | EAEko lehendakaria ijitoa izatea |
|---|---|---|
| SEXUA/GENEROA | Emakumea | 58,9 |
| | Gizona | 60,1 |
| ADINA | 18-24 | 67,6 |
| | 25-44 | 66,4 |
| | 45-64 | 61,0 |
| | 65-74 | 56,8 |
| | 75 baino gehiago | 37,5* |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 45,8* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 57,1 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 67,4* |
| | Beste erlijio bat | 55,6 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 67,3 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 60,6 |
| | Zentro-eskuinekoa | 46,1* |
| | Eskuindarra | 69,0 |
| JARDUERA | Aktiboa | 62,0 |
| | Erretiratua | 50,3* |
| | Langabea | 67,1 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 45,2 |
| | Ikaslea | 75,9 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*14. G-A. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

Eskubide eta zerbitzu publikoak eskuratzeari dagokionez, herritarren % 90ek baino gehiagok adierazi dutenez, erakundeek ijitoen aukera-berdintasuna bermatzearen alde daude (25. grafikoa).

Bestalde, ijitoekin lotutako ideia estereotipatuei eta zerbitzu desberdinen erabilera hipotetikoari buruzko ahobatezko jarrerarik ez dugu aurkitu; izan ere, galdera gehienetan baieztapenarekin ados dauden pertsonen eta desados daudenen proportzioa ia-ia berdina dela ikusi dugu. Alabaina, gizartean oraindik ere oso indar handia izaten jarraitzen duten usteak gizarte-babeseko sistemaren gehiegizko onurarekin zerikusia dute (% 43,7 ados daude, eta % 29,6, berriz, desados) («ijitoek onura handiegia ateratzen diote gizarte-babeseko sistemari»); horren ildotik, % 39k uste dute ijitoek gehiegizko babesa jasotzen dutela erakundeen aldetik, eta % 37, ostera, desados dago baieztapen horrekin («erakundeek gehiegi babesten dituzte ijitoak»).

Osasun-sistemaren erabilerari dagokionez, % 31 ados dago ijitoek hura gehiegi erabiltzen dutelako ideiarekin, baina % 45,7, aitzitik, ez dago ados baieztapen horrekin; hori da, hain justu, kontsultatutako gaien artean desadostasun-ehunekorik handiena izan duena («ijitoek gehiegi erabiltzen dute osasun-sistema eta larrialdiak kolapsatzen dituzte»). Ildo beretik, inkestatutako pertsonen % 33,8k ez du uste ijitoei babes ofizialeko etxebizitzak (BOE)

esleitzen zaizkienik, baina % 34,1ek, aitzitik, ados daudela esan dute («ijitoek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eramaten dituzte»).

**25. grafikoa. Ijitoekin lotutako baieztapenekiko pertzepzioak eta jarrerak ijitoek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari dagokionez (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*15. G-E, 21. G-B, 17. G-H, 15. G-H, 17. G-K, 15. G-B. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasun maila, lan-jarduera, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (19. taula).

Orokorrean planteatutako ideiekiko adostasun-maila altuagoak dituzte ikasketa gutxien dituzten pertsonek, katolikoek, erretiratuek, beren egoera ekonomikoarekin pozik daudela adierazten dutenek eta estatus sozioekonomiko baxukoek.

Haatik, oro har ikuspegi kritikoagoa hartzeko joera dute gazteek, Katolizismoaz bestelako erlijioren bat dutenek eta jatorri atzerritarrekoek.

Bestalde, emakumeek eta 45-64 urteko pertsonek gehiago uste dute ijitoek osasun-sistema gehiegi erabiltzen dutela, eta bigarren mailako ikasketak dituztenek, berriz, ideia hori arbuiatzeagatik nabarmentzen dira.

**19. taula. Ijitoen eskubide eta zerbitzuetarako sarbideari dagokionez oso ados eta ados dauden pertsonak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Erakundeek ijitoen aukera-berdintasuna bermatu behar dute | Ijitoek onura handiegia ateratzen diote gizarte-babeseko sistemari | Ijitoek gehiegi erabiltzen dute osasun-sistema eta larrialdiak kolapsatzen dituzte | Erakundeek gehiegi babesten dituzte ijitoak | Ijitoek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eramaten dituzte | Ijitoek gehiegi eskatzen dute |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 91,3 | 43,5 | 32,6* | 39,2 | 34,3 | 34,5 |
| | Gizona | 90,8 | 43,0 | 28,4 | 37,9 | 33,3 | 33,7 |
| ADINA | 18-24 | 93,3 | 26,4* | 12,7* | 16,1* | 23,3 | 12,7* |
| | 25-44 | 90,3 | 43,2 | 26,8 | 36,5 | 35,8 | 32,2 |
| | 45-64 | 90,7 | 45,1 | 34,4* | 41,4 | 35,2 | 34,9 |
| | 65-74 | 89,7 | 45,0 | 33,9 | 42,2 | 32,3 | 39,1 |
| | 75 baino gehiago | 93,8 | 46,0 | 35,7 | 44,9 | 32,8 | 43,8* |
| IKASKETAK | Ikask. gabe eta lehen mailako. | 93,5 | 53,1* | 40,2* | 48,8* | 43,1* | 43,7* |
| | Bigarren mailako ikasketak | 90,9 | 38,4 | 23,2* | 35,0 | 28,1 | 29,4 |
| | Goi-mailakoak | 89,0 | 40,3 | 30,7 | 33,8 | 32,4 | 31,1 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 87,0 | 47,0 | 36,3* | 43,8 | 35,1 | 39,6 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 89,2 | 47,8* | 34,7* | 43,9* | 37,8* | 38,8* |
| | Agnostikoa edo ateoa | 94,8 | 40,6 | 26,8 | 33,8 | 31,2 | 29,0 |
| | Beste erlijio bat | 88,8 | 20,8* | 11,9* | 19,9* | 19,0 | 18,2* |
| GOGOBETE. EKONOM. | Ez dago pozik | 89,2 | 45,8 | 36,2 | 43,8 | 37,7 | 36,3 |
| | Ez zaio axola | 91,9 | 38,4 | 26,0 | 34,5 | 28,8 | 34,1 |
| | Pozik dago | 90,4 | 47,6* | 33,5* | 41,5 | 38,2* | 33,5 |
| JARDUERA | Aktiboa | 90,6 | 43,3 | 29,1 | 38,1 | 34,9 | 33,6 |
| | Erretiratua | 92,2 | 46,9 | 37,9* | 44,5* | 35,0 | 40,8* |
| | Langabea | 89,8 | 40,8 | 27,3 | 36,1 | 32,4 | 27,5 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 87,1 | 39,2 | 18,8 | 29,7 | 14,1 | 24,8 |
| | Ikaslea | 93,9 | 28,8 | 18,0 | 19,3* | 28,0 | 20,6 |
| ESTATUSA | Altua | 80,4 | 46,6 | 23,8 | 38,8 | 49,6 | 43,7 |
| | Ertaina | 90,8 | 41,3 | 29,0 | 35,2 | 31,5 | 32,0 |
| | Baxua | 95,4 | 72,9* | 54,8* | 83,5* | 63,9* | 61,3* |
| JATORRIA | Estatukoa | 91,2 | 45,6* | 32,8* | 40,0 | 34,9* | 35,8* |
| | Atzerritarra | 89,6 | 24,9* | 12,4* | 27,1 | 24,8 | 20,9* |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*15. G-E, 21. G-B, 17. G-H, 15. G-H, 17. G-K, 15. G-B. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

## Lan-esparrua

Lan-esparruari dagokionez, herritar gehienek uste dute ijitoek zailtasunak dituztela lana aurkitzeko (% 75,8), eta desparekotasunak pairatu behar dituztela lan-esparruan lanpostu batean gora egiteko eta karrera profesionala garatzeko (% 64,4). Era berean, % 40k baino gehiagok adierazi du bere ustez ijitoek ez dituztela gainerako pertsonen lan-kondizio berak (% 43,9) (26. grafikoa).

Ikuspegi sozial kritiko horrek ijitoek lan-esparruan pairatzen dituzten diskriminazioko eta desparekotasun-traturako dinamikak hautemateko joera du, eta hori bat dator «ijitoek nahi ez dutelako ez dute lanik egiten» ideia sinesteari buruzko aurreiritziak gutxiengo babesa lortu izanarekin (% 22,6; eta desados dauden pertsonen kasuan, berriz, % 45,6), baina nabarmentzekoa da, nolanahi ere, jarrera hori ez duten pertsonen ehunekoa altuena izatea (% 26,3 ez daude ez ados ez desados).

**26. grafikoa. Pertzepzioak eta jarrerak ijitoek lan-esparruan duten egoerarekin lotutako baieztapenei dagokienez (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*15. G-C, 15. G-G, 21. G-F, 15. G-I. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera eta estatus sozioekonomikoa (20. taula).

Lan-esparruan ijitoek diskriminazio gutxiago pairatzen dutela hautemateko joera dute, eta adostasun handiagoa adierazten dute, bestalde, «ijitoek nahi ez dutelako ez dute lanik egiten» delako ideiarekin, pertsona zaharrenek, lehen mailako ikasketak dituztenek edo ikasketarik gabekoek, katolikoek, euren

burua etxekoandre gisa identifikatzen dutenek eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek.

Aitzitik, gazteek, erlijiozaleak ez diren pertsonek, politikoki euren burua ezkertiartzat dutenek eta ikasleek joera handiagoa dute lan-esparruan ijitoen aurkako diskriminazioa hautemateko eta arbuiatzeko ijitoek «ez dute lan egiten ez dutelako nahi» delako ideia.

**20. taula. Ijitoek lan-esparruan duten egoerarekin lotutako baieztapenekin oso ados dauden pertsonak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Ijitoek zailtasunak izaten dituzte lana aurkitzeko | Ijitoek ez dituzte gainerako pertsonen lan-aukera berdinak lanpostu-igoeran eta karrera profesionalean | Ijitoek nahi ez dutelako ez dute lanik egiten | Ijitoek ez dituzte gainerako pertsonen lan-kondizio berberak |
|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 76,5 | 63,6 | 22,0 | 43,1 |
| | Gizona | 73,8 | 63,8 | 22,8 | 43,8 |
| ADINA | 18-24 | 86,9 | 77,9* | 11,3* | 62,7* |
| | 25-44 | 76,5 | 67,0 | 22,8 | 45,6 |
| | 45-64 | 75,7 | 63,5 | 21,3 | 41,3 |
| | 65-74 | 73,0 | 62,2 | 20,0 | 42,7 |
| | 75 baino gehiago | 66,5 | 50,2 | 33,0* | 33,9 |
| IKASKETAK | Ikask. gabe eta lehen mailakoak | 67,3 | 53,3* | 29,8* | 38,3 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 76,4 | 67,7 | 18,8 | 47,1 |
| | Goi-mailakoak | 81,1 | 68,2 | 20,1 | 43,8 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 68,5 | 55,3 | 30,9* | 40,6 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 75,4 | 62,7 | 26,6* | 42,9 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 79,9 | 70,3* | 16,1* | 46,2 |
| | Beste erlijio bat | 63,8 | 48,9 | 11,6 | 39,3 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 84,2 | 75,5* | 18,1 | 44,8 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 81,6 | 71,4* | 15,7* | 54,3* |
| | Zentro-eskuinekoa | 64,5 | 56,5 | 20,3 | 43,0 |
| | Eskuindarra | 74,5 | 61,6 | 32,3 | 36,1 |
| JARDUERA | Aktiboa | 77,2 | 67,0 | 21,1 | 46,0 |
| | Erretiratua | 71,3 | 57,3 | 25,4 | 38,1 |
| | Langabea | 74,4 | 64,1 | 23,3 | 36,9 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 53,5 | 30,0* | 26,6 | 34,3 |
| | Ikaslea | 89,1 | 81,1 | 15,0 | 63,8* |
| ESTATUSA | Altua | 85,5 | 71,3 | 23,9 | 29,2 |
| | Ertaina | 75,6 | 63,8 | 21,7 | 44,0 |
| | Baxua | 63,6 | 52,0 | 35,2* | 36,6 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*15. G-C, 15. G-G, 21. G-F, 15. G-I. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

## Integrazioa

Ijitoen gizarteratzeari eta integrazio kulturalari duten pertzepzioari gagozkiola, gizarteak aho batez adierazi du bizikidetza hobea lortzeko, ahalegin partekatua egin behar dela, bai ijitoena, bai gainerako gizartearena (% 91,1 baieztapen horren aldekoak dira), eta ijitoak hobeto integratuko balira, gizarteak horren onura jasoko lukeela (% 84,1). Gehiengo batek uste du gizarteak ahalegin handiagoa egin beharko lukeela ijitoak, haien ohiturak eta tradizioak integratzeko: % 69,1 ados dago baieztapen horrekin.

Bestalde, biztanleriaren ia erdia ez dago ados «ijitoek uko egin beharko liekete euren ohituretako batzuei gainerako gizartearekin integratzeko» delako ideiarekin (% 48,6); % 32,8, aldiz, uste horretakoa da (27. grafikoa).

**27. grafikoa. Ijitoen integrazioari buruzko pertzepzioak eta jarrerak (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*17. G-J, 21. G-D, 17. G-G, 21. G-C. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, lan-jarduera eta estatus sozioekonomikoa (21. taula).

Adinez zaharrenak diren pertsonek, erretiratuek, lehen mailako ikasketak dituztenek edo ikasketarik ez dutenek, katoliko praktikatzaileek eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek hein handiagoan daude ados honako ideia honekin: ijitoek beren ohituren zati bati uko egin beharko liokete gainerako gizartearekin integratzeko. Beste muturrean, ideia horrekiko adostasun-maila txikiagoa uzten dute agerian gazteek eta katolizismoaz bestelako erlijioren bateko pertsonek.

**21. taula. Ijitoen integrazioari buruzko baieztapenekin oso ados eta ados dauden pertsonak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Bizikidetza hobea lortzeko, ahalegin partekatua egin behar da, bai ijitoena, bai gainerako gizartearena | Ijitoak hobeto integratuko balira, gizarteak onura aterako luke | Euskal gizarteak ahalegin handiagoa egin beharko luke ijitoak eta haien ohitura eta tradizioak integratzeko | Ijitoek uko egin beharko liekete euren ohituretako batzuei gainerako gizartearekin integratzeko |
|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 91,6 | 82,0 | 70,8 | 32,9 |
| | Gizona | 90,4 | 84,9 | 66,3 | 32,1 |
| ADINA | 18-24 | 93,3 | 83,4 | 81,2 | 16,3* |
| | 25-44 | 92,9 | 83,0 | 65,7 | 28,2 |
| | 45-64 | 89,8 | 84,5 | 68,1 | 32,6 |
| | 65-74 | 88,9 | 82,5 | 69,5 | 38,9 |
| | 75 baino gehiago | 90,7 | 82,4 | 68,9 | 45,1* |
| IKASKETAK | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 89,7 | 84,7 | 65,5 | 44,4* |
| | Bigarren mailako ikasketak | 93,8 | 79,6 | 70,9 | 28,1 |
| | Goi-mailakoak | 89,0 | 86,6 | 68,7 | 27,3 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 87,7 | 87,2 | 69,4 | 47,8* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 88,0 | 87,1 | 65,8 | 33,3 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 94,7 | 80,4 | 71,4 | 28,2 |
| | Beste erlijio bat | 94,0 | 68,7 | 68,8 | 17,1* |
| JARDUERA | Aktiboa | 91,4 | 83,7 | 69,7 | 29,9 |
| | Erretiratua | 90,1 | 83,4 | 68,7 | 41,4* |
| | Langabea | 89,0 | 81,5 | 62,2 | 26,5 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 100,0 | 78,9 | 52,6 | 33,3 |
| | Ikaslea | 90,9 | 86,0 | 78,8 | 23,5 |
| ESTATUSA | Altua | 80,2 | 88,0 | 38,4 | 23,8 |
| | Ertaina | 91,5 | 82,7 | 68,8 | 31,9 |
| | Baxua | 85,2 | 88,9 | 72,3 | 51,8* |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*17. G-J, 21. G-D, 17. G-G, 21. G-C. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Gizarteak ijitoen kulturari buruz dituen balorazioak eta pertzepzioak aintzat hartuta (28. grafikoa), gehiengoak uste du ijitoek balio positiboak dituztela, hala nola adineko pertsonak errespetatzea edo familiaren garrantzia (% 76,3 ados).

Hala ere, hamarretik ia zazpik uste dute Ijito Herriaren kultura eta ohiturek talka egiten dute euskal gizartearekin (% 69,3 ados daude; % 16,7, berriz, desados). Era berean, inkestatutako pertsonen % 43ren ustez «Ijito Herriaren ohitura kulturalek eta usadioek aberastu egiten dute Euskadiko kultura-bizitza», eta % 23,7ren aburuz, ordea, ez.

Bestalde, gehienen ustez, «Ijito Herriaren ohitura kulturalek mugatu egiten dute emakume ijitoen hezkuntza- eta lan-garapena» (% 72); bestalde, % 38,1ek uste du ijitoen gizarte-sustapena beren familiek irakasten dizkieten balioek mugatzen dutela («ijitoak ez dira aurrera ateratzearen seme-alabei gizarte honetan egokiak ez diren balioak irakasten dizkietelako»).

**28. grafikoa. Ijitoen kulturari buruzko pertzepzioak eta jarrerak (ehunekoak).**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*17. G-I, 21. G-E, 21. G-H, 21. G-G, 17. G-E. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, ikasketa-maila, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (22. taula).

Adinez zaharrenek, erretiratuek, lehen mailako ikasketak dituztenek edo ikasketarik ez dutenek, katolikoek, politikoki zentrokoak diren pertsonek (eskuinean eta ezkerrean daudenak) eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek Ijito Herriaren ohitura kulturalekiko jarrera bereziki kritikoak ematen dituzte aditzera, eta, oro har, hein handiagoan daude ados Ijito Herriaren ohitura kultural horiek gizartearen gainerakoekin talka egiten dutelako ideiarekin.

Bestalde, gazteek ez dute uste ijitoen familiek beren seme-alabei balio murriztaileak transmititzen dizkietenik; aitzitik, adostasun-maila bereziki altuak adierazten dituzte gazteek Ijito Herriaren kulturak eta ohiturek euskal gizartea aberasten dutela pentsatzeari dagokionez. Ildo beretik, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak eta politikoki euren burua ezkertiartzat dutenak ere ideia horrekin bat datoz.

**22. taula. Ijitoen integrazioari buruzko baieztapenekin oso ados eta ados dauden pertsonak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Ijito Herriaren kultura eta ohiturek talka egiten dute euskal gizartearekin | Ijito Herriaren ohitura kulturalek mugatu egiten dute emakume ijitoen hezkuntza- eta lan-garapena | Ijitoek balio positiboak dituzte, hala nola adineko pertsonak errespetatzea eta familiaren garrantzia | Ijitoak ez dira aurrera ateratzearen seme-alabei gizarte honetan egokiak ez diren balioak irakasten dizkietelako. | Ijito Herriaren kulturak eta ohiturek aberastu egiten dute Euskadiko kultura-bizitza |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 70,7 | 72,3 | 74,1 | 36,7 | 40,9 |
| | Gizona | 66,2 | 69,8 | 77,5 | 39,0 | 44,6 |
| ADINA | 18-24 | 54,5 | 66,5 | 86,9 | 23,3* | 58,0* |
| | 25-44 | 63,1 | 69,9 | 71,5 | 37,8 | 45,8 |
| | 45-64 | 70,7 | 71,8 | 79,7 | 39,3 | 45,9 |
| | 65-74 | 72,1 | 75,6 | 75,8 | 41,0 | 35,0 |
| | 75 baino gehiago | 79,8* | 70,2 | 68,3 | 38,9 | 25,9* |
| IKASKETAK | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 74,1* | 67,2 | 70,0 | 41,8 | 32,9* |
| | Bigarren mailako ikasketak | 67,0 | 72,9 | 80,8 | 36,2 | 43,1 |
| | Goi-mailakoak | 65,5 | 72,8 | 75,2 | 36,3 | 51,0* |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 80,4* | 62,9 | 73,9 | 42,4 | 32,0* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 73,1* | 72,4 | 74,5 | 39,6 | 40,2 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 63,8 | 78,2* | 79,7 | 36,8 | 50,0* |
| | Beste erlijio bat | 41,1* | 38,9* | 64,6 | 21,9 | 38,0 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 60,6 | 77,2 | 85,5 | 39,9 | 60,7* |
| | Zentro-ezkerrekoa | 75,8* | 76,9 | 75,5 | 42,2* | 40,6 |
| | Zentro-eskuinekoa | 72,6 | 66,8 | 69,9 | 29,5 | 27,8* |
| | Eskuindarra | 62,2 | 68,2 | 75,7 | 39,1 | 44,4 |
| JARDUERA | Aktiboa | 68,2 | 72,0 | 76,8 | 37,1 | 47,2 |
| | Erretiratua | 76,0* | 74,5 | 71,8 | 42,6* | 32,9* |
| | Langabea | 57,8 | 64,8 | 78,8 | 35,6 | 45,3 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 55,8 | 41,6* | 71,8 | 25,4 | 28,6 |
| | Ikaslea | 58,7 | 71,4 | 82,9 | 29,3 | 50,7 |
| ESTATUSA | Altua | 77,7 | 70,1 | 75,4 | 46,7 | 34,1 |
| | Ertaina | 67,5 | 70,9 | 78,4 | 36,8 | 42,7 |
| | Baxua | 85,5* | 74,8 | 41,2* | 54,7* | 40,7 |
| JATORRIA | Estatukoa | 70,4* | 74,5 | 76,8 | 39,7* | 43,2 |
| | Atzerritarra | 53,5 | 44,3* | 66,9 | 23,0* | 38,9 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*17. G-I, 21. G-E, 21. G-H, 21. G-G, 17. G-E. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Pertsona ez-erlijiozaleak daude hein handienez ados ideia honekin: Ijito Herriaren ohitura kulturalek emakume ijitoen hezkuntza- eta lan-garapena mugatzen dute.

Beste muturrean, Ijito Herriaren ohitura kulturalak eta usadioak ez direla hain murriztaileak (bereziki, emakume ijitoekin) uste dute, lehenik, jatorri atzerritarreko pertsonek, bigarrenik, katolizismoaz bestelako erlijioren bat dutenek, eta hirugarrenik, euren burua etxekoandre / etxeko gizon gisa identifikatzen dutenek.

Azkenik, ijitoen integrazio-egoerari buruzko gizarte-balorazio orokorra lortzeko, EAEko biztanleriari proposatzen diogu adieraz dezala euren ustez zein den ijitoen integrazio-maila, 0tik 10era bitarteko eskala bat hartuta neurri gisa (0 «inolako integraziorik ez» izango litzateke, eta 10, berriz, «erabateko integrazioa»). Horrela, batez beste 3,98 puntuko emaitza lortzen dugu; puntuazio horrek argi eta garbi erakusten du euskal gizarteko pertsona gehienen ustez ijitoen integrazio-maila txikia dela (29. grafikoa).

**29. grafikoa. Ijitoen integrazioaren pertzepzioaren batezbestekoa (batez besteko puntuazioa, 0tik —«inolako integraziorik ez»— 10era —«erabateko integrazioa»— bitarteko eskala batean)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*19. G. 0tik 10era bitarteko eskala batean, zer iruditzen zaizu ijitoen integrazio-maila? Kontuan hartuta 0k «inolako integraziorik ez» esan nahi duela, eta 10ek, berriz, «erabateko integrazioa».*

Aldagai soziodemografikoen araberako erantzun-desberdintasunei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu integrazio-maila handiagoak adierazten dituztela 18-44 urteko pertsonek, goi-mailako ikasketarik ez dutenek, ikasten ari direnek, katolizismoaz bestelako erlijioren bat dutenek eta jatorri atzerritarrekoek (23. taula).

**23. taula. Ijitoen integrazioaren pertzepzioaren batezbestekoa, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (batez besteko puntuazioa, 0tik —«inolako integraziorik ez»— 10era —«erabateko integrazioa»— bitarteko eskala batean)**

| | | Ijitoen integrazio-mailaren inguruko irudipena, batez beste |
|---|---|---|
| SEXUA/GENEROA | Emakumea | 4,03 |
| | Gizona | 3,94 |
| ADINA | 18-24 | 4,59* |
| | 25-44 | 4,09* |
| | 45-64 | 3,88 |
| | 65-74 | 3,95 |
| | 75 baino gehiago | 3,73 |
| IKASKETAK | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 4,15* |
| | Bigarren mailako ikasketak | 4,11* |
| | Goi-mailakoak | 3,70 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 4,13 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 3,84 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 4,01 |
| | Beste erlijio bat | 4,45* |
| JARDUERA | Aktiboa | 3,96 |
| | Erretiratua | 3,92 |
| | Langabea | 3,93 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 4,22 |
| | Ikaslea | 4,66* |
| JATORRIA | Estatukoa | 3,94 |
| | Atzerritarra | 4,46* |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*19. G. 0tik 10era bitarteko eskala batean, zer iruditzen zaizu ijitoen integrazio-maila? Kontuan hartuta 0k «inolako integraziorik ez» esan nahi duela, eta 10ek, berriz, «erabateko integrazioa».*

## Bizikidetza eta harremanetarako guneak

Atal honetan, ijitoekiko bizikidetzarekin eta ijitoekin harremanetan egoteko edo horiekin elkarreragina izateko tokiekin lotutako hiru gakori erreparatzen diegu: lagunak eta ezagunak; ijitoen eta gainerako gizartearen arteko harremanen balorazio orokorra, eta hainbat esparruren inguruko (lana, hezkuntza, gizartea eta etxebizitza) bizikidetza- eta harreman-kasuak. Azkenik, ijitoek gainerako gizartearekin duten antza edo aldea baloratzeko pertzepzio sozialak ere lantzen ditugu, hainbat ezaugarri soziokultural kontuan hartuta.

## Ijitoekiko harremanak

Komeni da gogoratzea, txostenaren lehen blokean aipatu dugun bezala, euskal gizartearen gehiengoak ez duela ijitorik ezagutzen eta ez duela lagun ijitorik (% 68,7); aitzitik, ijitoak ezagutzen dituela edo lagun ijitoak dituela adierazten dutenen ehunekoa % 31,3 da, eta horietatik % 8,8k baino ez ditu aski ijito edo ijito asko ezagutzen edo lagun gisa (30. grafikoa).

**30. grafikoa. Lagun edo ezagun ijitoen dimentsioa (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*8. G-B. Zenbat lagun edo ezagun ijito dituzu?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketa-maila, erlijiozaletasun-maila eta lan-jarduera.

**24. taula. Adiskide edo ezagun ijitoen dimentsioa, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Ijitoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Bat ere ez | Gutxi | Aski | Asko |
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 72,0* | 21,0 | 5,6 | 1,4* |
| | Gizona | 65,0 | 24,1 | 7,9 | 2,9 |
| ADINA | 18-24 | 59,6 | 26,5 | 13,9* | |
| | 25-44 | 63,8 | 26,9 | 6,7 | 2,6 |
| | 45-64 | 64,3 | 24,6 | 8,6 | 2,6 |
| | 65-74 | 77,8 | 16,1* | 3,3 | 2,7 |
| | 75 baino gehiago | 87,2* | 11,6* | 0,9* | 0,3* |
| IKASKETAK | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 69,1 | 19,8 | 8,1 | 3,1 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 65,7 | 24,8 | 7,8 | 1,7 |
| | Goi-mailakoak | 71,6 | 22,4 | 4,2* | 1,7 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 79,9* | 13,1* | 5,1 | 1,9 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 71,1 | 21,2 | 5,5 | 2,1 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 63,6 | 26,6 | 8,4 | 1,5 |
| | Beste erlijio bat | 63,7 | 23,2 | 7,8 | 5,2 |
| JARDUERA | Aktiboa | 65,3 | 25,1 | 7,2 | 2,5 |
| | Erretiratua | 79,0* | 16,4* | 3,3* | 1,3 |
| | Langabea | 59,5 | 27,5 | 9,4 | 3,6 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 76,5 | 15,4 | 7,0 | 1,1 |
| | Ikaslea | 60,7 | 23,6 | 15,7* | |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*8. G-B. Zenbat lagun edo ezagun ijito dituzu?*

Ijitoekin harreman gutxiago dutela adierazten dute emakumeek, 75 urtetik gorakoek, erretiratuta daudenek, katoliko praktikatzaileek eta goi-mailako ikasketak dituztenek. Aitzitik, lagun eta ezagun ijito gehien dituztela adierazi duten kolektiboak gazteena (18-24 urte) eta ikasleena (24. taula) dira.

Bestalde, gizartearen erdiek baino gehixeagok uste dute azken bi urteotan ez dela aldatu Ijito Herriaren eta EAEko gainerako gizartearen arteko harremana (% 51,5); herritarren heren batek, berriz, uste du harremanak hobera egin duela (% 30,7), eta soilik % 3,6k uste du okerrera egin duela. Nabarmentzekoa da, halaber, biztanleriaren % 13,6k ez duela jakin galdera horri erantzuten (31. grafikoa).

**31. grafikoa. Ijito Herriaren eta gainerako euskal gizartearen arteko harremanen balorazioa (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*16. G. Zure ustez, Ijito Herriaren eta gainerako biztanleen arteko harremanak hobera egin al du azken 2 urteotan? Okerrera egin al du? Berdin jarraitzen al du?*

Estatistikoki esanguratsuak diren erantzunen arteko aldeak ikusten dira honako aldagai hauei dagokienez: adina, ikasketa-maila, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (25. taula).

Ijito Herriaren eta gainerako gizartearen arteko harremanak hobetu egin direla uste dute politikoki euren burua ezkertiartzat duten pertsonek, beren egoera ekonomikoari dagokionez pozik daudenek eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek; nolanahi ere, azken kolektibo horri dagokionez, zer deritzoten ez adierazteko erabakia hartzen duten pertsonen ehunekoa ere nabarmentzen da. Jatorri atzerritarreko pertsonen artean, halaber, nabarmengarria da jarrerarik ez dutela ehuneko esanguratsu batek.

Bestalde, langabezian dauden pertsonek eta beren egoera ekonomikoari dagokionez pozik ez daudenek uste dute Ijito Herriaren eta gainerako gizartearen arteko harremanek okerrera egin dutela.

**25. taula. Ijito Herriaren eta gainerako euskal gizartearen arteko harremanen balorazioa, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Hobera egin du | Berdin jarraitzen du | Okerrera egin du | ED | EE |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 30,6 | 49,0 | 3,5 | 16,0 | 1,0 |
| | Gizona | 30,9 | 54,2 | 3,7 | 11,1 | 0,1 |
| IKASKETAK | Ikask. gabe eta lehen mailakoak | 31,5 | 44,6* | 5,5* | 17,5 | 0,9 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 28,2 | 56,1 | 3,5 | 11,9 | 0,4 |
| | Goi-mailakoak | 32,9 | 52,5 | 2,0 | 12,1 | 0,4 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 29,2 | 49,8 | 5,5 | 14,3 | 1,2 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 31,7 | 50,0 | 5,1* | 12,5 | 0,7 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 29,9 | 55,1 | 1,7 | 13,1 | 0,3 |
| | Beste erlijio bat | 29,7 | 48,4 | 0,8 | 21,2 | |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 38,0* | 50,8 | 2,3 | 8,2* | 0,6 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 27,4 | 57,2 | 4,6 | 10,8 | |
| | Zentro-eskuinekoa | 26,2 | 56,7 | 2,8 | 14,3 | |
| | Eskuindarra | 37,1 | 54,3 | 2,8 | 5,9 | |
| GOGOBETE. EKONOM. | Ez dago pozik | 27,2 | 47,3 | 8,3* | 17,2 | |
| | Ez zaio axola | 26,4 | 56,3 | 3,4 | 12,9 | 0,9 |
| | Pozik dago | 37,1* | 48 | 2,8 | 11,8 | 0,3 |
| JARDUERA | Aktiboa | 31,8 | 52,4 | 3,1 | 12,2 | 0,6 |
| | Erretiratua | 31,0 | 49,0 | 3,5 | 15,6 | 0,9 |
| | Langabea | 25,3 | 55,5 | 6,3* | 12,8 | |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 26,2 | 57,1 | 5,0 | 11,7 | |
| | Ikaslea | 30,7 | 45,8 | 2,6 | 20,9 | |
| ESTATUSA | Altua | 30,5 | 64,7 | | 4,8 | |
| | Ertaina | 30,4 | 52,6 | 3,5 | 12,8 | 0,6 |
| | Baxua | 42,1* | 25,8* | 3,9 | 28,2* | |
| JATORRIA | Estatukoa | 31,2 | 52,0 | 3,8 | 12,5 | 0,5 |
| | Atzerritarra | 26,3 | 47,1 | 1,7 | 23,7* | 1,3 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*16. G. Zure ustez, Ijito Herriaren eta gainerako biztanleen arteko harremanak hobera egin al du azken 2 urteotan? Okerrera egin al du? Berdin jarraitzen al du?*

## Bizikidetza- eta harreman-kasuak

Ijitoekin bizikidetzan eta harremanetan aritzeko kasuei dagokienez, euskal gizarteak gai horri heltzeko zalantza handiak dituela eta jarrera argirik ez dagoela geratu da agerian.

32. grafikoan ikusten denez, ijitoek gizarteko gainerako pertsonekin harremanik nahi ez izateari dagokionez, iritziak oso banatuta daude; izan ere, gizartearen % 35,2k ez du halakorik pentsatzen, baina % 28,1, ordea, ados dago ideia horrekin. Ijitoen presentziak segurtasunik eza eta delinkuentzia sortzeko

arriskua dakarrela pentsatzeari dagokionez, antzeko egoera antzeman da: biztanleriaren % 42,5 ideia horren kontra dago; % 30, berriz, bat dator aurreiritzi horrekin.

Bestalde, ez da ahaztu behar biztanleriaren ia % 60 ez duela uste: ijitoek toki publikoak betetzen dituztela, horietan gehiegikeriak egiten dituztela eta horiek gaizki erabiltzen dituztela; era berean, gizartearen erdia baino gehiago (% 52,4) ijitoek gizalegerik ez dutelako pentsamenduaren kontra dago.

**32. grafikoa. Ijitoekin bizikidetzan eta harremanetan aritzeari buruzko pertzepzioak eta jarrerak (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*21. G-I, 17. G-D, 21. G-A, 17. G-F. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, ikasketa-maila, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (26. taula).

Planteatutako baieztapenei dagokienez, adostasun-mailarik baxuenak dituzte pertsona gazteenek (18-24 urte), ikasleek eta politikoki euren burua zentro-ezkertiartzat hartzen dutenek. Ildo horretan, erlijiozaleak ez diren pertsonak ere nabarmendu behar dira; izan ere, ijitoek segurtasunik eza eta delinkuentzia eragiten dutela eta gizalegerik ez dutela uste dute oro har halako pertsonek.

Aitzitik, lehen hezkuntzako ikasketak baino ez dituztenek edo ikasketarik ez dutenek, oro har, adostasun-maila altuagoak adierazten dituzte. 75 urtetik gorako pertsonek adostasun handiagoa adierazten dute ijitoen presentziak segurtasunik eza eta delinkuentzia eragiten dituela ulertzearekin; ildo beretik nabarmentzen dira pertsona katoliko praktikatzaileak ere, eta, gainera, ijitoek

arauak errespetatzen ez dituztela eta gizalegerik ez dutela dioen ideiarekin ados egotera jotzen dutelako ere nabarmentzen dira.

**26. taula. Ijitoekin bizikidetzan eta harremanetan aritzearekin oso ados edo ados dauden pertsonak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Ijitoek ez dute gizarteko gainerakoekin harremanik izan nahi | Ijitoen presentziak segurtasunik eza eta delinkuentzia eragiten ditu | Ijitoek ez dituzte arauak errespetatzen eta ez dute gizalegerik | Ijitoek toki publikoak betetzen dituzte, horietan gehiegikeriak egiten dituzte eta horiek gaizki erabiltzen dituzte |
|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 28,9 | 31,6 | 19,5 | 19,6 |
| | Gizona | 26,5 | 27,5 | 19,7 | 18,8 |
| ADINA | 18-24 | 10,7* | 18,1* | 7,1* | 7,2* |
| | 25-44 | 29,4 | 27,8 | 19,9 | 21,0 |
| | 45-64 | 28,3 | 30,0 | 20,7 | 20,2 |
| | 65-74 | 27,9 | 28,4 | 18,9 | 17,0 |
| | 75 baino gehiago | 32,1 | 40,3* | 23,6 | 21,2 |
| IKASKETAK | Ikask. gabe eta lehen mailakoak | 35,8* | 35,7 | 24,5* | 24,0* |
| | Bigarren mailako ikasketak | 22,4* | 25,8 | 17,8 | 16,2 |
| | Goi-mailakoak | 27,2 | 28,7 | 17,1 | 18,6 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 25,5 | 38,5* | 26,3* | 24,2 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 31,6 | 33,9 | 22,8* | 22,7* |
| | Agnostikoa edo ateoa | 24,8 | 23,8* | 14,6* | 15,1 |
| | Beste erlijio bat | 25,7 | 17,8 | 12,3 | 8,8 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 23,7 | 26,3 | 17,4 | 18,9 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 21,4* | 21,6* | 12,2* | 13,7* |
| | Zentro-eskuinekoa | 24,1 | 29,5 | 13,8 | 14,1 |
| | Eskuindarra | 36,9 | 44,3 | 30,0 | 35,8* |
| JARDUERA | Aktiboa | 26,8 | 28,5 | 19,5 | 19,8 |
| | Erretiratua | 31,1 | 34,9 | 20,5 | 18,7 |
| | Langabea | 33,7 | 28,8 | 22,5 | 20,1 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 22,6 | 23,6 | 24,3 | 24,0 |
| | Ikaslea | 10,1* | 15,4* | 6,4* | 11,4 |
| ESTATUSA | Altua | 39,5 | 18,5 | 24,3 | 27,1 |
| | Ertaina | 26,4 | 29,7 | 19,3 | 18,9 |
| | Baxua | 44,0* | 35,5 | 24,8 | 23,8 |
| JATORRIA | Estatukoa | 28,1 | 30,8 | 19,8 | 19,4 |
| | Atzerritarra | 25,1 | 19,8* | 18,3 | 17,8 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*21. G-I, 17. G-D, 21. G-A, 17. G-F. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Bestalde, pertsona katoliko ez-praktikatzaileak bereziki ados daude ijitoek arauak errespetatzen ez dituztelako ideiarekin, eta ijitoek toki publikoak betetzen dituztela, horietan gehiegikeriak egiten dituztela eta horiek gaizki erabiltzen dituztela pentsatzera ere jotzen dute.

Politikoki euren burua eskuindar gisa identifikatzen dutenak ados daude ijitoek toki publikoak gaizki erabiltzen dituztela uste izatearekin; eta estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonek, berriz, hein handiagoan uste dute ijitoek gainerako gizartearekin harremanik izan nahi ez dutela.

Azkenik, jatorri atzerritarreko pertsonek adostasun-maila baxuagoa adierazi dute ijitoek segurtasunik eza eta delinkuentzia sortzen dutelako ideiari dagokionez.

Ijitoekin bizikidetzan eta harremanetan aritzeko kasuen onarpen-mailarekin jarraituz, euskal herritar gehienek —hamar lagunetik bederatzik baino gehiagok—, adierazten dute ez daukatela arazorik lan- eta hezkuntza-testuinguruan ijitoekin harremanetan egotearekin, dela ijitoek goragoko rola —nagusia— edo parekoa —lankidea edo ikaskidea— izatearekin (% 93 eta % 91,1, hurrenez hurren); eta biztanleriaren % 80k baino gehiagok adierazten dute beren seme-alaben lagun gisa haur ijitoak etxean hartuko lituzketela (33. grafikoa).

**33. grafikoa. Ijitoekin bizikidetzan eta harremanetan aritzeko kasuen onarpen-maila (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*22. G. Zure eta ijitoen arteko harreman batzuk azalduko dizkizut orain. Esan, mesedez, kasu bakoitzean halako harreman bat onartzen ote duzun edo onartuko ote duzun, saihesten saiatuko zaren ala ez.*

Onarpen-maila nabarmen jaisten da, eta % 60 ingurukoa da. Alabaina, seme-alabentzat ijito adingabe asko dituen ikastetxe bat hautatzeari dagokionez, % 24 saiatuko litzateke halakorik ez hautatzen, eta % 13,7k, azkenik, adierazi du ez lukeela inolaz ere halako ikastetxerik hautatuko.

Azkenik, nabarmentzekoa da % 40k baino gutxiagok adierazi dutela ijito asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea onartuko luketela; beste % 40,9, aldiz, hori saihesten saiatuko lirateke, eta % 15,3k ez lukete halakorik onartuko.

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera eta jatorria (27. taula).

**27. taula. Ijitoekin bizikidetza eta harremanak izatea onartuko luketen pertsonak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Lanean nagusia ijito bat izatea | Ijitoekin lan egitea edo ikastea | Seme-alabek lagun ijitoak nire etxera eramatea | Seme-alabak haur ijito asko dituen ikastetxe batera eramatea | Ijito asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 92,5 | 90,6 | 80,4 | 52,1* | 35,5 |
| | Gizona | 93,5 | 91,7 | 83,9 | 62,6 | 42,0 |
| ADINA | 18-24 | 96,3 | 95,3 | 89,8 | 79,3* | 67,8* |
| | 25-44 | 94,4 | 93,8 | 86,7 | 59,0 | 44,1 |
| | 45-64 | 93,7 | 91,1 | 83,2 | 56,5 | 40,7 |
| | 65-74 | 91,6 | 91,3 | 76,7 | 56,1 | 20,0* |
| | 75 baino gehiago | 87,5 | 82,5 | 69,6* | 43,5* | 23,0* |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 83,2 | 77,1* | 61,5* | 49,2 | 30,5* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 94,0 | 92,8 | 80,6 | 52,1 | 27,9* |
| | Agnostikoa edo ateoa | 95,9 | 95,0 | 90,7 | 63,3 | 50,4* |
| | Beste erlijio bat | 88,6 | 88,6 | 83,4 | 69,7 | 59,6* |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 95,3 | 96,0 | 92,5 | 67,6 | 51,0* |
| | Zentro-ezkerrekoa | 93,5 | 92,7 | 84,3 | 58,3 | 38,5 |
| | Zentro-eskuinekoa | 91,1 | 89,1 | 81,2 | 51,6 | 28,5* |
| | Eskuindarra | 90,3 | 82,0 | 68,0 | 52,1 | 27,9 |
| JARDUERA | Aktiboa | 93,3 | 92,1 | 84,4 | 57,4 | 41,1 |
| | Erretiratua | 90,8 | 89,1 | 76,0 | 50,8 | 23,9* |
| | Langabea | 94,9 | 91,3 | 86,3 | 64,8 | 55,3* |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 88,5 | 77,0 | 68,2 | 46,9 | 23,3 |
| | Ikaslea | 100,0 | 99,3 | 89,6 | 81,9* | 70,7* |
| JATORRIA | Estatukoa | 93,5 | 91,7 | 82,0 | 55,6 | 36,4* |
| | | 88,5 | 86,2 | 82,2 | 70,8 | 58,3* |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*22. G. Zure eta ijitoen arteko harreman batzuk azalduko dizkizut orain. Esan, mesedez, kasu bakoitzean halako harreman bat onartzen ote duzun edo onartuko ote duzun, saihesten saiatuko zaren ala ez.*

Neurri handiagoan adierazten dute ijito asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea onartuko luketela pertsona gazteenek (18-24 urte), ez-erlijiozaleek, katolizismoaz bestelako erlijioren bat dutenek, politikoki euren burua ezkertiartzat dutenek, ikasten ari direnek, langabeek eta jatorri atzerritarrekoek. Beste muturrean, bereziki mesfidati ageri dira autoktonoak, 65 urte edo gehiago dituztenak, erretiratuak, katolikoak eta euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenak.

Bestalde, emakumeek eta adineko pertsonek mesfidantza-jarrera dute beren seme-alabak ikasle ijito asko dituen ikastetxe batera eramateari dagokionez; pertsona gazteenak eta ikasleak dira, alderantziz, jarrera horren aldekoak hein handienean.

Gutxienez 65 urte dituzten pertsonek eta katoliko praktikatzaileek hein txikiagoan onartzen dute beren seme-alabek etxera lagun ijitoak eramateko aukera; eta katoliko praktikatzaileak ere nabarmentzen dira ijitoekin lan egiteko edo ikasteko aukera neurri txikiagoan onartzeagatik.

## Ijitoen eta gainerako gizartearen arteko alderaketa

Jarraian, ijitoen eta EAEko gainerako biztanleen ezaugarri edo bereizgarri estereotipatuen alderaketari buruzko datuak aurkeztuko ditugu. Hala, EAEko biztanleek ez dute alde nabarmenik hautematen zenbait ezaugarritan, hala nola adeitasunean, elkartasunean, langintzan eta zintzotasunean. Nolanahi ere, gehiengo sozialak uste du ijitoak besteengandik bereizten direla matxismoari eta gatazkei dagokienez, matxistagoak (% 72,7) eta gatazkatsuagoak (% 51,3) izanik (34. grafikoa).

**34. grafikoa. Ijitoen eta gizarteko gainerakoen arteko ezaugarrien alderaketa (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*28. G. Nola ikusten dituzu ijitoak gizarteko gainerako pertsonekin alderatuta?*

## 28. taula. Ijitoen eta gainerako gizartearen arteko ezaugarrien alderaketa, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)

| | | Atseginak | | | Langileak | | | Matxistak | | | Solidarioak | | | Zintzoak | | | Gatazkatsuak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Gehiago | Berdin | Gutxiago | Gehiago | Berdin | Gutxiago | Gehiago | Berdin | Gutxiago | Gehiago | Berdin | Gutxiago | Gehiago | Berdin | Gutxiago | Gehiago | Berdin | Gutxiago |
| S./ Gen. | Emakumea | 1,4 | 73,3 | 16,0 | 0,5 | 61,2 | 29,6 | 76,0 | 15,9* | 0,1 | 1,3* | 60,6 | 19,0 | 0,6 | 58,9 | 25,5 | 52,3 | 41,0 | 1,3 |
| | Gizona | 2,5 | 74,8 | 18,6 | 1,0 | 59,1 | 33,8 | 69,1 | 24,8 | 0,3 | 4,8* | 59,9 | 21,6 | 1,1 | 65,3 | 24,7 | 50,4 | 44,5 | 1,0 |
| Adina | 18-24 | 2,2 | 76,4 | 16,4 | 2,7* | 76,9 | 15,4* | 55,6 | 38,3* | | 3,3 | 73,9 | 12,4 | 1,7 | 81,8* | 8,9* | 43,2 | 54,7 | |
| | 25-44 | 2,4 | 75,6 | 14,6 | 0,7 | 59,9 | 30,4 | 68,9 | 23,4 | 0,2 | 3,5 | 56,4 | 22,0 | 1,0 | 61,0 | 25,2 | 52,6 | 42,2 | 1,1 |
| | 45-64 | 1,2 | 73,4 | 20,7* | 0,1 | 59,6 | 32,6 | 79,1 | 16,3* | | 2,9 | 59,7 | 23,7 | 0,6 | 63,4 | 24,5 | 48,5 | 45,3 | 0,7 |
| | 65-74 | 2,5 | 74,3 | 14,8 | 1,0 | 59,6 | 34,3 | 77,0 | 16,3 | | 4,8 | 61,5 | 14,8 | 0,6 | 56,4 | 28,1 | 52,6 | 41,3 | 2,0 |
| | 75 baino gehiago | 2,1 | 70,6 | 16,6 | 1,2 | 53,2 | 37,8 | 69,0 | 17,1 | 1,0* | 0,0* | 61,7 | 16,8 | 0,9 | 54,6 | 32,2 | 59,3 | 31,7* | 2,2 |
| Ikasketak | Ikask. gabe eta lehen mail. | 1,8 | 71,1 | 19,3 | 1,4 | 56,1 | 33,9 | 67,6 | 20,3 | 0,5 | 2,3 | 55,5 | 21,4 | 1,4 | 55,8 | 30,4* | 51,5 | 40,0 | 1,0 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 0,9 | 76,4 | 17,1 | 0,5 | 64,0 | 28,4 | 71,0 | 24,2 | 0,2 | 3,1 | 66,0 | 18,6 | 0,3 | 68,0 | 21,8 | 49,9 | 45,6 | 1,3 |
| | Goi-mailakoak | 3,2 | 73,8 | 15,5 | 0,4 | 59,3 | 33,2 | 79,2 | 15,5* | | 3,6 | 58,0 | 21,1 | 0,9 | 60,6 | 24,2 | 52,8 | 41,8 | 1,0 |
| Erlijioa | Katoliko praktikatzailea | 1,1 | 65,4 | 23,9* | 0,6 | 55,1 | 35,6 | 72,8 | 16,9 | 1,0* | 0,8 | 56,7 | 18,4 | | 59,1 | 27,1 | 56,8 | 34,0 | 3,6* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 1,9 | 73,6 | 17,2 | 0,5 | 55,1 | 36,2* | 73,7 | 18,8 | 0,2 | 3,8 | 57,5 | 21,2 | 1,0 | 58,1 | 27,1 | 51,5 | 41,1 | 1,5 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 2,4 | 77,0 | 15,2 | 1,2 | 67,8 | 25,8 | 75,1 | 20,8 | | 3,4 | 63,6 | 20,3 | 0,7 | 66,2 | 23,2 | 51,4 | 45,9 | 0,0* |
| | Beste erlijio bat | 1,8 | 80,7 | 10,5 | | 56,3 | 27,0 | 45,1* | 39,3* | | | 63,3 | 17,2 | 2,8 | 67,3 | 15,5 | 35,9 | 54,8 | |
| Ideologia | Ezkertiarra | 2,3 | 76,8 | 15,6 | | 65,0 | 28,1 | 76,4 | 16,8 | | 6,9* | 59,2 | 20,8 | 0,9 | 69,8 | 18,7 | 48,2 | 46,5 | |
| | Zentro-ezkerrekoa | 1,8 | 77,6 | 14,4 | 0,5 | 64,0 | 29,2 | 71,1 | 24,7 | | 2,7 | 68,2 | 17,3 | 0,4 | 66,8 | 24,1 | 50,8 | 44,9 | 1,3 |
| | Zentro-eskuinekoa | 1,8 | 72,8 | 17,8 | 0,5 | 58,0 | 32,0 | 66,0 | 22,7 | 0,4 | 2,2 | 60,9 | 14,8 | | 60,2 | 23,9 | 52,2 | 38,8 | 2,0 |
| | Eskuindarra | 3,7 | 65,9 | 19,9 | 1,7 | 49,3 | 43,7 | 82,1 | 13,4 | | 1,7 | 57,7 | 27,7 | 0,9 | 53,8 | 35,2 | 63,5 | 31,5 | 3,1 |
| Gogobet. ekonom. | Ez dago pozik | 5,4* | 68,1 | 22,4 | 0,8 | 57,5 | 31,1 | 75,6 | 20,7 | 0,7 | 0,7 | 50,7 | 30,3* | 1,3 | 58,1 | 32,4 | 51,8 | 38,4 | 3,3* |
| | Ez zaio axola | 2,3 | 75,0 | 17,0 | 1,1 | 62,1 | 31,5 | 72,5 | 20,6 | | 3,4 | 60,9 | 21,3 | 0,4 | 62,9 | 25,8 | 52,0 | 42,8 | 0,7 |
| | Pozik dago | 0,8 | 75,1 | 15,7 | 0,3 | 59,9 | 31,2 | 72,5 | 20,0 | 0,3 | 3,2 | 62,1 | 16,9 | 1,3 | 62,7 | 22,1 | 50,3 | 44,4 | 1,1 |
| Jarduera | Aktiboa | 1,3 | 74,9 | 17,4 | 0,5 | 60,3 | 30,9 | 74,3 | 19,9 | | 3,4 | 58,9 | 22,0 | 0,9 | 62,5 | 23,8 | 52,5 | 42,1 | 1,0 |
| | Erretiratua | 3,4 | 73,0 | 15,7 | 1,0 | 55,9 | 36,3 | 74,9 | 16,2* | 0,5 | 2,4 | 61,4 | 16,3 | 0,7 | 57,4 | 29,4 | 54,2 | 38,0 | 2,0 |
| | Langabea | 2,2 | 74,1 | 20,4 | 1,2 | 62,3 | 30,7 | 70,6 | 24,9 | 0,8 | 3,5 | 60,3 | 25,9 | 1,4 | 61,4 | 29,2 | 43,2 | 52,8 | |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | | 65,4 | 17,8 | | 58,8 | 28,9 | 51,6 | 17,7 | | | 44,5 | 22,5 | | 51,2 | 20,1 | 58,1 | 28,8 | |
| | Ikaslea | 1,7 | 74,4 | 17,5 | 0,9 | 79,5 | 15,1* | 57,3 | 38,0* | | 2,5 | 78,7 | 10,5 | | 90,6* | 9,4* | 33,8 | 64,7* | |
| Estatusa | Altua | | 58,9 | 33,2* | | 56,1 | 36,0 | 92,1 | 0,0* | | | 46,5 | 14,2 | | 48,5 | 36,1 | 70,1 | 22,0 | |
| | Ertaina | 2,0 | 74,8 | 16,9 | 0,8 | 60,3 | 32,0 | 73,5 | 20,1 | 0,2 | 3,3 | 60,9 | 20,3 | 0,9 | 62,7 | 24,6 | 51,5 | 42,8 | 1,3 |
| | Baxua | | 65,7 | 19,6 | | 54,8 | 27,7 | 55,7 | 25,9 | | 0,6 | 54,5 | 19,4 | | 55,9 | 28,7 | 49,1 | 41,2 | |
| Jatorri | Estatukoa | 2,0 | 74,3 | 17,1 | 0,8 | 60,0 | 32,3 | 75,4 | 18,4* | 0,2 | 3,0 | 60,5 | 20,4 | 0,8 | 62,2 | 25,1 | 52,3 | 42,2 | 1,0 |
| | Atzerritarra | 1,7 | 71,8 | 18,2 | | 61,9 | 25,1 | 48,2* | 36,2* | 0,7 | 2,8 | 58,1 | 18,5 | 1,3 | 60,1 | 25,1 | 42,5 | 47,5 | 2,0 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*
*28. G. Nola ikusten dituzu ijitoak gizarteko gainerako pertsonekin alderatuta?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketa-maila, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (28. taula).

Emakumeek uste dute hein txikienean ijitoak «ijito ez direnak bezain matxistak» eta «ijito ez direnak baino solidarioagoak» direla. Gizonek, bestalde, ijitoak «ijito ez direnak baino solidarioagoak» direla deritzote joera handiagoz.

Gazteek hein txikiagoan uste dute ijitoak «ijito ez direnak bezain langileak ez» direla, eta neurri handiagoan adieraztera jotzen dute, bestalde, ijitoak «ijito ez direnak bezain matxistak» eta «ijito ez direnak bezain zintzoak» direla. Bestalde, adineko pertsonen artean gutxiago dira ijitoak «ijito ez direnak bezain gatazkatsuak» direla uste dutenak.

Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, berriz, gutxiago dira pentsatzen dutenak ijitoak «ijito ez direnak bezain matxistak» direla, baina gehiago, ordea, ijitoak «ijito ez direnak bezain zintzoak ez» direla uste dutenak.

Katolikoek hein handiagoan dituzte iritzi hauek ijitoei buruz: «ijito ez direnak bezain langileak ez», «ijito ez direnak bezain langileak ez» eta «ijito ez direnak bezain gatazkatsuak ez» dira. Bestalde, erlijiozalea ez den pertsona batek ere ez du uste ijitoak ez direnik gainerakoak bezain gatazkatsuak, eta katolizismoaz bestelako erlijioren bat duten pertsonek neurri txikiagoan uste dute ijitoak «ijito ez direnak baino matxistagoak» direla.

Politikoki euren burua ezkertiartzat duten pertsonek joera handiagoa dute ijitoak «ijito ez direnak baino solidarioagoak» direla pentsatzeko.

Beren egoera ekonomikoari dagokionez pozik ez daudela esan duten pertsonek ijitoak «ijito ez direnak baino atseginagoak» baina «ijito ez direnak bezain solidarioak ez» eta «ijito ez direnak bezain zintzoak ez» direla pentsatzeko joera dute.

Erretiratuak hein txikiagoan daude ados ijitoak «ijito ez direnak bezain matxistak» direlako ideiarekin; ikasleek, berriz, hein txikiagoan uste dute ijitoak «ijito ez direnak bezain langileak ez» eta «ijito ez direnak bezain matxistak ez» direla.

Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonek joera handiagoa dute ijitoak «ijito ez direnak bezain atseginak ez» direla pentsatzeko, eta inork ez du pentsatzen «ijito ez direnak bezain matxistak» direnik.

Azkenik, pertsona autoktonoek joera txikiagoa dute «ijitoak ijito ez direnak bezain matxistak» direla pentsatzeko, eta, aldi berean, jatorri atzerritarreko

pertsonak nabarmentzen dira, hain zuzen ere, horren inguruan adostasun handiagoa dutelako.

## Ijitoen aurkako diskriminazioaren pertzepzioa

Atal honetan ijitoek zenbait esparrutan pairatzen duten diskriminazioaren pertzepzioarekin lotutako gaiak jorratuko dira. Hala, txostenaren lehen blokean azaldu den bezala, euskal gizartearen ia % 70ak uste du ijitoa izateagatiko diskriminazioa oso edo asko zabalduta dagoela Euskadin; biztanleriak, izan ere, gure gizarte-testuinguruan gehien zabalduta dagoen diskriminazio-mota dela uste du (13. grafikoa).

Jendearen ustez, eta koherentziari eutsiz, ijitoa izatea da desparekotasun-tratua jasotzera –eta horrenbestez, kaltea pairatzera– hein handienean bultzatzen duen ezaugarria (15. grafikoa)[17]. Era berean, alabak edo semeak ijito batekin harreman sentimentala izateko aukerari dagokionez, euskal gizarteak batez besteko erosotasun bereziki neurritsua du (5,8 puntu batez beste, 1etik 10era bitarteko eskala batean) (5. grafikoa).

35. grafikoan ikusten denez, aurrekoa guztia gorabehera, biztanleriaren gehien-gehiengoak defendatu egiten du euskal gizarteak Ijito Herriari babesa eman beharko liokeela diskriminazioaren aurkako borrokan (% 86,3). Ildo horretan, gehiago dira, halaber, Ijito Herriak pairatzen dituen zailtasunak kolektibo horrek historikoki jasan izan duen diskriminazioaren ondorio direla uste dutenak (% 65,6) eta komunitate horrek ikusezintasun soziala pairatzen duela identifikatzen dutenak (% 60,1).

Iritzi soziala zatituta dago, ordea, ijitoenganako diskriminazioa iraganeko kontua ote den baloratzeari dagokionez; izan ere, % 54,4k ez du uste diskriminazio hori gainditu denik, eta % 28,7ren ustez, ordea bai.  Aldi berean, biztanleriaren ia erdiak uste du ijitoen aurkako arbuioa ijitoen jarrera eta portaeragatik justifikatzeko modukoa dela batzuetan (% 46,3), eta % 33,1 ez dago ados baieztapen horrekin.

[17] 7. G.-ri (*Zure ustez, pertsona batek zer ezaugarri izan behar ditu berdin tratatua ez izateko eta, beraz, kaltea pairatzeko?*) emandako erantzuna. (iradokizunez egindako galdera, hau da; hau da, inkestatuari ezaugarrien zerrenda bat ematen zaio eta horien artean bat hautatu behar du).

**35. grafikoa. Ijitoen aurkako diskriminazio-egoeren inguruko pertzepzioak eta jarrerak (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*21. G-J, 15. G-F, 15. G-D, 17. G-C, 15. G-A. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, ikasketa-maila, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (29. taula).

Ijito Herriaren aurkako diskriminazioa iraganeko arazo bat dela eta gaur egun jada ez dirauela uste dute neurri handiagoan 65 urtetik gorako pertsonek, erretiratuek, lehen hezkuntzako ikasketak dituztenek edo ikasketarik ez dutenek, katoliko praktikatzaileek, politikoki euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenek eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek.

Aitzitik, gazteek, goi-mailako ikasketak dituztenek, erlijiozaleak ez direnek, politikoki euren burua ezkertiartzat dutenek, lanean aktibo daudenek eta beren egoera ekonomikoari dagokionez pozik daudela adierazten dutenek arbuio handiagoa diote uste horri.

Ez dute uste ijitoek gizartean ikusezintasuna jasaten dutenik katoliko praktikatzaileek, politikoki euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenek eta jatorri atzerritarrekoek. Beste muturrean, pertsona ez-erlijiozaleek eta politikoki euren burua ezkertiartzat dutenek gizartearen ikusezintasuna gehiago aitortzeko joera dute.

**29. taula. Ijitoen aurkako diskriminazioarekin lotutako baieztapenekin oso ados edo ados dauden pertsonak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)**

| | | Euskal gizarteak Ijito Herriari babesa eman beharko lioke diskriminazioaren aurkako borrokan | Orokorrean, gizartean ijitoen existentzia eta errealitateak ezkutatzeko joera dago | Ijitoen aurkako arbuioa ijitoen jarrera eta portaeragatik justifikatzeko modukoa da batzuetan | Ijito Herriak pairatzen dituen zailtasunak kolektibo horrek historikoki jasan izan duen diskriminazioaren ondorio dira | Lehen ijitoak diskriminatuta zeuden baina gaur egun jada ez |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXUA/ GENEROA | Emakumea | 85,0 | 56,3 | 46,0 | 64,7 | 28,4 |
| | Gizona | 87,8 | 63,1 | 46,1 | 65,1 | 29,0 |
| ADINA | 18-24 | 90,8 | 66,5 | 31,2* | 72,7 | 15,9* |
| | 25-44 | 87,6 | 58,3 | 45,0 | 62,0 | 20,8* |
| | 45-64 | 86,5 | 61,6 | 46,3 | 64,6 | 26,1 |
| | 65-74 | 84,0 | 58,9 | 48,9 | 64,6 | 39,0* |
| | 75 baino gehiago | 82,6 | 54,0 | 53,7 | 68,5 | 50,6* |
| IKASKETAK | Ikask. gabe eta lehen mail. | 83,3 | 56,6 | 51,2 | 61,9 | 41,5* |
| | Bigarren mailako ikasketak | 88,5 | 62,9 | 41,3 | 69,6 | 28,7 |
| | Goi-mailakoak | 86,3 | 58,5 | 47,2 | 62,3 | 17,3* |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 84,2 | 45,5* | 53,2 | 62,5 | 39,2* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 83,4 | 60,7 | 52,7* | 68,5 | 30,7 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 89,4 | 67,1* | 38,3* | 66,7 | 23,4* |
| | Beste erlijio bat | 90,0 | 42,4 | 29,7 | 43,0* | 23,2 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 94,7 | 78,9* | 37,9 | 71,8 | 17,4* |
| | Zentro-ezkerrekoa | 88,8 | 64,7 | 42,6 | 70,6 | 33,1 |
| | Zentro-eskuinekoa | 86,1 | 43,0* | 43,3 | 60,1 | 38,4* |
| | Eskuindarra | 81,9 | 63,2 | 62,3 | 53,6 | 36,5 |
| GOGOBETE. EKONOM. | Ez dago pozik | 87,6 | 51,0 | 45,6 | 57,0 | 30,9 |
| | Ez zaio axola | 87,1 | 58,0 | 48,4 | 66,6 | 32,0 |
| | Pozik dago | 85,8 | 64,4 | 43,4 | 66,0 | 24,7* |
| JARDUERA | Aktiboa | 87,2 | 61,1 | 45,6 | 64,9 | 22,6* |
| | Erretiratua | 84,3 | 57,3 | 50,6 | 66,6 | 43,9* |
| | Langabea | 90,3 | 61,7 | 40,0 | 60,6 | 23,4 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 72,4 | 36,3 | 56,9 | 50,9 | 33,3 |
| | Ikaslea | 86,9 | 63,8 | 32,2 | 72,4 | 18,4 |
| ESTATUSA | Altua | 73,5 | 36,4 | 41,0 | 51,5 | 12,0 |
| | Ertaina | 86,0 | 59,8 | 46,3 | 65,6 | 27,9 |
| | Baxua | 90,5 | 56,9 | 53,0 | 60,2 | 47,4* |
| JATORRIA | Estatukoa | 86,2 | 61,5 | 46,9 | 66,1 | 29,4 |
| | Atzerritarra | 86,8 | 44,0* | 39,4 | 55,8 | 22,7 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*121. G-J, 15. G-F, 15. G-D, 17. G-C, 15. G-A. Esan, mesedez, ados ote zauden hurrengo esaldien edukiarekin.*

Ijitoen aurkako arbuioa batzuetan haien jarrera eta portaeragatik justifikatuta dagoela uste dute, hein handiagoan, katolikoek, eta neurri nabarmen txikiagoan, berriz, 18-24 urtekoek eta erlijiozaleak ez direnek.

Azkenik, katolizismoaz bestelako erlijioren bat duten pertsonek ez dute uste Ijito Herriak pairatzen dituen zailtasunak kolektibo horrek historikoki jasan izan duen diskriminazioaren ondorio direnik.

## Ijitoek zenbait esparrutan pairatzen duten diskriminazio-egoerari buruzko pertzepzioa

Lehen ere ikusi dugunez, hamar pertsonatik ia hiruk adierazi dute norbait kontratatu beharko balute, prestakuntza eta esperientzia berdineko hainbat hautagairen artean, saiatuko liratekeela ijitorik ez kontratatzea edo ez luketela ijitorik kontratatuko (% 26,9) (16. grafikoa). Era berean, nabarmendu du hamar pertsonatik lauk baino gehixeagok (% 43,5) zera aitortzen dutela, alokatzeko etxebizitza bat izanez gero, ez luketela alokatuko edo ez lioketela alokatuko ijito bati (17. grafikoa).

Ijitoek hainbat esparrutan pairatzen duten diskriminazioaren inguruko pertzepzioari dagokionez, lan-esparruan eta etxebizitza-esparruan hautematen dute euskal biztanleek diskriminaziorik handiena; zehazki, % 90ek diskriminazioa sumatzen dute etxebizitza-esparruan, eta % 87,6k, ordea, lan-esparruan. Gainera, nabarmengarria da beste bi esparrutan ere diskriminazioa hautematen dela: batetik, tratu polizialean (% 68,2k diskriminazioa hautematen du); bestetik, toki publikoetan (% 68,9k diskriminazioa hautematen du).

Beste muturrean, EAEko biztanleek ijitoen aurkako diskriminazioa hein txikienean hautematen duten esparruak honako hauek dira: garraio publikoa (% 50,6k diskriminazioa hautematen du), osasunerako sarbidea eta osasun-zerbitzuak (% 49,2k diskriminazioa hautematen du) eta administrazio publikoko bulegoetan jasotako arreta (% 52,4k diskriminazioa hautematen du) (36. grafikoa).

**36. grafikoa. Ijitoek hainbat esparrutan pairatzen duten diskriminazio-egoerari buruzko pertzepzioa (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*13. G. Zure ustez, ijitoak diskriminatu egiten al dira ondoren adierazitako esparruetan?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, ikasketa-maila, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (30. taula).

Ijitoen aurkako diskriminazio-egoera gehiago ikusi dituztela adierazteko joera dute pertsona gazteenek, goi-mailako ikasketak dituztenek, erlijiozaleak ez direnek, politikoki euren burua ezkertiartzat dutenek eta ikasleek.

Ijitoen aurkako diskriminazioa neurri txikiagoan hautematen dutela adierazten dute, hala eta guztiz ere, pertsona zaharrenek, erretiratuek, ikasketa gutxien dituztenek, katolikoek, politikoki euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenek eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek.

Bestalde, jatorri atzerritarreko pertsonek eta katolizismoaz bestelako erlijioren bat duten pertsonek ijitoen kontrako diskriminazioa hein txikiagoan hautematen dutela adierazten dute, lan-esparruari eta etxebizitza-esparruari dagokienez.

## 30. taula. Ijitoak hainbat esparrutan oso eta aski diskriminatuta daudela uste duten pertsonak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)

| | | Etxebizitza-esparrua | Lan-esparrua | Poliziaren tratua | Parte-hartze sozialerako eta politikorako sarbidea | Komunikabideen eta Interneten esparrua | Zure auzoan edo komunitatean | Lagunen edo pertsona ezagunen artean | Hezkuntza-esparrua | Aisialdirako, kulturarako eta kiroletarako guneetan | Toki publikoetan | Administrazio publikoaren esparrua | Osasun-esparrua | Garraio publikoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S./ Gen. | Emakumea | 64,6 | 53,6 | 26,4 | 20,8 | 18,0 | 17,1 | 19,8 | 13,7 | 14,1 | 16,7 | 11,2 | 7,4 | 8,7 |
| | Gizona | 61,3 | 50,4 | 29,5 | 21,5 | 18,7 | 14,6 | 16,9 | 16,1 | 14,3 | 15,1 | 12,2 | 9,0 | 8,8 |
| Adina | 18-24 | 74,6 | 70,1* | 47,7* | 33,8* | 43,6* | 20,8 | 24,1 | 20,4 | 22,4* | 26,1* | 24,4* | 13,2 | 15,0* |
| | 25-44 | 63,8 | 54,9 | 36,6* | 29,4* | 23,4* | 21,2 | 21,6 | 22,4* | 21,8* | 20,9* | 17,3* | 13,3* | 14,7* |
| | 45-64 | 64,4 | 49,6 | 22,1* | 20,7 | 16,8 | 14,3 | 16,9 | 14,3 | 12,8 | 13,8 | 10,8 | 6,6 | 8,6 |
| | 65-74 | 57,8 | 48,7 | 19,8* | 10,8* | 9,8* | 8,7* | 14,2 | 6,8* | 5,2* | 9,9 | 3,9* | 3,2* | 0,0* |
| | 75 baino gehiago | 55,7 | 45,6 | 20,7* | 6,6* | 5,1* | 12,5 | 16,1 | 4,0* | 4,9* | 10,4 | 1,5* | 3,1* | 1,0* |
| Ikasketak | Ikask. gabe eta lehen maila. | 52,6* | 42,9* | 22,5* | 16,9 | 10,3* | 13,8 | 16,3 | 11,3 | 10,1* | 9,5* | 7,3* | 5,3 | 4,7* |
| | Bigarren mailako ikasketak | 65,4 | 54,3 | 27,8 | 18,1 | 19,3 | 14,0 | 16,3 | 13,0 | 12,9 | 16,9 | 11,3 | 7,2 | 7,9 |
| | Goi-mailakoak | 69,2 | 57,9 | 32,8 | 28,6* | 24,4* | 20,0 | 22,8 | 20,2* | 19,4* | 20,6* | 15,9* | 11,9* | 13,4* |
| Erlijioa | Katoliko praktikatzailea | 50,8* | 39,7* | 13,0* | 9,3* | 7,6* | 8,4* | 13,0* | 9,6 | 4,9* | 9,8 | 3,6* | 3,9* | 5,2 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 62,0 | 50,1 | 24,1* | 18,0 | 12,9* | 12,4* | 14,0* | 11,7 | 11,1 | 15,3 | 9,2 | 6,2 | 8,2 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 71,3* | 61,7* | 37,6* | 29,2* | 28,7* | 22,4* | 25,6* | 19,8* | 20,2* | 19,1* | 16,6* | 11,2* | 10,7 |
| | Beste erlijio bat | 44,6* | 31,2* | 24,9 | 14,5 | 13,0 | 10,9 | 12,9 | 13,7 | 12,6 | 10,5 | 9,0 | 7,8 | 8,6 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 72,2 | 60,5 | 38,0* | 37,9* | 29,0* | 19,9 | 24,6 | 24,9* | 24,8* | 20,0 | 24,2* | 14,8* | 12,6* |
| | Zentro-ezkerrekoa | 68,6 | 56,7 | 33,2 | 19,6 | 22,8 | 12,3* | 15,3* | 16,1 | 14,4 | 17,1 | 8,4 | 8,4 | 8,3 |
| | Zentro-eskuinekoa | 47,4* | 40,2* | 17,7* | 7,9* | 9,0* | 13,1 | 12,4* | 6,8* | 5,3* | 14,8 | 3,5* | 2,4* | 4,1* |
| | Eskuindarra | 60,8 | 55,1 | 21,7 | 24,6 | 15,3 | 17,2 | 15,2 | 10,0 | 15,2 | 20,7 | 15,3 | 11,2 | 10,6 |
| Jarduera | Aktiboa | 65,6 | 53,9 | 28,4 | 24,2 | 20,5 | 16,4 | 19,7 | 17,8 | 17,6* | 16,1 | 12,9 | 9,3 | 11,1* |
| | Erretiratua | 57,1 | 46,0 | 21,3* | 9,8* | 8,7* | 12,3* | 14,9* | 6,3* | 5,9* | 10,4* | 4,2* | 3,6* | 0,9* |
| | Langabea | 63,4 | 52,9 | 40,1* | 32,1* | 24,6 | 22,7 | 19,8 | 21,0 | 17,8 | 23,3* | 20,8* | 14,8* | 14,8* |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 47,6 | 35,5 | 7,6* | 6,3 | 4,9 | 7,9 | 16,1 | 7,6 | 6,2 | 12,8 | 6,2 | 6,2 | 9,7 |
| | Ikaslea | 74,6 | 74,5* | 47,1* | 38,3* | 44,7* | 20,5 | 22,8 | 22,1 | 20,5 | 32,5* | 24,9* | 10,3 | 14,7 |
| Estatusa | Altua | 72,8 | 61,3 | 19,9 | 17,2 | 14,6 | 6,8 | 21,2 | 17,5 | 2,2 | 6,8 | | 7,5 | 12,4 |
| | Ertaina | 65,0 | 54,2 | 29,1 | 21,6 | 19,0 | 16,5 | 19,4 | 15,5 | 14,9 | 16,9 | 12,5 | 8,4 | 9,1 |
| | Baxua | 30,9* | 19,4* | 13,5* | 12,5 | 4,9* | 10,0 | 8,2* | 3,6* | 6,7 | 5,1* | 1,1* | 3,1 | 1,2* |
| Jatorri | Estatukoa | 65,0 | 54,0 | 28,5 | 21,7 | 19,0 | 16,4 | 18,7 | 15,1 | 14,3 | 16,2 | 12,3 | 8,4 | 8,6 |
| | Atzerritarra | 46,7* | 37,0* | 23,3 | 16,9 | 12,8 | 12,0 | 16,2 | 12,9 | 13,2 | 13,8 | 6,6 | 6,7 | 9,9 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*
*13. G. Ijitoak esparru eta leku horietan diskriminatzen direla uste al duzu?*

## Ijitoei dagokienez aitortutako zeharkako diskriminazio-egoerak

Zeharkako diskriminazioko esperientziei dagokienez –pertsona diskriminazio-moduren baten lekuko denean, alegia, baina zuzeneko biktima izan gabe–, biztanleriaren % 40k baino gehiagok ijitoren bati buruzko iruzkin negatiboen edo zurrumurruen lekuko izan dela adierazi du, eta % 34k baino gehiagok isekak, txantxak, txisteak, imitazioak edo antzekoak ikusi dituela (37. grafikoa).

Gainera, adierazgarria da % 21,1ek ijitoen kontrako irainak ikusi izana, % 12,5ek mehatxuak eta % 10,7k eraso fisikoak.

Era berean, komeni da ez gutxiestea honako egoera hauetan izan direla elkarrizketatuak: ijito bat kontuan ez hartzeko, parte hartzen ez uzteko edo isolatzeko jardunbideak ikustea (% 8,2); ikusgarritasun faltari buruzko dinamiken lekuko izatea (% 7,5ek); eskola-jazarpeneko kasuak ezagutzea (% 4,4k); eta laneko jazarpeneko kasuen berri izatea (% 3).

**37. grafikoa. Ijitoei dagokienez aitortutako zeharkako diskriminazio-egoerak (ehunekoak)**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*23. G. Ijito baten kontrako diskriminazio-egoera hauetakoren bat entzun edo ikusi al duzu noizbait?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: sexua/generoa, adina, ikasketa-maila, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (31. taula).

Ijitoen aurkako diskriminazio-egoera gehiago ikusi dituztela adierazteko joera dute pertsona gazteenek, goi-mailako ikasketak dituztenek, erlijiozaleak ez direnek, politikoki euren burua ezkertiartzat dutenek, ikasten ari direnek eta langabeek.

## 31. taula. Ijitoei dagokienez aitortutako zeharkako diskriminazio-egoerak, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (ehunekoak)

| | | Norbaiti buruzko iruzkin negatiboak edo zurrumurruak | Isekak, txantxak, txisteak, imitazioak, keinuak, norbaiten aurrean | Irainak | Mehatxuak | Eraso fisikoak | Ez ikusiarena egitea, parte hartzen ez uztea, isolatzea, etab. | Ikusezin bihurtzea | Eskola-jazarpena (bullyinga) | Lan-jazarpena (mobbinga) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S./Gen. | Emakumea | 43,0 | 33,0 | 20,0 | 11,9 | 9,8 | 7,9 | 7,7 | 4,9 | 3,0 |
| | Gizona | 45,4 | 35,0 | 22,2 | 13,2 | 11,6* | 8,6 | 7,2 | 3,9 | 3,1 |
| Adina | 18-24 | 56,9 | 51,4* | 42,6* | 18,8* | 16,2* | 9,6 | 13,7 | 11,8* | 4,6 |
| | 25-44 | 47,9 | 38,8 | 28,8* | 18,3* | 12,8* | 11,8 | 12,2* | 6,4 | 4,5 |
| | 45-64 | 44,0 | 33,0 | 18,7 | 11,9 | 11,1 | 7,2 | 5,9 | 3,5 | 3,0 |
| | 65-74 | 39,2 | 28,5 | 12,5* | 7,4 | 7,7 | 7,3 | 1,6* | 0,9* | 1,0 |
| | 75 baino gehiago | 34,1* | 21,6* | 6,7* | 3,0* | 4,5 | 3,1* | 3,2* | 1,9 | 0,9 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 34,0* | 21,5* | 13,8* | 8,3 | 7,3 | 6,4 | 6,0 | 3,6 | 3,8 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 48,9 | 39,9* | 20,2 | 12,8 | 11,6 | 8,6 | 6,2 | 4,4 | 2,9 |
| | Goi-mailakoak | 47,8 | 38,3 | 28,5* | 16,0* | 12,6* | 9,4 | 10,2 | 5,2 | 2,5 |
| Erlijioa | Katoliko praktikatzailea | 31,5* | 21,3* | 13,0* | 11,9 | 8,5 | 6,3 | 3,4* | 2,6 | 0,8 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 39,4 | 31,8 | 17,7 | 11,9 | 11,0 | 7,2 | 6,7 | 3,4 | 3,7 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 54,4* | 41,7* | 27,2* | 12,6 | 10,1 | 9,8 | 9,9 | 6,2 | 3,1 |
| | Beste erlijio bat | 37,7 | 31,6 | 23,7 | 18,7 | 15,1 | 6,7 | 4,9 | 5,9 | 4,1 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 51,1 | 36,0 | 28,5* | 17,0* | 11,3 | 13,8* | 14,2* | 6,7 | 6,5* |
| | Zentro-ezkerrekoa | 49,6 | 40,9* | 20,6 | 10,7 | 9,3 | 6,1 | 6,8 | 4,4 | 1,8 |
| | Zentro-eskuinekoa | 41,9 | 32,7 | 14,0 | 9,5 | 8,3 | 6,0 | 4,5 | 3,1 | 1,7 |
| | Eskuindarra | 35,7 | 30,8 | 19,0 | 8,2 | 15,4 | 10,3 | 7,7 | 6,8 | 3,6 |
| Gogobet. ekonom. | Ez dago pozik | 51,8 | 34,2 | 30,4* | 17,0 | 12,8 | 12,1 | 11,9 | 5,1 | 6,8* |
| | Ez zaio axola | 43,6 | 33,7 | 18,4 | 10,9 | 10,1 | 8,1 | 5,7* | 3,4 | 2,7 |
| | Pozik dago | 42,6 | 34,7 | 21,7 | 13,4 | 10,7 | 7,6 | 8,6 | 5,5 | 2,6 |
| Jarduera | Aktiboa | 45,5 | 35,6 | 23,1 | 13,2 | 10,6 | 7,7 | 7,8 | 4,7 | 2,4 |
| | Erretiratua | 39,3 | 26,5* | 10,5* | 5,7* | 6,6 | 5,7 | 3,5* | 2,3* | 1,8 |
| | Langabea | 50,6 | 38,3 | 31,5* | 23,9* | 19,8* | 19,2* | 16,9* | 8,0 | 9,5* |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 21,7* | 16,9 | 5,3 | 2,5 | 6,1 | | | | |
| | Ikaslea | 56,9 | 60,1* | 47,2* | 27,5* | 19,0* | 11,0 | 11,9 | 9,8 | 5,6 |
| Estatusa | Altua | 51,4 | 51,1 | 31,5 | 29,4* | 21,9 | | | | |
| | Ertaina | 45,5 | 35,3 | 21,2 | 12,6 | 10,7 | 8,6 | 7,7 | 4,6 | 2,9 |
| | Baxua | 20,5* | 10,1* | 14,1 | 5,6 | 5,0 | 2,5 | 3,9 | 3,9 | 3,9 |
| Jatorri | Estatukoa | 44,5 | 34,6 | 21,1 | 11,9 | 10,5 | 8,4 | 7,6 | 4,5 | 3,0 |
| | Atzerritarra | 40,8 | 28,1 | 20,7 | 18,3* | 12,0 | 6,3 | 6,4 | 3,7 | 3,0 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*
*23. G. Ijitoren baten kontrako diskriminazio-egoera hauetakoren bat entzun edo ikusi al duzu noizbait?*

Aitzitik, ijitoen aurkako diskriminazio-egoera gutxiago ikusi dituztela adierazteko joera dute adineko pertsonek, erretiratuta daudenek, lehen hezkuntzako ikasketak dituztenek edo ikasketarik ez dutenek, katoliko praktikatzaileek eta estatus sozioekonomiko baxua dutenek.

Horrez gainera, hauek ere ikusten dira: gizonek gehiago aitortzen dute eraso fisikoak ikusi izan dituztela; beren egoera ekonomikoarekin pozik ez dauden pertsonek hein handiagoan adierazten dute irainak ikusi izan dituztela; eta jatorri atzerritarreko pertsonek neurri handiagoan esaten dute mehatxuen lekuko izan direla.

## Ijitoenganako irekitasuna

Azken epigrafe hau gizarte osoak ijitoengana duen irekitasuna aztertzera bideratu dugu; lehenik eta behin, sinpatia- eta tolerantzia-mailari buruz ariko gara, eta, ondoren[18], zehaztasun handiagoko azterketa batean sakonduko dugu (aurkibide sintetiko bat egingo dugu horretarako).

### Ijitoenganako sinpatia-maila

Inkesta egin zaien pertsonei ijitoek pizten dieten sinpatia-mailari buruz galdetu eta 0tik 10era bitarteko eskala batean ipintzeko eskatu diegunean (0 «batere sinpatiarik ez» izango litzateke; 10, berriz, «sinpatia handia»), emaitzak neurritsuak dira. Horrela, lortutako batez besteko puntuazioa 10etik 5,79 puntukoa da (38. grafikoa).

**38. grafikoa. Ijitoenganako sinpatia-maila: batez besteko puntuazioa, 0tik (sinpatiarik ez) 10era (sinpatia handia) bitarteko eskala batean.**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*18. G. Esan, mesedez, 0tik 10era bitarteko eskala batean, ijitoek pizten dizuten sinpatia, kontuan hartuta 0 «batere sinpatiarik ez» izango litzatekeela eta 10, berriz, «sinpatia handia».*

[18] Tolerantzia terminoa zuhurtziaz erabiltzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu; izan ere, ikuspegi asimilazionistekin lotutako konnotazioak egotz dakizkioke, eta ez gaude ikuspegi horrekin ados. Horrelakorik gerta ez dadin, hainbeste zalantza sortzen ez dituen beste termino batzuk erabiltzea da aukera bat, adibidez, errespetua. Alabaina, kasu zehatz honetan, tolerantzia terminoari eustea erabaki dugu, oso erabilgarria delako, gizartearen iruditeria partekatuarekin erraz konektatzen delako eta biztanleriaren jarreren gaineko informazio interesgarria lortzeko aukera ere ematen digulako.

Aldagai soziodemografikoen araberako erantzun-desberdintasunek erakusten dutenez, sinpatia-maila altuagoak dituzte 64 urtetik beherako pertsonek, bigarren mailako ikasketak dituztenek, erlijiozaleak ez direnek, katolizismoaz bestelako erlijioren bat dutenek, politikoki euren burua ezkertiartzat dutenek, enplegatuek, langabeek, ikasleek, estatus sozioekonomiko ertainekoek eta jatorri atzerritarrekoek (32. taula).

**32. taula. Ijitoenganako sinpatia-maila, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera: batez besteko puntuazioa, 0tik (sinpatiarik ez) 10era (sinpatia handia) bitarteko eskala batean**

| | | Sinpatia-maila ertaina |
|---|---|---|
| SEXUA/GENEROA | Emakumea | 5,82 |
| | Gizona | 5,75 |
| ADINA | 18-24 | 7.05* |
| | 25-44 | 6.14* |
| | 45-64 | 5.63* |
| | 65-74 | 5,43 |
| | 75 baino gehiago | 5,12 |
| IKASKETAK | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 5,56 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 5.97* |
| | Goi-mailakoak | 5,78 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 5,55 |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 5,51 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 6.05* |
| | Beste erlijio bat | 6.79* |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 6.26* |
| | Zentro-ezkerrekoa | 5,6 |
| | Zentro-eskuinekoa | 5,76 |
| | Eskuindarra | 6,16 |
| JARDUERA | Aktiboa | 5.82* |
| | Erretiratua | 5,43 |
| | Langabea | 6.11* |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 5,54 |
| | Ikaslea | 7.06* |
| ESTATUSA | Altua | 5,07 |
| | Ertaina | 5.83* |
| | Baxua | 5,22 |
| JATORRIA | Estatukoa | 5,7 |
| | Atzerritarra | 6.58* |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*18. G. Esan, mesedez, 0tik 10era bitarteko eskala batean, ijitoek pizten dizuten sinpatia, kontuan hartuta 0 «batere sinpatiarik ez» izango litzatekeela eta 10, berriz, «sinpatia handia».*

## Ijitoekiko tolerantzia: kokapen indibiduala eta kolektiboa

Ondoren, ijitoekiko tolerantziaren pertzepzioari buruzko datuak aurkezten dira, nola tolerantzia pertsonalari dagokionez, hala gizarte osoaren tolerantziari gagozkiola. Horrela, biztanleei ijitoekiko tolerantzia-maila galdetzean lortutako batez besteko puntuazioa 6,65 puntukoa da. Gizarteak ijitoekin duen tolerantzia-mailaren balorazioari dagokionez, tolerantzia-pertzepzioak batez besteko puntuazio txikiagoa lortu du: 5,3 puntu (39. grafikoa).

**39. grafikoa. Ijitoekiko tolerantzia, kokapen indibiduala eta kolektiboa —batez besteko puntuazioa, 0tik («inolako tolerantziarik ez») 10era («erabateko tolerantzia») bitarteko eskala—**




*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*24. G. Pentsatu ijitoekiko tolerantzia neurtzeko 0tik 10era bitarteko eskala batean; non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan izanik 0tik «zeharo intolerantea» dela eta 10, berriz, «oso tolerantea»?*

*25. G. Eta non kokatuko zenuke, berriz, euskal gizartea ijitoekiko tolerantzia neurtzeko eskala batean, kontuan izanik 0tik «zeharo intolerantea» dela eta 10, berriz, «oso tolerantea»?*

Aldagai hauek erantzun-desberdintasun estatistikoki esanguratsuak dituzte: adina, ikasketak, erlijiozaletasun-maila, ideologia politikoa, lan-jarduera, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, estatus sozioekonomikoa eta jatorria (33. taula).

Honako hauek nabarmentzen dira jarrera toleranteagoa adierazteagatik: gazteak, hirugarren mailako ikasketak dituztenak, erlijiozaleak ez direnak, katolizismoaz bestelako erlijioren bat dutenak, politikoki euren burua ezkertiartzat dutenak, beren egoera ekonomikoari dagokionez pozik daudela adierazten dutenak, egoera horri dagokionez pozik ez daudela aitortzen dutenak, enplegatuak, ikasleak, estatus sozioekonomiko ertainekoak eta jatorri atzerritarrekoak.

Gizarteak orokorrean duen jarreraren pertzepzioari dagokionez, oro har, gizartea toleranteagoa dela uste dute 45-64 urteko pertsonek, hirugarren mailako ikasketak dituztenek, katoliko praktikatzaileek, politikoki euren burua zentro-eskuinarekin identifikatzen dutenek eta estatus sozioekonomiko altua ez dutenek.

**33. taula. Ijitoekiko tolerantzia, kokapen indibiduala eta kolektiboa, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera —batez besteko puntuazioa, 0tik («inolako integraziorik ez») 10era («erabateko integrazioa») bitarteko eskala—**

| | | Jarrera pertsonala | Gizarte-jarrera orokorra |
|---|---|---|---|
| SEXUA/GENEROA | Emakumea | 6,64 | 5,34 |
| | Gizona | 6,66 | 5,25 |
| ADINA | 18-24 | 7,59* | 5,39 |
| | 25-44 | 7,07* | 5,26 |
| | 45-64 | 6,51* | 5,38* |
| | 65-74 | 6,28 | 5,31 |
| | 75 baino gehiago | 5,93 | 5,08 |
| IKASKETAK | Ikasketarik gabe eta lehen mailakoak | 6,43 | 5,35 |
| | Bigarren mailako ikasketak | 6,69 | 5,45* |
| | Goi-mailakoak | 6,80* | 5,08 |
| ERLIJIOA | Katoliko praktikatzailea | 6,45 | 5,58* |
| | Katoliko ez-praktikatzailea | 6,38 | 5,28 |
| | Agnostikoa edo ateoa | 6,91* | 5,2 |
| | Beste erlijio bat | 7,14* | 5,52 |
| IDEOLOGIA | Ezkertiarra | 7,01* | 5,07 |
| | Zentro-ezkerrekoa | 6,56 | 5,27 |
| | Zentro-eskuinekoa | 6,43 | 5,54* |
| | Eskuindarra | 6,95 | 4,99 |
| GOGOBETETASUN EKONOMIKOA | Ez dago pozik | 7,03* | 5,46 |
| | Ez zaio axola | 6,49 | 5,24 |
| | Pozik dago | 6,73* | 5,31 |
| JARDUERA | Aktiboa | 6,79* | 5,32 |
| | Erretiratua | 6,19 | 5,18 |
| | Langabea | 6,65 | 5,25 |
| | Etxekoandrea / etxeko gizona | 6,57 | 5,67 |
| | Ikaslea | 7,78* | 5,51 |
| ESTATUSA | Altua | 5,93 | 4,51 |
| | Ertaina | 6,69* | 5,32* |
| | Baxua | 6,24 | 5,27* |
| JATORRIA | Estatukoa | 6,6 | 5,27 |
| | Atzerritarra | 7,09* | 5,51 |

*Iturria: geuk egina, Neurtu 2022 azterlanean funtsatuta.*

*24. G. Pentsatu ijitoekiko tolerantzia neurtzeko 0tik 10era bitarteko eskala batean; non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan izanik 0tik «zeharo intolerantea» dela eta 10, berriz, «oso tolerantea»?*

*25. G. Eta non kokatuko zenuke, berriz, euskal gizartea ijitoekiko tolerantzia neurtzeko eskala batean, kontuan izanik 0tik «zeharo intolerantea» dela eta 10, berriz, «oso tolerantea»?*

## Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizea 2022

Atal honetan, eta gizarteak ijitoei buruz dituen jarrerak laburbiltze aldera, indize sintetiko bat egin da, inkestatutako pertsona bakoitzak, bereziki, eta gizarteak, oro har, ijitoei dagokienez eta Ijito Herriaren errealitateari gagozkiola duen irekitasun-maila laburbiltzen —neurtzen— duena.

Indize horri Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizea (2022) deitu diogu, eta inkestatutako pertsona bakoitzak inkestako 35 itemi emandako erantzunetan oinarritzen da. 0tik 100era bitarteko puntuazioa baliatzen du. Horrela, 0 puntura jotzen duten puntuazioek jarrera, jokabide, iritzi eta portaera nabarmen itxi eta baztertzaileak adieraziko lituzkete, eta 100 puntura jotzen duten puntuazioek, berriz, ijitoekin eta Ijito Herriaren errealitatearekin ageriki ireki, tolerante eta inklusiboak diren jarrerei legozkieke.

Diseinu kuantitatiboaren mugak jakinda ere, egia da horrek zenbakizko neurketa zehatzagoa ahalbidetzen digula, aldagaien arteko erlazio esanguratsuak hautematen laguntzeaz gain, baita profilak eta tipologiak ezartzea eta horien osaera kuantifikatzea ere, aztertu beharreko fenomenoaren bilakaeraren ikuskapena errazten digula ahaztu gabe.

Indize kuantitatibo bat eratzeak birtualtasun hau du: informazio asko lantzeko eta sintetizatzeko aukera ematen digu, portaera iragartzeko aldagaiak —aldagai bereizleak— detektatzen ditu, iritzi eta jarrera bereizgarriei lotutako tipologia soziodemografikoak ezartzen ditu eta etorkizuneko bilakaeraren luzetarako jarraipena egitea ahalbidetzen digu.

Horrela, gizarteak 0tik 100era bitarteko puntuazio-*continunuum* batean duen jarrera laburbiltzeko indize bat sortu dugu; zehazki, ijitoekiko jarrerei puntuazio zehatz bat eman zaie. Gure asmoa ez da puntuazio horrek gizartearen jarrera zehatz-mehatz isla dezan. Aitortzen dugu hurbilketa bat dela, besterik gabe, inkesten teknikak mugak baititu; alabaina, baliabide horren segidako erabilerak fenomenoaren bilakaeraren ezagutza fidagarria ahalbidetuko digu.

Baskula batekiko erkaketa baliatuta, pisu baten neurketa baliozkoa izango dela esango dugu baldin eta benetako pisua islatzen badu; fidagarria izango dela esango dugu, berriz, baldin eta pisu horren ondorengo neurketetan antzeko emaitzak ematen baditu. Tara (alborapena) duen baskula batek baliteke neurketa guztiz zehatza edo baliozkoa ez egitea, baina tara (alborapena) berbera badu, hurrengo pisaketen bilakaera ikusteko aukera emango digu. Izan ere, antzeko zerbait gertatzen da inkestarekin: agian ez du zehazki neurtzen gizarteak ijitoekin eta Ijito Herriaren errealitateekin duen jarrera, gure sinesmenen unibertsoarekin zerikusia duten gai pertsonaletan inkestaren teknikak hainbat isuri sartzen dituelako, hala nola desiragarritasun pertsonala (normalean, gure izaerari buruz dugun irudia hobea izaten da geure benetako

izaera baino), desiragarritasun soziala (gure inguruneak geuri buruz zer-nolako irudia izatea nahi genukeen) eta jarrera politikoki zuzenak (gizarteak gaitzesten ez dituenak); isuri horiek gorabehera, oso teknika baliagarria da, fidagarritasun handia izaki gertaera sozial baten bilakaera neurtzeko, inkesta denboran errepikatuz gero betiere.

Laburbilduz, uste dugu 35 itemetan oinarritutako indize hori hurbilketa behar adina baliagarria dela une jakin batean biztanleriak ijitoekin duen iritzia eta jarrerak neurtzeko (zeharkako neurketa), baita iritzi eta jarrera horiek etorkizunean izango duten bilakaera ikuskatzeko baliabide fidagarri bat ere (luzetarako neurketa).

Ijito Herriarenganako irekitasunaren euskal indize hau (2022) etapa hauen bidez eratu da:

1. Aldagai garrantzitsuak hautatzea: hasiera batean, inkestako 62 aldagai hautatu genituen, kontsultatutako pertsonek ijitoei buruz zituzten jarrerak, usteak, iritziak eta/edo jokabideak jasotzen zituztenak.

2. Aldagaiak birkodetzea: behar zuten aldagaiak birkodetzeari ekin genion, zentzu berean neur zezaten.

3. Arakatze-osagai nagusien faktore-analisien segida bat aplikatzea Neurtu 2022 inkestaren datu-basean[19]. Lehen faktore-analisi horiek arakatze-jomugaz aplikatzen ditugu, aldagai errepikakorrak eta/edo bereizketa gutxi eragiten dutenak identifikatzeko helburua izaki, halakoak baztertze aldera. Azkenean 35 aldagairekin geratu gara.

4. Osagai nagusien lehen faktore-analisi bat aplikatzea, berrespen gisa. Lehen faktore-analisi horretan funtsatuta, ijitoekiko jarreraren barne-egitura osatzen duten zortzi faktore edo alderditara murriztu genituen aldagai horiek.

[19] Arakatze-osagai nagusien lehen faktore-azterketa horren bidez, aldagai jakin batzuk ezabatu eta araztu nahi izan ditugu, hala nola aldagai errepikakorrak; gainerakoekin alderdietan taldekatzeko behar besteko loturarik ez dutenak; ateratako faktoreengatik behar bezala azaldu edo jaso gabeko aldakortasuna dutenak; edo aldakortasun txikia —hots, bereizketa-gaitasun gutxi— dutenak. Hala, azterketan barne hartutako 49 aldagaietako 15 baztertzea erabaki genuen, irudiaren aurkako korrelazio-koefizienteetan nahi ez diren balioak zituztelako, laginaren egokitzapen-neurria (MSA) kalkulatzean bana-bana lortutako balio baxuak eta/edo komunalitate txikiak dituztelako, edo hautatutako beste aldagai batzuekin informazio errepikakorra ematen dutelako.

5. Osagai nagusien bigarren faktore-analisi bat aplikatzea, bigarren mailakoa, aurreko azterketan ateratako zortzi alderdiei. Faktore-analisi horren bidez,inkestan parte hartzen duen pertsona bakoitzak ijitoengana duen jarreran alderdi horietako bakoitzak duen pisua hierarkizatu eta haztatu ahal izan genuen.

6. Indize partzialak eta ijitoekiko irekitasunaren indize sintetikoa kalkulatzea. Kasu bakoitzak faktore bakoitzarekin dituen faktore-puntuazioetatik abiatuta —hau da, detektatutako zazpi eremu edo alderdietako bakoitzean duen maila edo posizioan funtsatuta—, indize partzialak kalkulatuko ditugu eta, faktore bakoitzak azaldutako bariantza osoan duen pisuan oinarrituta, indize sintetiko globala kalkulatuko dugu.

Osagai nagusien azterketatik ondorioztatzen da biztanleriak ijitoei dagokienez duen jarrera oinarrizko zortzi alderdi hauetan oinarritzen dela:

1. *Eremu publikoko diskriminazioaren* esparrua: biztanleria gehien diskriminatzen duen alderdia (bariantza edo aldakortasun handiena dagokio) ijitoekiko jarrerek eta jokabideek osatzen dute, harreman publikoetako toki edo lekuetan —hala nola garraioaren erabileran, aisialdiko, kulturako eta kiroletarako guneetan, osasun-zerbitzuetarako sarbidean eta erabileran, espazio publikoan, polizia-tratuan eta abarretan— pairatzen duten diskriminazio potentzialari dagokionez. Alderdi horri biztanleen artean gertatzen den guztizko aldakortasunaren % 20,16 dagokio.

2. *Estereotipoen* esparrua: aurreiritziekin eta estereotipoekin zerikusia duten alderdi guztietan (adibidez, babes ofizialeko etxebizitzak erabiltzea, gizarte-laguntzak jasotzea eta seme-alaben prestakuntza akademikoarekin eta abarrekin lotutako zenbait alderdi) biztanleriak ijitoei buruz duen jarrera eta iritziak jasotzen ditu. Alderdi horri bariantza osoaren % 15,96 dagokio.

3. *Irudi sozialaren* esparrua: alderdi hau lotuta dago biztanleriak ijitoen irudi sozialari dagokionez duen jarrerarekin eta iritziekin: gizarteko gainerakoak baino solidarioagoak, adeitsuagoak, zintzoagoak eta/edo langileagoak ote diren ala, aitzitik, ez hainbeste. Bariantza osoaren % 8,11 biltzen du alderdi horrek.

4. *Hezkuntza*-esparrua: alderdi hau hezkuntza-eremuan ijitoekin izandako harremanaren inguruan gizarteak duen jarrera jasotzen duten itemez osatuta dago: beren seme-alabek irakasle ijitoak izatea, ikaskide ijitoekin ikastea, irakasleentzako prestakuntza-modulu bat egotea Ijito Herriaren historiari eta kulturari buruz, etab. Alderdi horrek guztizko aldakortasunaren % 5,08 biltzen du.

5. Eremu *pertsonalaren* esparrua: biztanleriak ijitoekin lan egiten edo ikasten duenean, ijito bat nagusi duenean eta antzeko beste egoera batzuetan bere eremu pertsonala partekatzeko (beraiek ez ezik, beren seme-alabek ere bai) duen prestasun-mailara garamatza alderdi horrek. Bariantza osoaren % 4,48 biltzen du eremu horrek.

6. *Portaera*-esparrua: biztanleriak ijito bati etxebizitza bat alokatzeko, ijito bat kontratatzeko, auzo edo eraikin berean ijitoekin bizitzeko eta abarretarako duen prestasunarekin lotutako jarreraren eta iritziaren portaera-alderdiaz hitz egiten digun alderdia da. Faktore horrek guztizko aldakortasunaren % 4,04 biltzen du.

7. *Integrazioaren* esparrua: alderdi honek ijitoen gizarteratzearekin lotutako gaiak —hala nola ijito ez direnek eta ijitoek egin beharreko ahalegin partekatua, integrazio eraginkor baten onura sozial orokorra, diskriminazioaren aurka borrokatu beharra eta aukera-berdintasuna bermatu beharra— planteatzen zaizkionean gizarteak hartzen dituen jarrerak eta jarrerak jasotzen ditu. Guztizko aldakortasunaren % 3,29 biltzen duen alderdia da.

8. *Eremu pribatuko diskriminazioaren* esparrua: herritarrek ijitoei dagokienez duten jarrera eta iritzia jasotzen ditu, etxebizitza eskuratzearen, lana lortzearen eta adiskideen esparruetan kolektibo horrek pairatzen duen diskriminazioarekin zerikusia duen alderdi orotan. Alderdi horrek biltzen du biztanleriaren artean dagoen guztizko aldakortasunaren % 2,71.

Bigarren mailako osagai nagusien faktore-analisiari esker, alderdi horiek haztatu ahal izan ditugu Ijito Herriarenganako irekitasunaren 2022ko euskal indizea lortzeko (40. grafikoa).

**40. grafikoa. Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizearen (2022) alderdiak**




*Iturria: geuk egina.*
*Eranskinean zortzi alderdietako bakoitza osatzen duten aldagaien zerrenda osoa dago.*

Indize sintetikoaren balioa lortu ondoren, Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizea (2022) kalkulatzeko lehen urte honetan, euskal gizartea 54,36 puntura iritsi da, 0 puntutik 100 puntura bitarteko eskala batean. Gure ustez, bitarteko balio bat da. Indizeak agian espero genezakeena baino iritzi hobea islatzen duela esatera ausartuko ginateke. Horrela, balioa positiboki alboratuta dago akaso, desiragarritasun pertsonala, talde-desiragarritasuna edo nagusi den gizarte-diskurtsoa direla-eta; alabaina, bateragarria da hori Ikuspegik biztanleriaren beste gizatalde batzuekiko jarrera analizatzeko lantzen dituen beste jarrera-indize batzuek eskainitako balioekin. Honako hauei buruz ari gara:

- Euskal gizarteak jatorri atzerritarreko pertsonei dagokienez duen tolerantziaren indizea, 2007az geroztik urtero kalkulatzen dena. 2022an 69,28 puntu lortu zituen[20];

- aniztasunarekiko irekitasunaren indizea, 2020an egina Ikuspegik 2020an aniztasunari eta diskriminazioari buruz egindako inkestan lortutako datuetan oinarrituta. Indize horren helburua biztanleria kokatzea zen, mota guztietako aniztasunekiko pertzepzio, balorazio, jarrera eta iritziei dagokienez. Indize horrek 72,78 puntuko balioa eman zuen[21];

- sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea (2021), biztanleriak LGTBI kolektiboari eta sexu- eta genero-aniztasunari dagokienez duen jarrera neurtzen duena. Lehen inkesta honetan eta indize sintetiko batekiko lehen hurbilketan, populazioak 75,77 puntuko balioa lortu zuen[22].

Ikusten denez, herritarrek ijitoekin lotuta dituzten iritzi eta jarrerak beste kolektibo eta errealitate batzuei dagokienez erakusten dituztenak baino itxiago daude jatorri atzerritarreko pertsonei, gure gizarteko aniztasun orokorrari eta LGTBI pertsonei gagozkiela.

41. grafikoan ikusten denez, biztanleriaren banaketa ez da kurba normalaren oso desberdina, eta banaketa normal bat ematen digu. Banaketa horretan, gizartearen gehiengoa banaketaren tarteko balioetan kokatzen da, eta pertsona gutxik dituzte, hala, muturreko iritziak ijitoei dagokienez, nola

[20]Kontsultatu: Ikuspegi (2022). Barometroa 2022. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak. https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2022/bar2022_eus.pdf

[21]Kontsultatu: Ikuspegi (2020). Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerei buruzko inkestaren analisia. https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2020discriminacionCAEeus.pdf

[22]Kontsultatu: Ikuspegi (2022). Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak. https://www.ikuspegi.eus/documentos/neurtu/2021/neurtu2021eus.pdf

horienganako iritzi eta jarrera oso positibo eta inklusiboei dagokienez hala Ijito Herriarenganako iritzi eta jarrera erradikal eta baztertzaileei gagozkiela.

**41. grafikoa. Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizearen balioa (2022)**




*Iturria: geuk egina.*

Banaketa-modu horrek adierazten digu biztanleek ez dutela jarrera polarizaturik ijitoekin lotuta dituzten iritzien eta jokabideen inguruan:

- Ijitoei dagokienez jarrera itxi eta intoleranteena duten pertsonen % 10ek 0tik 42,05era bitarte puntu lortu dituzte;
- Beste horrenbeste gertatzen da banaketaren beste muturrean: 66,74-100 puntu lortu dituzte ijitoei buruzko jarrera positiboena duten pertsonen % 10ek.

Ijitoekiko jarrera eta iritzietan etorkizunean gerta litezkeen aldaketak hobeto ulertzeko, indize partzialak 0 puntutik 100 puntura bitarteko eskala batean berreskalatu ditugu. Era berean, etorkizunean gerta litezkeen aldaketak ikuskatu ahalko ditugu herritarrek ijitoei dagokienez dituzten jarreretan eta iritzietan honako esparru hauetan, eta diskriminazioarekin lotuta betiere: eremu publikoa, estereotipoak, irudi soziala, hezkuntza, eremu pertsonalagoa, portaera, integrazioa eta talde sozial pribatuena.

42. grafikoak zortzi alderdi horietan biztanleriak duen jarrera erakusten digu.

**42. grafikoa. Ijitoenganako irekitasunaren indize partzialen balioa zortzi alderdietan (2022)**




*Iturria: Guk geuk egina*

42. grafiko horretan ikusten denez, biztanleriak askotariko jarrerak ditu alderdiaren arabera: alderdi jakin batzuek balio altuak lortu dituzte, 90 puntu ingurukoak (nolanahi ere, baliteke planteatutako itemei emandako erantzunetan desiragarritasun sozialaren isuriak pixka bat gaindimentsionatu izana puntuazio hori); beste batzuek, aldiz, ozta-ozta gainditu dute 30 puntuko puntuazioa.

Bereziki deigarriak dira, oso puntuazio desberdinak dituztela ikusirik, batetik, *eremu pertsonala* deitu diogun alderdia, non biztanleriaren jarrera 90,12 punturaino iristen den alderik tolerante eta inklusiboenean, eta *diskriminazioa esparru publikoan* deritzona, berriz, 32,24 punturaino.

Indize globalera itzuliz, hau da, Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizea (2022) delakora, portaerak diskriminatzen dituzten eta banakako jarrerak azaltzeko gai diren aldagai soziodemografikorik existitzen ote den jakiteko, lehenik eta behin, bi aldagaiz osaturiko analisi bat egin dugu (batetik, mendeko aldagai batekin eta, bestetik, aldagai independente batekin lan egin behar da, beraz, faktore baten ANOVA analisi bat aplikatuz). Analisi hori, mugatua izanik ere, ezinbestekoa da, aldagai anitzeko beste edozein analisiren aurretik gauzatu beharrekoa. Mugatua da aldagai soziodemografiko independente batek elkarren artean elkarreragiten duten beste aldagai batzuen efektua edo eragina ezkutatzeko arriskua dakarrelako. Adibidez, batzuetan, aldagai batzuk oso lotuta daude elkarren artean, eta zaila da bakoitzaren eginkizuna bi aldagaietako analisi batean bereiztea; aldagai anitzeko analisietan, ordea, bakoitza bere lekuan jartzen da. Ijitoekin lotutako iritzi eta jarrerekin zerikusia duten gaiak aztertzean, oso onargarria da pentsatzea, adibidez, «adina» eta «hezkuntza-maila» aldagaiak daudela tartean beharbada, aldagai horiek bereizita aztertuz

gero, baliozkoak izan daitezen portaerak diskriminatzeko (adibidez, gazteenak jarrera irekiagoekin eta inklusiboagoekin lotu ohi dira, eta zaharrenak, ordea, jarrera itxiagoekin, eta prestakuntza txikiagoa duten pertsonak prestakuntza handiagoko pertsonak baino toleranteagoak izaten direla pentsatu ohi da), baina baterako azterketa egiten dugunean, espero izatekoa da aldagai horietakoren batek azalpen-gaitasuna lausotzea, bi aldagaiak oso lotuta baitaude gure biztanlerian: populazio-talde gazteenen prestakuntza-maila askoz handiagoa da, oro har, adin handiagoko populazioena baino. Eta beste horrenbeste gertatzen da beste aldagai soziodemografiko batzuekin ere.

Ondoren, eta bigarrenik, aldez aurreko aldagai bakarreko analisiak eta bi aldagaiko analisiak osatzeko eta datuen interpretazioan sakontzeko, aldagai anitzeko metodologiak aplikatu ditugu, lagungarriak baitira aldagai guztien arteko harremanak hobeto ulertzeko, iragartzeko gaitasun handiagoa dutenak nabarmentzeko; halako analisiek, izan ere, aldagai guztien ondorio gurutzatuak saihestu eta neutralizatzen dituzte, gizarteak ijitoei dagokienez duten jarreraren errealitatea hobeto ezagutzeko aukera emateaz gain.

Gurutzaketa-aldagai —edo aldagai potentzialki bereizle— gisa, honako hauek hartu ditugu kontuan: sexua/generoa, adina, bizileku-lurraldea, ikasketak, erlijioa, euskalduntasuna, ideologia, identitate-sentimendua, hileko diru-sarrerak, egoera ekonomiko pertsonalarekiko gogobetetasuna, jarduera eta estatus sozioekonomikoa.

Aldagai horiek ijitoekiko duten irekitasun-mailarekin duten harremanaren bi aldagaiko analisiak adierazten digu estatistikoki esanguratsuak diren aldeak daudela gizarteko pertsonen azpitaldeen artean: kolektibo batzuk argi eta garbi irekiak eta toleranteak dira (puntuazio altuagoak lortu dituzte), eta beste batzuek, berriz, ijitoekiko jarrera eta iritzi itxiagoak eta intoleranteagoak dituzte (puntuazio baxuagoak). Laburpena 1. taulan aurkezten dugu; hona hemen ondorioak:

- 18-24 urteko pertsonak nabarmen irekiagoak dira ijitoekin (62,54 puntu) 65-74 urteko pertsonak (52,10 puntu) eta 75 urteko eta gehiagoko pertsonak (49,58 puntu) baino

- nabarmen irekiagoak dira ijitoekin Araban bizi direnak (55,98 puntu) Bizkaian bizi direnak baino (53,65 puntu)

- nabarmen irekiagoak dira ijitoekin bigarren mailako ikasketak (55,56 puntu) eta unibertsitate-ikasketak (55,90 puntu) dituztenak, ikasketarik ez dutenak edo lehen mailakoak bakarrik direnak baino (51,08 puntu)

**34. taula. Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizearekin (2022) lotutako aldagaiak**

| Tolerantzia-atalase baxuena duten pertsonen profila | Aldagaia | Esangura | Tolerantzia-atalase altuena duten pertsonen profila |
|---|---|---|---|
| 65 urte eta gehiago | Adina | 0,000 | 18-24 urte |
| Bizkaia | Lurraldea | 0,017 | Araba |
| Ikasketarik gabe edo lehen mailakoak | Ikasketak | 0,000 | Bigarren mailakoak eta unibertsitatekoak |
| Katoliko praktikatzailea eta ez-praktikatzailea | Erlijioa | 0,000 | Beste erlijioren batekoak eta agnostikoak, ateoak edo axola ez zaienak |
| Ez-euskalduna | Euskara | 0,000 | Euskalduna |
| Eskuindarra | Ideologia | 0,000 | Ezkertiarra |
| Espainiarra | Identitate-sentimendua | 0.000 | Euskalduna |
| 1.001-1.800 € hileko etxean | Diru-sarrerak | 0,000 | 2.500 € baino gehiago hileko etxean |
| Erretiratuak eta etxea zaintzen dutenak | Jarduera | 0,000 | Ikasleak |
| Baxua | Estatusa | 0,000 | Batezbestekoa |

*Iturria: Guk geuk egina*

- ijitoei dagokienez askoz ere irekiagoak dira katolizismoaz bestelako erlijioren bat duten pertsonak (54,92 puntu) edo agnostikoak, ateoak edo erlijioa axola ez zaienak (57,62 puntu) katolikoek baino, praktikatzaileak izan (49,68 puntu) edo ez izan (52,75 puntu)

- nabarmen irekiagoak dira ijitoekin euskaldunak (55,72 puntu) euskaraz egiten ez dutenak baino (53,09 puntu)

- nabarmen irekiagoak dira ijitoekin ideologikoki euren burua ezkertiartzat dutenak (58,83 puntu), eskuindartzat dutenak baino (51,42 puntu)

- nabarmen irekiagoak dira ijitoekin beren burua euskal herritartzat jotzen dutenak —espainoltzat baino gehiago, behinik behin— (55,77 puntu) beren burua espainoltzat —euskal herritartzat baino gehiago, behinik behin— baino (49,69 puntu)

- nabarmen irekiagoak dira ijitoekin etxean hileko 2.500 euro baino gehiago sartzen dituzten pertsonak (56,42 puntu) hileko 1.001-1.800 euro sartzen dituztenak baino (51,96 puntu)

- nabarmen irekiagoak dira ijitoekin ikasleak (62,39 puntu) erretiratuak (51,32 puntu) edo etxea zaintzen ikasten dutenak (49,36 puntu) baino

- nabarmen irekiagoak dira ijitoekin estatus ertaineko pertsonak (54,79 puntu) estatus sozioekonomiko baxukoak baino (47,86 puntu)

Sexua/generoa eta norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasunaren aldagaiei dagokienez, ez dugu hauteman estatistikoki esanguratsuak diren jarrera-desberdintasunik.

Elkarreragin horiek garbitzeko eta balizko efektu konbinatuak neutralizatzeko, aldagai anitzeko metodologia aplikatu dugu: Elkarreraginen Detektagailu Automatikoa. Teknika hori aplikatuta, segmentazio-zuhaitz bat lortzen dugu, non bi hauek ikusten baitira: batetik, portaera iragartzeko eta bereizteko aldagaiak; eta, bestetik, ijitoekiko irekitasun- eta tolerantzia-maila handiagoko pertsonen azpitaldeei dagozkien segmentu edo tipologia batzuk. Horrez gain, ijitoekin jarrera, borondate eta iritzi itxiagoak eta intoleranteagoak dituzten pertsonez osatutako azpitaldeak ikustea ere ahalbidetzen digu.

Tipologia hori egiteko, 34. taulan agertzen diren aldagai berberak erabili ditugu, hala mendeko aldagaia —Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizean (2022) lortutako puntuazioa—, nola independenteak —adibidez, sexua/generoa, adina, bizileku-lurraldea, ikasketak, erlijioa, euskalduntasuna, ideologia, identitate-sentimendua, hileko diru-sarrerak, egoera ekonomiko pertsonalarekiko gogobetetasuna, jarduera eta estatus sozioekonomikoa—.

Aldagai anitzeko metodologia horren aplikazioak ez du zehatza edo eztabaidaezina izateko jomuga, hau da, ez dugu ijitoekiko jarrera eta iritzi ireki edo toleranteekin lotutako aldagaiei buruzko eztabaida itxi nahi; aitzitik, errealitatea ikusteko eta ulertzeko modu bat erakutsi nahi dugu, besterik gabe. Jakin badakigu proposatzen dugun tipologia, hain zuzen, horixe baino ez dela, tipologia bat, sartu ditugun aldagaien emaitza, jaso ditugun moduan. Zalantzarik gabe, analisi horiek egin aurretiko planteamendu metodologiko desberdin batek (adibidez, aurkibideaz bestelako eraketa bat, aintzat hartu ez ditugun aldagai independenteak sartzea, azterketan erabiltzen ditugun aldagai batzuk baztertzea eta analisi-parametro desberdinak hautatzea) mota edo segmentu desberdinetara eramango gintuzke, nola kopuruari dagokionez, hala deskribatzen dituzten ezaugarriei gagozkiela.

Analisiak adierazten digunez, portaerak aurreikusteko eta iritziak hobekien bereizteko, gure segmentazio-zuhaitza iragartzeko eta hori maila guztietan eratzeko hobekien balio izan duten aldagaiak honako hauek dira, garrantziaren arabera ordenatuta:

- lehen mailan, adina (esangura 0,000[23]); adina da iragartzeko aldagairik onena, bereizi egiten baititu 18-24 urteko pertsonak (ijitoekiko irekienak), 25-44 urteko pertsonak (tarteko jarrerarekin), 45-74

[23] Esangura-maila (p balioa).

urteko pertsonak (tartekoak horiek ere) eta 75 urteko eta hortik gorako pertsonak (ijitoekiko jarrera itxienak dituztenak).

- bigarren mailan, ideologia bereizlea da adinak osatzen dituen lau azpitaldeetako bitan (esangura 0,000 eta esangura 0,000) eta ikasketa-maila, berriz, azpitaldeetako beste batean (esangura 0,000).

- hirugarren mailan, berriz agertzen dira ideologia (esangura 0,034), erlijioa (esangura 0,015) eta etxeko hileko diru-sarrerak (esangura 0,004);

- laugarren mailan, diru-sarrerek (esangura 0,044), berriz ere, aurreko mailako azpitaldeetako bat —erlijioak osatua— bereizten dute;

- eta bosgarren mailan sexua/generoa aldagaia agertzen da (esangura 0,000) diru-sarrera altueneko pertsonen kolektiboa —aurreko mailan jasoa— bereizteko gaitasuna duen aldagai gisa.

Aldagai bereizle horiekin hamahiru mota edo segmentu lortu ditugu guztira, ijito-populazioarekiko jarrera eta iritzi onenetatik txarrenetara ordenatuta; honako hauek dira segmentu horiek:

1. 18-24 urteko pertsonak: 62,68 puntu lortu dituzte, eta EAEko biztanleen % 7,2 dira.

2. 25-44 urteko eta ideologia ezkertiarreko pertsonak: 60,66 puntu erdietsi dituzte eta EAEko biztanleriaren % 6,6 osatzen dute.

3. 45-74 urteko eta ideologia ezkertiarreko pertsonak: 57,35 puntu erdietsi dituzte eta EAEko biztanleriaren % 9,2 dira.

4. 25-44 urteko eta ideologia zentro-ezkertiarreko pertsonak: 57,03 puntu erdietsi dituzte eta EAEko biztanleriaren % 8,9 dira.

5. 25-44 urtekoak eta ideologia eskuindar edo zentro-eskuindarrekoak diren eta etxean hileko 2.500 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten pertsonak: 55,14 puntu erdietsi dituzte eta EAEko biztanleriaren % 7,7 dira.

6. 75 urteko edo hortik gorakoak diren eta gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak: 54,75 puntu erdietsi dituzte eta EAEko biztanleriaren % 4,2 dira.

7. 45-74 urte izanik zentro-ezkerreko, zentro-eskuineko edo eskuineko ideologiako duten eta agnostikoak, ateoak edo katolizismoaz

bestelako erlijioren batekoak diren (edota erlijioa axola ez zaien) pertsonak: 54,32 puntu erdietsi dituzte eta EAEko biztanleriaren % 11,9 dira.

8. Emakumeak, 45 eta 74 urte bitartekoak, zentro-ezker, zentro-eskuin edo eskuinekoak, katoliko praktikatzaileak edo ez-praktikatzaileak, hileko 1.800 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituztenak etxean: 53,56 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 12,8 dira.

9. 45 eta 74 urte bitarteko gizonak, zentro-ezker, zentro-eskuin edo eskuinekoak, katoliko praktikatzaileak edo ez-praktikatzaileak eta hileko 1.800 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituztenak etxean: 50,03 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 9,9 osatzen dute.

10. 25-44 urtekoak eta ideologia eskuindar edo zentro-eskuindarrekoak diren eta etxean hileko 2.500 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonak: 49,46 puntu erdietsi dituzte eta EAEko biztanleriaren % 6,3 dira.

11. 75 urte edo gehiago dituzten pertsonak, ikasketarik gabekoak edo lehen mailako ikasketak dituztenak, eta eskuineko, ezkerreko edo zentro-ezkerreko ideologia dutenak: 49,17 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 5,3 dira.

12. 45 eta 74 urte bitarteko pertsonak, zentro-ezker, zentro-eskuin edo eskuinekoak, katoliko praktikatzaileak edo ez-praktikatzaileak eta hilean 1.800 euroko edo gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak etxean: 48,38 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 5,7 osatzen dute.

13. 75 urte edo gehiago dituzten pertsonak, ikasketarik gabekoak edo lehen mailako ikasketak dituztenak eta eskuindarrak direnak: 44,18 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 4,4 dira.

Euskal populazioa hamahiru motatan, segmentutan edo azpitaldetan banatu ahal dela edo bestelako banaketak ere egin daitezkeela alde batera utzita, nabarmendu beharreko gaia ez da hori, baizik eta, agidanez, ijitoekiko jokabide, jarrera, sinesmen, iritzi eta balio gutxi gorabehera ireki eta toleranteak edo itxi eta intoleranteak aurreikusteko helburua duten aldagai garrantzitsu batzuk daudela. Eta alderdi horretan garrantzi berezia dute aldagai soziodemografiko hauek: adina, ideologia, hezkuntza-maila, etxeko diru-sarrerak edo erlijioa.

### 43. grafikoa. Segmentazio-zuhaitza eta ijitoekiko jarreren tipologiak




*Iturria: geuk egina.*

Egiaztatu dugunez, gizarteak ijitoei buruz dituen iritziak iragartzeko aldagai onena adina da: gazteenak nabarmentzen dira, ijitoekiko jarrera, adierazpen eta jarrera irekienak eta toleranteenak dituztelako. Adinak gora egin ahala, jarrerak itxiago eta baztertzaileago bihurtzen dira.

Era berean, alde esanguratsuak ikusi ditugu inkestatutako pertsonen joera ideologikoen arabera; izan ere, ideologikoki euren burua ezkertiartzat jotzen dutenek lortu dituzte puntuazio handienak gure Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizean (2022); eskuineko ideologia duten pertsonek, aitzitik, jarrera itxienak dituzte ijitoei dagokienez.

Hezkuntza-mailak erakusten digu, halaber, adin handieneko pertsonen artean, 74 urtetik gorakoen artean, portaera-desberdintasunak daudela, eta, beraz, bigarren mailako eta unibertsitateko ikasketak dituzten adin-talde horretako pertsonek jarrera eta jokabide irekiagoak eta toleranteagoak dituztela ijito-populazioarekin.

Diru-sarrerak, halaber, portaerak bereizteko gai dira, baita eta segmentuak zehazteko ekarpenak egiteko ere, diru-sarrera handiagoak dituzten pertsonak irekitasun eta inklusio handiagoa adierazi ohi baitute.

Azkenik, iragartzeko gaitasun txikiagoa badute ere, beste bi azpitalde bereizten dira: batetik, erlijioaren aldagaia, non pertsona agnostikoekin, ateoekin edo beste erlijioren batean sinesten duten pertsonekin lotuta baitaude jarrera irekienak; eta bestetik, sexua/generoa aldagaia, non segmentuetako batean emakumeek irekitasun handiagoa baitute.

Alabaina, bidezkoa da adieraztea segmentazio-zuhaitzak oinarri gisa hartzen dituen aldagai bereizleek azken bariantza —immigrazioari dagokionez jarrera ireki eta toleranteena duten pertsonen eta jarrera itxiena dutenen arteko aldeak— partzialki azaltzeko baino ez dutela balio.

Zehazki, aipatu berri dugun azterketan bariantza osoaren % 19,19 baino ez dugu justifikatzen, eta argi uzten dugu euskal biztanleriaren osagaien arteko alde asko beste aldagai batzuen bidez azaldu behar direla edo azaldu daitezkeela, batez ere aldagai psikosozialen eta nortasunarekin loturikoen bitartez.

Horrekin, orain arte deskribatutako aurkikuntzak erlatibizatu nahi ditugu, besterik gabe; izan ere, garrantzitsuak dira eta ijitoenganako jarreren eta iritzien fenomenoa hobeto ulertzeko balio digute, bai euskal gizartearenak, bai gure ingurune politiko, ekonomiko eta sozialeko beste populazio batzuenak, baina, orobat, jakin behar dugu biztanleria horrekiko jarrera ireki eta toleranteak iragartzeko eta azaltzeko duen gaitasuna mugatua dela.

## Talde handiak euskal biztanlerian

Segmentazioaren aldagai anitzeko teknika eta horren ondoriozko tipologiak oso grafikoak dira, eta aldagai soziodemografikoek portaera iragartzeko aldagai gisa duten zereginean sakontzeko ere balio dute. Baina egia da, halaber, teknikak ez direla oso sendoak eta, honenbestez, balitekeela ezarritako analisi-parametroek azken moten kopurua eta profila baldintzatzea (izan ere, baldintzatu egiten dute).

Ijitoenganako jarrerari eta iritziei dagokienez, EAEko biztanleriak ezagutza handiagoa izaten jarraitzeko, «euskal biztanlerian talde handiak» deitu dieguna finkatu dugu, haien jarreren eta iritzien arabera, Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizea 2022 delakoan ez ezik, euskal gizarteak aurreko atalean bereizi ditugun zortzi alderdietan dituen jarreretan ere bai (talde sozial horrekiko jarrera eta iritzi orokorragoak eta globalagoak sostengatzen dituzte alderdi horiek). Orain arte bereizi ditugun zortzi esparru edo alderdietako bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera sailkatu nahi izan da biztanleria ijitoekiko jarrerari dagokionez: diskriminazio publikoa, estereotipoak eta aurreiritziak, irudi soziala, hezkuntza, eremu pertsonala, portaera-esparrua, integrazioa eta diskriminazio pribatua.

Horretarako, aipatutako zortzi alderdiei dagozkien indize partzialak hautatu ondoren, aldagai anitzeko sailkapen-analisi bat —ez-hierarkikoa— aplikatu diegu. Hainbat proba egin ondoren[24], badirudi teknikaren kondizioak hobekien betetzen dituen sailkapen-soluzioa populazioa hiru talde handitan esleitzea ahalbidetzen duena dela, zortzi esparru nabarmenetan herritarrek dituzten jarrera eta iritzien arabera.

35. taulak hiru taldeetako bakoitzak zortzi alderdietan ematen dituen emaitzak erakusten ditu, horietako bakoitzak 0tik 100era bitarteko puntuazioak izanik.

[24] Aldagai anitzeko K-means sailkapen-teknika honetan emaitzak interpretagarriak izan daitezen, bi kondizio bete behar dira: batetik, talde barruko homogeneotasuna (talde bakoitzaren barne-osaera homogeneoa, analisian sartutako aldagaiei dagokienez, zazpi indize partzialak edo zazpi alderdiak, gure kasuan) eta taldeen arteko heterogeneotasuna (ondoriozko taldeen arteko portaera-alde esanguratsuak).

**35. taula. Azken konglomeratuetako zentroak**

| Adierazle partzialak | Irekia | Anbibalentea | Itxia |
|---|---|---|---|
| Eremu publikoko diskriminazioaren indizea | 50,44 | 19,27 | 28,16 |
| Estereotipoekin lotutako indizea | 58,71 | 52,10 | 32,83 |
| Irudi sozialarekin lotutako indizea | 48,53 | 46,45 | 28,52 |
| Hezkuntza-esparruko indizea | 72,65 | 71,58 | 62,96 |
| Eremu pertsonaleko indizea | 93,33 | 93,05 | 81,63 |
| Portaerarekin lotutako indizea | 77,16 | 76,09 | 34,56 |
| Integrazioarekin lotutako indizea | 74,95 | 71,36 | 69,92 |
| Eremu pribatuko diskriminazioaren indizea | 64,51 | 39,90 | 55,68 |

*Iturria: geuk egina.*

Ikusten denez, taldeetako lehenengoak (Talde Ireki deitu diogu), puntuaziorik altuenak lortu ditu aztertutako zortzi esparruetan. Izan ere, horietako batzuetan puntuazioak altuak dira, are 70 puntutik gorakoak esparru hauetan: hezkuntza, integrazioa, portaera eta, bereziki, eremu pertsonala.

Puntuazio horiek aditzera ematen digute talde hori osatzen duten pertsonek, oro har, ijitoekiko jarrera eta iritzi irekiak dituztela, nahiz eta beste lau alderdietan tarteko puntuazioak izan.

**44. grafikoa. Taldeen puntuazioak zortzi esparruetan (amaierako zentroak)**




*Iturria: geuk egina.*

Talde anbibalentea deritzogun kolektiboak oso jarrera eta iritzi askotarikoak ditu esparruen arabera: oso alde nabarmenak daude. Jarrera irekiak, toleranteak eta inklusiboak ditu talde horrek esparru pertsonalean, portaera-esparruan, hezkuntza-esparruan eta integrazio-esparruan, baina ez deritzo ijitoen kontrako diskriminaziorik dagoenik, ordea, ez eremu publikoan ez pribatuan.

Azkenik, hirugarren azpitaldeari Talde Itxi deitu diogu alderdi gehienetan ijitoekiko jarrera eta iritzi itxienak dituzten pertsonek osatzen dutelako. Talde honek, oro har, puntuazio txikiagoak izateaz gain, oso balio txikiak ditu ijitoei buruzko aurreiritzi-diskurtsoekin eta horien irudi sozialarekin zerikusia duten alderdietan, eta badirudi horrek eragina duela bi hauetan: hein txikian pentsatzea ijitoek diskriminazio publikoa pairatzen dutela, eta ijitoekiko harremanaren portaera-alderdian oso puntuazio txikia lortu izana.

Hiru talde horiek Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizean (2022) lortutako guztizko puntuazioak oso desberdinak dira, eta agerian uzten dute jarrera eta iritzi desberdinak dituztela ijitoei dagokienez: pertsona irekienen taldeak 64,24 puntu lortu ditu, pertsona anbibalenteen taldeak 52,71 puntu eta pertsona itxienen taldeak 44,13 puntu.

**45. grafikoa. Taldeen puntuazioak ijitoenganako irekitasunaren euskal indizean (2022)**




*Iturria: geuk egina..*

Azterketa bereizle bat aplikatzeak gure iritziak berresteko eta hiru talde horietan biztanleriari buruz egin dugun sailkapena onargarria ote den egiaztatzeko aukera ematen digu.

Bi funtzio bereizleen azterketak (biak bereizleak, korrelazio kanonikoekin .844 eta .709, eta Wilkins eta Chi-ren Wilks eta Chi lambda karratuko kontraste erabat esanguratsuak 0.000) adierazten digu aldagai guztiak bereizleak direla: lehen funtzio bereizlea portaeraren, gizarte-irudiaren, aurreiritzi eta estereotipoen, eremu pertsonalaren eta hezkuntzaren esparruez osatuta dago. Lehenengo funtzio horrek —bariantza osoaren % 71,0 biltzen duenak— beste taldeko pertsona ireki eta anbibalenteen taldeak bereizi egiten ditu beste taldetik, ijitoekin jarrerarik itxi eta baztertzaileena duten pertsonez osatutakotik, hain justu. Bigarren funtzioak, funtsean, anbibalenteen taldeko pertsona irekien taldea bereizten du. Nolanahi ere, badirudi bi funtzioek ezin hobeto bereizten dituztela hiru taldeak, azterketa bereizleak zuzenki sailkatzen baititu jatorrizko kasu multzokatuen % 96,2 eta baliozkotze gurutzatuaren bidez baliozkotutako kasu multzokatuen % 95,7.

**46. grafikoa. Euskadiko herritar taldeen lurralde-mapa**




*Iturria: geuk egina.*

Bestalde, hiru taldeen pisua –tamaina– aldakorra da. Pertsona irekien taldeak lagin osoaren % 39,50 inguru biltzen du; pertsona anbibalenteena % 26,50 da, eta Ijitoen errealitate sozialari dagokionez jarrera itxiena duten pertsonek osatutako taldeak % 34,00 osatzen du.

**47. grafikoa. Taldeen tamaina**




*Iturria: geuk egina.*

Amaitzeko, talde bateko edo besteko kide izatearekin lotura handiena duten aldagai soziodemografikoak —eta horietako taldeak— aztertzea erabaki genuen. Horretarako, kontingentzia-tauletan eta elkarrekikotasun sinpleen faktore-analisian (48. grafikoa) oinarritu gara, oso soluzio grafiko argigarri eta intuitiboa ematen baitigu analisi horrek. Hala, honako lotura hauek hauteman ditugu:

- Ijitoei irekita dauden pertsonen taldea honako hauei lotuta dago hein handienez: 18-44 urteko pertsonak, hirugarren mailako ikasketak dituztenak, euskaldunak, agnostikoak, ateoak edo erlijioarekin zerikusirik ez dutenak, ideologikoki ezkertiarrak direnak, euskal identitate-sentimendua dutenak (gehienbat, behinik behin), 2.500 € baino gehiagoko hileko diru-sarrerak dituztenak, lanean edo ikasten ari direnak edo estatus sozioekonomiko ertain edo altuko pertsonak.

- Ijitoei dagokienez anbibalenteak diren pertsonen taldea, berriz, honako hauei: 45-74 urteko pertsonak, ez-euskaldunak, katoliko ez-praktikatzaileak edo beste erlijio batzuetakoak, ideologikoko euren burua zentro-eskuindartzat dutenak, identitate-sentimendua axola ez zaien pertsonak (euskal identitatea zein identitate espainola), etxean hileko 1.801-2.500 euroko diru-sarrerak dituztenak eta estatus sozioekonomiko baxuko pertsonak.

- Hona hemen, azkenik, hein handienez ijitoei itxita dauden pertsonen taldea: 65 urteko eta gehiagoko pertsonak, ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak, ez-euskaldunak, katolikoak —nola praktikatzaileak hala ez-praktikatzaileak—, ideologikoki euren burua zentrokotzat edo eskuindartzat duten pertsonak, identitate-sentimendua axola ez zaien edo euren burua gehienbat espainoltzat duten pertsonak, hilean 1.800 eurorainoko diru-sarrerak dituztenak, erretiratuak eta estatus sozioekonomiko baxuko pertsonak.

**48. grafikoa. Elkarrekikotasun Sinpleen analisia. Taldeen iritzi-mapa**




*Iturria: geuk egina.*

# Ondorio orokorrak

Ondorio orokor gisa, azken atal honetan laburbiltzen eta laburki nabarmentzen ditugu gizarte-interes handienekotzat jotzen ditugun informazioak, txostena osatzen duten bi bloke handiak kontuan hartuta: 1) euskal gizartea aniztasunera irekita egotea eta 2) ijitoei buruzko pertzepzioak, jarrerak eta sinesmenak.

## Euskal gizartearen irekitasuna aniztasunari dagokionez

Herritar gehienek adierazi dute aniztasunera irekita daudela baina, aitzitik, Euskadin errealitate diskriminatzaileak existitzen direla eta errealitate horien aurka daudela. Hala, gehienek nahiago dute gizarte anitz batean bizi, jatorri, kultura, erlijio-sinesmen eta sexu-orientazio eta -identitate anitzeko pertsonekin, hain zuzen ere.

Alabaina, ez da ahaztu behar joera orokor positibo horiek apur bat neurritsuagoak direla zenbait talderi dagokienez; horien artean, ijitoak, musulmanak eta jatorri atzerritarrekoak nabarmentzen dira, batez ere harreman intimoeneko eremuei dagokienez.

Adiskidetasun-harremanei dagokienez, gizartearen gehiengoak dio jatorri atzerritarreko lagunak edo ezagunak dituela, eta lesbiana, gay edo bisexual dezente ezagutzen dituela. Era berean, hamar pertsonatik zazpik adierazi dute ez dutela ijitorik edo transik ezagutzen, ez eta halako pertsonekiko adiskidetasun-harremanik izan ere.

Hezkuntza-esparruari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu biztanleria, batez ere, ikastetxeetan talde sozial gutxituei eta gizarte-desparekotasuneko egoeran daudenei lotutako errealitateei buruzko informazioa sartzearen alde agertzen dela, eta onarpen neurritsuena erlijio-aniztasuna sartzearen kasuan dela.

Diskriminazioaren pertzepzioari dagokionez, gehienek ez dute identifikatzen diskriminazioa edo arrazakeria arazo garrantzitsuak direnik gizartean, baina gehienek uste dute Euskadin ez zaiela tratu bera ematen pertsona guztiei. Ildo horretan, bereziki nabarmengarria da lanpostu bat lortzean eta etxebizitza bat eskuratzean tratu desberdina hauteman ohi dela; izan ere, hamar pertsonatik ia zortzik uste dute desparekotasunak daudela bakoitzaren arabera.

Era berean, ezaugarri eta bizi-egoera askotarikoak dituzten pertsonen balizko lan-kontratazioari buruz galdetu zaienean, herritarren laurdenek adierazi dute saiatuko liratekeela ijitorik ez kontratatzen edo ez luketela ijitorik kontratatuko; gainera, hamar pertsonatik lauk adierazi dute ez saiatuko liratekeela etxebizitzarik ez alokatzen ezein ijitori edo ez lioketela etxebizitzarik alokatuko ezein ijitori.

Bestalde, nabarmentzekoa da, halaber, pertsona gehienek ez dakitela zertarako eskubidea duten diskriminazioa pairatuz gero, eta, gainera, ezagutza mugatua dutela halako egoerak salatzeko erakunde eta mekanismo instituzionalei buruz.

Horrek ez du esan nahi gizarteak ontzat jotzen ez dituenik erakundeek berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde hainbat esparrutan egiten dituzten ahaleginak . Hein handiagoan ikusten da erakundeen ahaleginak nahikoak direla erlijio-aniztasunari, etorkinen eta desgaitasuna duten pertsonen integrazioari eta lesbiana, gay eta bisexualek pairatzen duten diskriminazioaren aurkako borrokari dagokienez. Haatik, ijitoen integrazioan eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan oinarritutako ahalegin instituzionalak ez dira nahikotzat jotzen.

## Ijitoei buruzko pertzepzioak, jarrerak eta sinesmenak

Ijitoei buruzko jarrerei eta sinesmenei dagokienez, oro har, gizartearen gehiengoak onartu eta salatu egiten du ijitoen aurkako diskriminazioa dagoela hainbat alderditan, baina, haatik, jarrera anbibalenteak ditu hainbat uste eta ideia estereotipaturen inguruan eta aditzera ematen du ez dela hain eroso sentitzen harreman- eta bizikidetza-esparru intimo eta gertuenekoetan.

Hezkuntza-esparruari dagokionez, inkestatutako hamar pertsonatik zortzi Ijito Herriaren historia eta kultura hezkuntza-arloan sartzearen alde daude. Bestalde, gizartearen erdiak baino gehiagok ez du onartzen ikasle ijitoek eskoletako hezkuntza-maila jaisten dutenik; aitzitik, % 50en baino zertxobait gehiagoren ustez, «emakume ijitoek ikasketak gizonek baino lehenago utzi ohi dituzte».

Lan-esparruari dagokionez, herritar gehien-gehienek uste dute ijitoek zailtasunak dituztela lana aurkitzeko, eta desparekotasunak jasan behar

dituztela, lan-esparruan, lanpostu batean gora egiteko eta euren karrera profesionala garatzeko. Horrez gainera, % 40k baino gehiagok adierazi du bere ustez ijitoek ez dituztela gainerako pertsonen lan-kondizio berak.

Ikuspegi sozial kritiko horrek kointziditu egiten du gutxiengoak izatearekin ijitoek «nahi ez dutelako ez dute lan egiten» delako sinesmenaren inguruko aurreiritziak, baina nabarmentzekoa da, halaber, biztanleriaren laurden batek ez duela horri buruzko abururik.

Oro har, nabarmentzekoa da ijitoak gainerako pertsonak baino matxistagotzat jotzeko estereotipoa existitzen dela oraindik ere, eta ijitoen kulturak emakume ijitoen garapen profesionala mugatzen duelako sinesmena zabalduta dago oraindik ere. Bestalde, nahiz eta gehienek uste duten ijitoek balio positiboak dituztela, hala nola adineko pertsonak errespetatzea eta familiaren garrantzia, hamar pertsonatik zazpik uste dute ijitoen kulturak talka egiten duela gizartearen gainerakoarekin.

Gehienek uste dute ijitoen integrazio-maila txikia dela, eta lehentasuna ematen diote ijitoen integrazio handiagoa lortzeko lan egitearen aldeko jarrerari, erakundeen eta gizarte osoaren inplikazioa izanik eta nola ijitoen hala gainerako herritarren ahalegin partekatuaren alde eginez. Izan ere, gehien-gehienak ados daude ideia honekin: ijitoak hobeto integratuko balira, gizarteak onura aterako luke.

Gehiengoak uste du gizarteak ahalegin handiagoa egin beharko lukeela ijitoen integrazioaren, ohituren eta tradizioen alde. Hala, den-denek deritzote egungo bizikidetza hobetzeko ijitoen eta ijito ez direnen artean ahalegin partekatua egin behar dela. Alabaina, deigarria da inkestatutako pertsonen ia erdiek hau deritzotela: diskriminazioa justifikatuta dago, batzuetan, ijitoen jarrera eta portaerak ikusirik; horrek agerian uzten du Ijito Herria erruduntzat jotzen jarraitzen duen eta, gutxi-asko ezkutuan, erakunde-esparruari eta gizarte-multzoari erantzukizuna kentzen dion oinarri soziokultural bat existitzen dela.

Bizikidetza- eta elkarrekintza-kasuei dagokienez, biztanle gehien-gehienek —hamarretik bederatzik baino gehiagok— adierazten dute ez dutela arazorik ijitoekin harremanetan egoteari dagokionez lan- eta hezkuntza-testuinguruan, ez ijitoek goragoko posizioa —zuzendaritzakoa— dutenean ez parekoa —lankidea edo ikaskidea— dutenean. Elkarbizitza-onarpenaren maila nabarmen jaisten da, alabaina, seme-alabentzat ijito adingabe asko dituen ikastetxe bat hautatzeari dagokionez — inkestatutako hamar pertsonatik ia lau saiatuko lirateke ez hautatzen halako ikastetxerik, edo ez lukete inolaz ere halakorik hautatuko. Azkenik, nabarmentzekoa da % 40k baino gutxiagok adierazi dutela ijito asko dituen auzo edo bloke berean bizitzea onartuko luketela; beste % 40,9, aldiz, saiatuko lirateke ijitoekin ez bizitzen, eta % 15,3 ez lirateke inolaz ere ijitoekin biziko.

Hautemandako diskriminazioari dagokionez, eta modu espontaneoan betiere, ijitoa izatea aipatzen da, bigarren aukera gisa, pertsona bati tratu-desparekotasuna jasotzeko arriskua dakarkion ezaugarri posible guztien artean (lehen aukera jatorri atzerritarrekoa izatea da); haatik, aukeratu beharreko ezaugarrien zerrenda itxi bat proposatzen denean, ijito izatea da, oro har, diskriminazio-kausa izateko arriskua dakarten ezaugarri pertsonalen arteko lehenengoa.

Inkestatutako pertsonen ustez, lanaren eta etxebizitzaren esparruetan jasaten dute ijitoek diskriminazio handiena. Era berean, nabarmentzekoa da eremu horietan bertan diskriminazio-jarreren adierazpen handia; izan ere, hamar pertsonatik ia hiruk adierazi dute prestakuntza eta esperientzia berdineko hainbat hautagairen artean saiatuko liratekeela ijitorik ez kontratatzen edo ez luketela ijitorik kontratatuko; aldiz, hamar pertsonatik lauk baino gehiagok aitortzen dute saiatuko liratekeela etxebizitzarik ez alokatzen ijito bati edo ez lioketela etxebizitzarik inolaz alokatuko ezein ijitori.

Garrantzitsua da ez ahaztea biztanleriaren % 40k baino gehiagok ijitoren bati buruzko iruzkin negatiboak edo zurrumurruak entzun izan dituela, eta % 34k baino gehiagok, berriz, isekak, txantxak, txisteak, imitazioak edo antzekoak ikusi izan dituela. Gainera, adierazgarria da % 21,1ek ijitoen kontrako irainak ikusi izana, % 12,5ek mehatxuak eta % 10,7k eraso fisikoak.

Azkenik, gizarteari ijitoekiko sinpatiaz, tolerantzia pertsonalaren mailaz eta gizarteak oro har duen tolerantziaz galdetzen zaionean, balio ertainak edo txikiak ikusten dira. Hala, sinpatia-maila, 0tik 10era bitarteko eskala batean, 5,79 puntukoa da batez beste; aitortutako tolerantzia pertsonala, berriz, 6,65 puntukoa da 10etik; gizarteari oro har esleitzen zaion batez besteko tolerantzia-maila 5,3 puntukoa da.

Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizea (2022) egin ondoren lortutako informazioaren azterketa sakonetik honako ondorio hauek atera daitezkeela uste dugu:

- Euskal biztanleriak ijitoei dagokienez dituen jarrera eta iritziak nabarmen hobetu daitezke. Datuak Ikuspegik egindako beste barometro batzuetan (jatorri atzerritarreko biztanleak, aniztasuna orokorrean, LGTBI pertsonak, etab.) lortutakoekin alderatuz gero, emaitza txarrenak lortu dituena da hori, tolerantzia eta inklusibotasun txikiagoko jarrerak adierazten baitituzte.

- Alabaina, zera iruditzen zaigu, adierazitako aburuak —eta horien azpiko iritziak eta jarrerak— partzialak direla beharbada (irudi subjektiboa, berdinkideen taldearen ispilu-irudia eta desiragarritasun soziala), eta hortaz, gizarteak ijitoekin lotuta dituen jarrerei dagokionez emandako

irudia benetakoa baino hobexeagoa dela beharbada, zenbait gaitan behinik behin.

- Indize sintetiko bat sortu dugu, biztanleria osoak ijitoekin duen jarrera eta jokabidea laburbiltzen dituena. Ijitoenganako irekitasunaren euskal indizea (2022) izena jarri diogu, eta honako hauek neurtzen ditu: gizartearen jarrerak eta iritziek dituzten ijitoei dagokienez dituen irekitasun-maila eta tolerantzia-mailak. Indizea 0tik (jarrera itxi eta intoleranteenak) eta 100era (jarrera irekiagoak eta toleranteagoak) bitarteko puntuazioan oinarritzen da. Lehenengo urte honetan 54,36 puntu lortu dira.

